

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-05-31
EGUBAKOITZA
555. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

San Pedro egunean, inaugurazioa

Bergarako San Pedro parrokia berri dute | 9



San Pedro parrokia. | MONIKA BELASTEGI

Dozena bat musika saio Euskerien Egunean, Aretxabaletan | 24



Biodantza, 'clown' estiloan Bergarako San Juan auzoan | 23



Realaren lagunartea sortzeko deialdia egin dute Oñatin | 12



Aurreko grebetan baino erantzun txikiagoa, baina sindikatuak pozik


Sindikatu deitzaileek ontzat eman dute atzo jasotako erantzuna. Halere, kooperatiba nagusiak greba egin barik, jarraipen ezberdina izan zuen maiatzaren 30eko greba orokorrak. | 4

Manifestazioa, Arrasateko Otolara Lizentziaduna kalean, 'Euskal Herriak eredu propioa, eskubide zibil eta laboral duinak' zioen pankartarekin. | JON BEREZIBAR

SINADURAK

 Bederatzitik, bostetan | 6
GOIO ARANA

 6 | Aisialdia eta alkohola
MONIKA BELASTEGI

 Badatoz... | 18
XABI IGOA

 32 | Gomendioak
AGURNE BARRUSO

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 20
KULTURA 23 | ZURE IRAGARKIAK 27
TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAK 29
ESKELAK 29 | NON-ZER 30

Oñatiko XI. Herri Lasterketan bailarako bost atleta, bihar

Corpusetako egun handiaren bezperan, 19:00etan da | 20



GOIENA

Aurten, Gabez Takarran lasterketa berrituta dator | 21

Eraginkortasun ziurtagiria, etxebizitzek ere bai aurrerantzean

Derrigorra izango da etxea saldu edo alokatzeko | 2

"Ekintzailetasuna beharrezkoa da, baina horrek bakarrik ez gaitu krisitik aterako"

 Aitor Urtzelai | Jaurilaritzako Ekintzailetzaren arduraduna | 8

Eraginkortasun ziurtagiria, etxebizitzek ere bai aurrerantzean

- ▶ Derrigorra izango da etxea saldu edo alokatzeko
- ▶ Betetzen ez dutenentzat isun handiak izango dira



JULEN IRIONDO | ARRASATE

Salduak edo alokairuan emanak izatekoak diren etxebizitzek baldintza berri bat bete beharko dute ekain hasieratik aurrera: energia eraginkortasun ziurtagiria izan beharko dute, derrigor. Ziurtagiri honek adierazten du ze CO2 emari duen etxebizitzak, eta horren arabera kalifikazioa ematen dio, kolore eta letra bidezko sailkapen baten: berdetik gorrira eta A-tik G-ra, eraginkortasunaren txi-kiena dutenak.

Hemendik aurrera, etxebizitza erostera edo alokatzera doanak eskubidea izango du ziurtagiri hau exijitzeko. Proiektua 2007 urtea baino lehenagokoa duten etxebizitzentzat da neurri berria, ordutik aurrerakoek derrigorrez behar zuten-eta ziurtagiria, erakitzearekin batera.

Espainiako Gobernuak apirillean erabaki zuen, Errege Dekretuz, betebeharrak hau ezartzea. Kontua, baina, askoz lehenagotik dator: 2002koa da Europako zuzentaraua gai honen gainean.

Hobekuntzak, hautazkoak

Etxebizitzak energia eraginkortasunaren arabera sailkatzea da, beraz, egingo dena, agerian gera-

tu dadin etxebizitza bakoitzak ze emari duen -eta erregai edo energiari ze gastu, azken finean-; neurri berriak ez du inor behartuko etxebizitzaren energia eraginkortasuna hobetzeko aldaketak egitera. Etxebizitza sailkatzeko azterketa egiten duenak gomendioak emango ditu, baina gomendioak baino ez dira izango.

Ekainetik aurrera ziurtagiria ez duten eta etxebizitza saltzeko edo alokairuan emateko asmoa duten etxejabeek arau-haustea egingo dute. Arau-haustek maila desberdinetakoak izan ahalko dira, eta isunak izango dira 300 eta 6.000 euro artekoak -eta hortik gorakoak ere izan daitezke, lortutako etekinaren arabera-.



Eraginkortasun ziurtagiria. | GOIENA

Falta arina -300 eta 600 euro artean- izango da saiartzea etxebizitza saltzen edo alokairuan ematen bere energia kalifikazioa aipatu gabe -nahiz eta izan; pen-tsa liteke, adibidez, ezkututzen saia litekeela, kalifikazioa kas-karra izateagatik-; ez jartzea begi bistan energia eraginkortasun etiketa derrigorrezkoa den kasuetan, edo gutxieneko formatu edo edukia ez dituen bat erakustea; ziurtagiriak ematea gutxieneko informazio gabe; ziurtagiriak berritzeko edo eguneratzeko bete-beharrak ez betetzea; Eraikin Liburuan ziurtagiria ez sartzea eta proiektuaren kalifikazioa erabiltzea amaitutako eraikinak dagoeneko baduenean.

Larritzat -601 eta 1.000 euro artean- hartuko da eraikinaren azterketarako dagokion metodologia ez ibiltzea; administrazioan ez aurkeztea ziurtagiria erregistratua izan dadin; energia eraginkortasunaren ziurtagiri egitasmoa ez sartzea higiezinaren exekuzio proiektuan; bere ziurtagiriarekin bat ez datorren etiketa erakustea; eta etxebizitza saltzea edo alokairuan ematea jabeak hartzaileari ziurtagiriaren frogaria entregatu gabe.

Arau-hauste oso larria -1.001 eta 6.000 euro artean- izango da, ostera, ziurtagiria ematean edo erregistratzean informazioa faltuztea; titulazioa izan gabe ziurtagiri emaile moduan jardutea edo ziurtagirian emandako kalifikazioa zuzena dela kontrolatzeko teknikari baimendu bezala jardutea hala izan gabe; eraikin bat edo eraikin baten zatia saltzeko edo alokairuan emateko garaian, behar den bezala erregistratuta eta indarrean ez dagoen ziurtagiri baten arabera kalifikazio bat erabiltzea.

Honez gain, arau-hauste larritzat hartuko da falta arin bat egitea aurreko urtebetean maila bereko arau-hausteagatik behin betiko zigor bat ezarria izan zaion norbaitek, eta oso larritzat arau

Etxe-agentzietan ere aldaketak ekarriko ditu neurri berriak

Etxe-agentzietan badu eragina neurri berriak; izan ere, saltzeko edo alokatzeko iragarkietan derrigor agertu beharko dira ekainaren 1etik aurrera etxebizitzaren kalifikazioaren berri ematen duen energia eraginkortasunaren etiketa. Arrasateko Deba Garaia etxe-agentzian, adibidez, ari dira bezeroak ohartarazten ziurtagiria egin beharraz. Azterketak egiten dituzten inguruko enpresen berri ere emango diete; izan ere, edonorekin ez

egitea gomendatzen du Jesus Markaidek: "Ikusi ditut Interneten teknikari batzuk ziurtagiriak egiten dituztenak 45 eurogatik; Madrilgo enpresa batek, adibidez, egiten baditu etxea ikusi gabe, argazki batekin, eta administrazioa ohartzen bada emaitza ez dela zuzena, jabearentzat ere isuna dago; eta, gero, joan zaitez teknikari horren bila!". Isunei dagokienez, zorrotzak izango direla uste du Markaidek, jendeak ez lukeelako egingo bestela.

ALDATU ZURE NEGOZIO-EREDUA




NISSAN NV200

GAURSA

Avenida Otaola, 22 - Eibar 20600 - Tel. 943 82 09 74

www.goursacars.com

Kontsumo mistoa: 5,1-7,2 l/100 km, CO₂ emisioak: 135-169 g/km.



Leihoak eta galdara, garrantzitsuak dira eraginkortasunerako. | JULEN IRIONDO

Hau etxebizitzaren gainean, baina administrazio publikoek ere izango dituzte betebeharrak, euren eraikinei dagokienez. Ziurtagiria izan beharko dute herritarrentzako irekita dauden 250 metro koadrotik gorako eraikinek. Kiroldegi, kultura etxe, udaletxe eta abarrek etiketa energetikoa erakutsi beharko dute ondo ikusteko moduko leku batean. Ekainaren lehenetik eraikin horietako zenbatetan dagoen ikustea termometro aproposa izan daiteke Ekitermik enpresako Mikel Aranbarriren esanetan: "Ezin diozu partikular bati eskatu edo isun bat jarri, zuk obligazio bera duzunean eta ez duzunean betetzen, administrazioa izanda. Baina ez dakit nola ibiliko diren ekainaren lehenetik, nik uste nahikoa atzeratuta doala gauza".

Gai honetan erkidego autonomoek izango dute eskuduntza -eurek egingo dituzte inspektzioak-, eta aurrez aipatutako guztia bete beharko dute pertsona fisiko eta juridikoen, eta ondasun komunitateen ere bai. Beraz, betebeharrak honiek eragingo die, adibidez, partikularrei, promotoreei, bankuei eta administrazio publikoari.

Ekitermik Mikel Aranbarririk dio bezeroek ez dutela orain arte kontuan hartu izan eraginkortasuna etxebizitzaren aukeratzeko orduan, baina gero eta gehiago izango dela horrela: "Begera etxetresnak, A+ kalifikaziotik beherakoak ia ez dira saltzen dagoeneko".

-hauste beragatik aurreko hiru urteetan zigortua izan eta akatsa errepikatzea.

Etekinaren arabera zigorra

Zigoren kopuruei dagokienez, 6.000 eurotik gorakoak ere izango dira, operazioarekin ateratako etekina

hortik gorakoa den kasuetan. Hala koetan, etekinaren arabera zigorra ezarriko da, kontuan izanda eragindako kaltea, zilegi ez den moduan lortutako etekina zenbatekoa den, nahita egin ote den eta arau-hauste bera behin baino gehiagotan egin den edo ez.

MIKEL ARANBARRI | EKITERMIK

"Europatik dator, ez da dirua egiteko Gobernuari otu zaion gauza bat"

Arrasateko Ekitermik enpresaren energia eraginkortasunaren alorrean egiten dute lan, eta azterketak egin eta ziurtagiriak emateko baimenduta daude.


Jendeak ezagutzen al du betebeharrak berri hau; sumatu al duzue mugimendurik, ziurtagiri eskerik?

Partikularrek ez dakit dakiten nahikoa; etxe-agentziek, bankuek, profesionalek, apur bat gehiago. Partikular askok, gainera, ez dute oso ondo ulertu zer den kontu hau. Pentsatzen dute obraren bat egin behar dela zerbait lortzeko, eta ez da horrela. Eskaerei dagokienez, apur bat mugitzen hasi da kontua azkeneko bi asteotan.

Hainbatek ikusi dute dirua ateratzeko beste modu bat bezala.

Agian ez da hau martxan jartzeko momentu onena, krisiagatik; ulertzen da jendeak ikustea beste karga

bat moduan, baina eroslearentzat gauza positiboa da, nire ustez. Ari zara adierazten etxebizitza horrek nolako gastua duen kontsumoetan. Datu mesedegarria da hori bezeroarentzat, dirua aurrezteko ekar dezake eta. Ez da gauza bat



orain Espainiako Gobernuari otu zaiona dirua egiteko. Europatik datorren lege bat da, eta derrigorrezkoa.

Zer aztertzen da kalifikazioa eman eta ziurtagiria egiteko?

Aztertzen direnak dira fatxadak, inguratzaila, leihoak eta fatxadako guñeak, eta etxea berotzeko erabiltzen den galdara edo hozte sistema. Ziurtagiri

honek esaten duena da zenbateko CO2 emaria duen etxebizitza, eta horren arabera kalifikazioa ematen zaio.

Zenbat balio du ziurtagiriak?

Gurekin, 190 euro inguru, ohiko etxebizitza batentzat.

"Eroslearentzat positiboa da, dirua aurrezteko ekar dezake eta"

Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa

DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

www.debagolena.net

ESKAINNTZA

- Sukaldeko langilea
- Mekanizazioko langilea

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira. Horrela ez balitz, posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

PRAKTIKAK

2. mailan 300 ordu baino gehiagoko praktikak enpresetan.

TITULAZIOA

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak izenpetutako ikasketa ziurtagiria.
- DBHko Graduatu titulua eskuratzeko aukera.

AURREMATRIKULAZIO EPEA
Ekainaren 3tik 21era, 09:00etatik 12:30era.
LANBIDE (INEM) PAREAN DAGOEN ERAIKINEAN

EUROPAKO GIZARTE FONDOA

arizmendi ikastola

HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA | Nafarroa etorbidea, 21 | 20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA) | Tel.: 943 79 28 90

Jarraipena ezberdina izanda ere, sindikatuak pozik atzoko grebarekin

Kooperatiba nagusietan, Arrasaten eta Oñatin, lan egin zuten atzo

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Arrasate eta Bergarako manifestazioekin amaitu ziren atzoko greba eguneko mobilizazioak. Manifestazioan, Arrasateko Greba Plataformakoek mezu garbia izan zuten herritarrentzat, "gutun sozialaren eskaerakin aurrera jarraitu beharra" dagoela. Aizpea Otxandiano plataformako kidea pozik agertu zen ibarrean deialdiak izandako erantzunarekin eta nabarmendu zuen "Euskal Herriak iritzi propioa duen langileria duela" erakutsi dela.

Kooperatiba handietan greba egin ez izanak eragin nabaria izan zuen atzo eta, espero moduan, askotariko erantzuna izan zuen gurean. Arrasate eta Oñatiko lantoki nagusietan ez zuten lanuzterik egin eta industriagune txikietan jarraipena ezberdina izan zen, tokian tokiko. Horrek kontrastea egin zuen hego Euskal Herriko gainerako ibar eta hiri industrialetan gertatutakoarekin, sindikatu deitzaileen arabera "zabala" izan baitzen atzoko erantzuna. Alde hori are nabariagoa izan zen Gipuzkoarekin alderatuz gero, erantzuna "oso zabala" izan baitzen han sindikatuen arabera. Jaurlaritzaren ustez, "normaltasuna" izan zen nagusi eta emandako datuen arabera erkidegoko sektore pribatuan %18,7ko eragina izan zuen -eguerdiko datuak- eta Gipuzkoan %43,1koa. Udaltxeetan eta zerbitzu publikoetan,



Pikete informatiboa Bergaran. | LARRAITZ ZEBERIO



Arrasateko banketxe bat, goizez. | Z. VELEZ DE MENDIZABAL

ia erabatekoa izan zen lanuztea. Confebaskentzat, azkenik, "zortzigarren greba orokorrak porrot egin du", prentsa ohar bidez zabaldukoaren arabera.

Deitzaileek, balorazio ona

Datu zehatzetan sartu barik, LAB sindikatuko Ander Gallegok esan zuen "kooperatiben erantzuna kenduta, grebaren balorazio oso ona" egiten dutela ibarrari dago-kionez. LABeko ordezkariak nabarmendu du Bergaran Arcelor eta Oñatin Garai moduko gune handiak grebara irten zirela eta hezkuntzan eta administrazioan geldialdia "ia erabatekoa" izan zela. Balorazio ona "Gasteizko manifestaziora Debagoienetik



Elgetako Pagatza industrialdea, atzo goizean. | LARRAITZ ZEBERIO

joandako jendetza handiak" berretsi zuen, Gallegoren iritziz.

Bare, goizean goizetik

Lantoki handietan, Fagor Elektresnen kasuan bezala, ohiko lanegun bateko okupazioa erakutsi zuten aparkalekuek, esate baterako. Industriagune txikietan, ostera, bestelakoa zen goizean goiz atera zitekeen argazkia. Elgetako Pagatzen, adibidez, itxita zeuden tailerrak eta auto barik. Enpresa txiki eta handien arteko aldea agerian geratu zen. Unibertsitateak ere zabalik egon ziren eta zenbait ikasle ere joan zen zentroetara. Gertaeren berririk ez zuen eman Ertzaintzak.

Piketeak saltoki handietan

Bergara eta Oñatin izan ziren pikete informatibo aktiboena. Bergaran taldea 08:30ean abiatu zen eta merkataritza gune nagusietara joan ziren. Barruan langileak aurkitu zituzten kasuetan, piketearen ostean itxi egin zituzten saltokiak. Arrasateko Eroski, aldiz, zabalik egon zen atzo baina bezeroak gutxi izan ziren, jende emaria ikusita, LIDL ala DIA saltokietan bezala. Zenbait banketxe erdizka egin zuten lan.

Komertzio txikia, itxita

Gainerako komertzio eta dendetan, ia guztietan, itxita egon ziren atek herri guztietan. Grebaren eragina, hortaz, herrietako erdiguineetan igarri zuten gehienbat, komertzioak eta tabernak itxi egin zituztelako. Debagoieneko Ospitalean ere igarri zen egunaren ezohikotasuna jende aldetik, behintzat.

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Hizkuntza ohiturak aldatzeko proiektu pilotu batean dago JMA

Aldahitzek, EHUK eta Soziolinguistikako Klusterrak abiarazi dute ikerketa

UBANE MADERA | ARRASATE

"Euskaraz lan egitea natural bihurtzea, horixe da Aldahitz ikerketaren helburu nagusia. Hizkuntza-ohiturak aldatzea ez da beti langintza erraza, are gutxiago eguneroko lan-erritmo estuan". Bada aldaketa hori erraztu guran dihardu Aldahitz, Soziolinguistikako Klusterra eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean. Hain justu ere, esperientzia pilotua abiarazi dute EAEko bi lantegitan, EMUN eta Elhuyarrek in lankidetzan, eta bi enpresa horietako bat da Arrasateko JMA.

Posible da

Alejandro Altuna SA enpresako 13 langilez osatutako taldea dabil, hain zuzen ere, proiektua lantzen, martxoaz geroztik, "eta oraindik goiz bada ere emaitza errealak ezagutzeko, lehen datuek adieraz-



Aldahitz ikerketan parte hartzen dabilen JMAko taldea. | JMA

ten dute esperientzia horrek urtean finkatutako hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera eman duela", adierazi dute. JMAko euskara batzordeak adierazi du "ilusioz"

hartu duela proiektua eta "pozik" dagoela orain arte emaitzekin, bereziki, "konpromisoa kolektiboa" izanda "horrek indar handia ematen" diolako proiektuari.

Euskara protagonista Aretxabaleta eta Elgoibarren

Euskerien Eguna ospatuko dute Aretxabaletan bihar; Elgoibarren, berriz, Mintza Eguna

U.M. | DEBAGOIENA

Euskerien Egunarekin goizetik iluntzera bitarteko hitzordua dute bihar, zapatua, Aretxabaletan. Loramendi Euskara Elkartaren eskutik, 10:00etan hasi eta gauera arteko egitarau mardula eskainiko zaie herritar eta bisitariei. "Egun osoan ez da girorik faltako Aretxabaletan", diote antolatzaileek. Eta ekitaldi batzuk ere nabarmendu dituzte: "Musika, haurren jolasak eta aurten Txondorraren erakusketak ere egingo dugu. Izan ere, ekainaren 8an, Loramendi elkarteko toponimiak prestatu duen ibilbide berria egiteko aukera edukiko dugu, eta Euskerien Egunean aurkezpena egingo dugu". Beste hitzordu batzuk gehitze aldera, 14:30ean herri bazkaria eta 19:00etan larrain-

dantza izango dira. *Berandu baino lehen* leloa du egunak.

Mintza Egunean 300 lagun

Bestalde, Elgoibarren Euskal Herri osoko 300 bat mintzalagun elkartuko dira egun osoko festan bihar, zapatua. Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek 50 urte bete ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko antolatuko dute Mintza Eguna herrian. Mintzalagun, berbalagun zein mintzakide guztien jaiak da Mintza Eguna, eta egitasmoetan parte hartzen duten kideek elkar ezagutu eta egun pasa ederra egiteko antolatzen da, eta, horretarako, goiz eta arratsalderako egitaraua prestatu dute, 11:00etatik 17:30ak arte. Besteak beste, 12:00etan ibilaldi gidatua egingo dute eta 17:30ean, euskal erromeria.

Kurtzetako lur-jausiak konpontzen hasi dira eta espero dute ekainean bukatzea

Lanok egin ahal izateko bide bat itxi egin behar izan dute eta ibilgailuen zirkulazioa tarteka bideratzeko semaforoa ipini dute mendatean

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Urtarrilean eta otsailean gurean izandako eurite eta elurteek eragindako lur-jausiak konpontzen hasi da Arabako Foru Aldundia. Tartean, Kurtzetako mendatean izandakoak.

Hain justu, oraingo astelehenan hasi ziren obrak egiten hasteko ingurua egokitzen, eta zirkulazioa bideratzeko semaforoa ere ipini dute. Izan ere, obrak egin ahal izateko, bide bat itxi egin behar dute.

Jausteko arriskuan

Arabako Foru Aldundiaren lehen-tasuna da Kurtzetan jausita dauden bi harri-lubeta konpontzea: "Errepidearen zatiak jausita daude. Beraz, lehenengo egingo duguna da harri-lubetak (bi) eraiki, eta gero, errepide zati horiek konpondu", azaldu du Arabako



Obren gunea egokitu egin dute asteon. | MIRIAN BITERI

Aldundiko Errepideetako arduradun Migel Angel Ortiz de Landaluzek.

Lanok egin ostean, berriz, jausi barik baina jausteko arris-

kuan dauden paretei eusteko lanak egingo dituztela jakinarazi du. "Paretak eusteko euskarriak jarriko ditugu hainbat puntutan, eta hori egiteko ere bide bat eten


egin beharko da; beraz, semaforoarekin segituko dugu. Edozelan ere, hori guztia batera egingo dugu".

Hain zuzen ere, Ortiz de Landaluzek esandakoaren arabera, lanak orain hasi eta ekainean bukatuko dituzte, "betiere har-kaitza non azalduko eta zimentazioa non aurkitzen dugun, horren guztiaren arabera, eta jakina, eguraldiak uzten badigu; pentsatzekoa da ekainean eguraldi nahiko ona izango dugula, baina batek daki. Edozelan ere, guztira 15-20 bat egunetako lan kontua izango da".

100.000 euro inguruko aurrekontua dute Kurtzeta mendateko konponketa obrek, eta Excavaciones Arrasate eta Obras Publicas Onaindia enpresen artean egingo dituzte.

800.000 euro

Hau guztiau Arabako Foru Aldundiaren ekintza orokor baten barruan dago kokatuta. Izan ere, Arabako Foru Aldundiko prentsa sailetik aditzera emandakoaren arabera, guztira, 800.000 euroko inbertsioa egingo dute aurtengo neguan izandako apurketak konpontzen.



Aitor Axpe. | GOIENA

Aitor Axpe

Arizmendi Ikastolako irakaslea

"Bizilagunen eskarietara moldatu beharko lukete eraikinek"

U.M. | DEBAGOIENA

Ekainaren 5ean ibarretik autobus bat Noainera (Nafarroa) doa. Helburua da ezagutzea han lorezaintzatik abiatuta egin den aldaketa iraultzailea. Mikel Baztan hango agronomoak hitzaldia egin zuen Arrasaten, eta, "arrakasta ikusita, ikasleak, eragileak eta hainbat erakundetako ordezkariak -Arrasate, Oñati eta Eskoriatzako udaletakoak tartean- animatu dira autobusa antolatzea", adierazi dute Arizmendi Ikastolatik. Aitor Axpe da Arizmendiko Lanbide Heziketako Eraikuntzako ardura-duna.

Hain garrantzitsua da eraikuntza herri baten bizitzan?

Herri bat ondo egoteko edo gure bizi kalitatea ona izateko, herriak hirigintzatik ondo planteatuta egon beharko luke. Eraikinek bizilagunen eskarietara egon beharko lukete moldatuta, eta hori guztia kalitate onarekin eraikita.

Noingo kasua zergatik da horren adierazgarria?

Noainek ditu zortzi industri-gune eta aireportu bat, eta lo egiteko herri moduan erabiltzen zen. 15 urte dela, Mikel Baztanek lortu zuen gune baztertuak berreskuratzea, lorategiak eta txukuntzea, eta lortu zuen herriarrak harro sentitzea herriaz, eta inplikatzeko lanetan. Pentsa, aurrean Udalak ez du aurrekonturik apurtutako zuhaitzak eta landareak ordezkatzeko; eta ez du, beharrik ez duelako. Berez, inork ez du ezer apurtzen. Eta herriarrek norbaitek zerbait apurtzen duela ikusten badute, euren salatzen dute pertsona hori. Inguruan antzekotasuna izan dezakeen hiri bakarra da Gasteiz. Izan ere, azken hamarkadetan hiri abstraktuak bultzatu dira, Natura kontuan hartu barik. Adibidez, etxe bat egiteko eguzkia kontuan hartu beharko litzateke, bera delako iturri merkeena, eta hori ez da hala egin.

Emaztearen etxearen atariko ateari su eman eta ihes egin du, Eskoriatzan

U.M. | ESKORIATZA

Gizon batek, ustez, emaztearen etxearen atariko ateari su eman zion, Eskoriatzan. Lekuko arabera, Aranburuzabala kaleko 26. atarian izan zen gertakaria, domeka arratsaldean. Ondoko Txalparta tabernatik erretzera irten zen batek sua ikusi, eta taberna-

koen artean emendatu zuten. Betiere lekukoaren arabera, gizon horrek familiarengandik aldentzeko agindua dauka, ustez emaztea bera eta alaba mehatxatuta dituelako. Segurtasun Sailaren arabera, gizonak su eman eta alde egin zuen; "Ez dugu harrapatu. Identifikatuta dago, hori bai".



Suak erretako ataria, astelehen arratsaldean. | JONE INUNTZIAGA



Kutzazaina kiskalita, astearte goizean. | U.M.

Kutxabanki eraso egin diote asteon, Arrasaten

U.M. | ARRASATE

Arrasateko Aragoa eta Munar kale inguruko Kutxabankeko sukurtsalari eraso egin zioten astelehen gauean. Kutzazaina erre egin zuten, eta ate nagusira likido inflamablea bota eta su eman zioten. Kutzazaina kiskali egin zuten;

aldiz, ate nagusia zikindu besterik ez zen egin, pertsiara itxita zegoelako. Pintada bat ere azaldu zen paretan: *Kapitala erre*.

Suhiltzaileek emendatuta

Astelehen goizaldean izan zen gertakaria. Lekukoaren arabera,

02:30 inguruan jaso zuen abisua Kutxabankeko sukurtsal horretako arduradunak eta 03:00etarako iritsi zenean dagoeneko sua itzalita zegoen, suhiltzaileen eskutik. Ertzaintza ere bertan zegoen.

Segurtasun Sailak jakinarazitakoaren arabera, berriz, Kutxabanke 02:55ean pasa zuen abisua, esanez segurtasun kameran bitartez sua ikusi zutela. "Zorionez, goiko pisuraino ez da iritsi, eta ezta sukurtsalaren barruko alde-ere ere, segituan emendatu zutelako", adierazi dute.

Lau langile ditu Kutxabanken sukurtsal horrek. Eraso osteko egunean normal zabaldu zituen ateak, nahiz eta goizean garbiketa lanak egiten ibili ziren.

Aretxabaletan, antzerakoa

Apirilaren 25ean Aretxabaletan antzerako eraso bat egin zuten. Kasu hartan, Banco Sabadellen kutxazainari egin zioten eraso, orduan ere likido inflamablea erabilita. Eta pintada bat ere azaldu zen, *Kapitalari sua* esaten zuena. Eraso hartan, kaputxa edo txanoarekin estalita zihoazen bi lagun korrika alde egiten ikusi zituzten lekukoek.

Aitor Izagirre da Goiena Komunikazio Taldeko lehendakari gaia

Ekainaren 6an, eguena, Goiena Komunikazio Taldeak urteko batzarra egingo du Arrasaten. Eta mahai gainean izango dituen gaien artean, kooperatibako lehendakariaren (Estepan Plazaola) kargu uztea eta berria aukeratzea bozkatu du. Hain justu, Aitor Izagirre (Arrasate, 1983) da Goienak proposatuko duen hautagaia.



Aitor Izagirre. | GOIENA

ZABALIK

GOIO ARANA
http://goiena.net/iritzia/



Bederatzitik, bostetan

Pasa den astean inauguratu zen, modu ofizialean, MUko Aretxabaletako campus berria, bertan eskaintzen dira dagoeneko Ikus-entzunezko Komunikazio gradua eta zenbait graduondo. Aretxabaletakoarekin bi dira Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak dituen campusak, Eskoriatzakoa eta Aretxabaletakoa.

Ez dut ezagutzen antzeko kasurik: bederatzitik herrik daukate unibertsitate mailako ikasketak eskaintza. Gurean, Oñatin Enpresagintza dago; Arrasaten, ingeniariak; Eskoriatzan, hezkuntza; Aretxabaletan, komunikazioa eta, Bergaran, UNEDeko urrutiko ikasketak. Bada marka! Izan ere, ohikoena –eta errentagarria– izaten da unibertsitateak lekutzea hiriburuetan, erakurpen handia duten gune handietan, eta ez geurek moduko herri txikietan.

Unibertsitatea egon badago, baina igartzen da gero giro berezirik gure herrietan? Badago gurean gune unibertsitarioetan egon ohi den giro gazte eta alai hori? Ba, esango nuke ezetz. Jakina, ikasleen presentzia nabaritu dute dendariak, tabernariak eta etxe alokatzaileak, baina besteok larregirik ez. Hala ere, ez diogu horren erru osoa kanpoko ikasleei botako, ezta?

Batetik, orokorrean, parte hartzea denetan jaitsi da nabarmen.

Bestetik, gero eta ikasle gehiago dabil, *tupperware*-a aldean hartuta, etxera joan-etorrian autobusean edo autoan.

Azkenik, debagoiendarrok gauza askotan izango gara aitzindari, baina onartu beharrean gaude ez garela bereziki nabarmendu sormenaren, aisialdiaren eta gozamenaren sustapenean. Akaso, lortu dugu nazioartean txokotxa egitea, baina ez, behintzat, egin dugulako munduko eskualderik erakargarri eta interesgarriena.

USTEAK USTE

MONIKA BELASTEGI | mbelastegi@goiena.com

Aisialdia eta alkohola

Portugaleten egin berri den Ibilaldiak datu positibo ugari laga ditu. Jende ugari bertaratu zen, antolatzaileek aurretik jarritako helburu guztiak bete dituzte eta benetan poztekoa da. Hala ere, datu kezkarri bat ere laga zuen: Gurutze Gorriak 30 koma etiliko artatu zituen, hango Udalak jakinarazi duenez. Zoritxarrez arazo hori oso hedatuta dago gaur egun jailetan. Informazio eta kontzientziario kanpainen ez omen dute lortu aisialdi moduok aldatzea. Garbi dago oraindik lan handia daukagula egiteko eredu horiek aldatzeko, informazio kanpainen zein etxean. Guztiok egin beharreko lana da, halako estapan jaioro errepikatzea ez badugu nahi, behintzat.

GUTUNAK

Konpromiso etikoa

Ibai Larrañaga
(Elgeta Zero Zabor taldearen izenean)
Elgeta

Gipuzkoa Zero Zabor lurraldea izan dadin lanean ari garen talde bezala, kezka ikusten dugu hondakinen kudeaketaren inguruko hausnarketa jasaten ari den mutilazio saioa.

Batetik, hondakinen bilketa ondoren eman daitezkeen tratamenduetatik bereizteko ahalegina dago. Denok dakigu gaika biltzeko ahalegina tratamendu toxikoak baztertu eta material hori birzikla dadin egiten dela. Zentzugabekeria da gaika biltzearen alde egotea eta gero horrekin egingo denaz kezkarik ez izatea.

Bestetik, bilketak udalerririk bakoitzean bakarrik eragiten duela eman nahi da aditzera; hau da, nonbait, beste herri batean zenbat eta nolako zaborra jasoko duten erabakitzea bidaltzaileari dagokio, arazo sortzaileari, eta ez hartzaileari, arazoa jasaten duenari, ikuspegi kolonialista horren arabera. Bi mailatako herritarrak sortu nahi dituzte: sudur puntan jartzen zaiena egitea erabaki dezaketena, eta besteen erabakiak isil-isilik jasan behar dituztenak. Inork bere herrian nahi ez duena beste herrietako biztanleei inposatzeko eskubidea oinarritzen da? Gizarte bat egoismoan oinarrituta eraikitzeak etengabeko gatazka dakar. Herriak herrien aurka, herritarrak herritarraren aurka ez dago gizarte bat eraikitzerik.

Eztabaida desitxuratzeko ez da kasuala, kausala baizik. Errauste planta sektore ekonomiko-politiko indartsuen helburua da. Errauste plantak zaborra behar du, eta hori bermatzeko estrategian kokatu behar dira murrizketan, berrerabilpenean eta

birziklatzean oinarritutako kudeaketa ereduak martxan jartzeko saio guztien aurka ezagutzen ari garen kanpaina gogorak. Azpeitiko, Zarauzko, Beasaingo eta Zubietako biztanleen ongizatea ezin dugu gainerakoentz utzikeriaren mesedetan sakrifkatu.

Elgeta Zero Zabor taldea ezin da honen aurrean geldirik egon. Eztabaida kokatze aldera, gure zaborra jasotzen dutenekiko daukagun zorra ahal dugun neurrian kitatzeko, konpromiso etikoa aldarrikatzen dugu.

Horretarako, hiru puntu hauek jasoko dituen mozioa aurkeztu dugu udaletxean:

-Udalak gure herrian sortutako zaborra jasotzen duten herrietako biztanleei ahalik eta kalterik txikiena eragiteko konpromiso etikoa bere egiten du, eta hori bete ahal izateko ondorengo neurriak hartuko ditu:

-Murrizketa: ahalik eta hondakin gutxien sortzeko burutu ditzakeen ekintzak aztertu eta abian jarriko ditu.

-Birziklatzea: sortutako hondakinak nahasi gabe biltzeko emaitza hoberenak lortzen dituzten bilketa sistemak ezarriko ditu.

-Parte hartzea: herritarren parte hartzea bultzatuko du, herritarrak ondo informatuta egon daitezten, herritarrek aipatutako konpromisoak betetzea bermatzeko duten proposamenak egin ditzaten, eta konpromiso etiko horiek betetzen dituzten proposamenen artean erabaki dezaten.

Arcadiren hitzaldia

Gorka Martinez
(Harreman Denda Bidezko Merkataritzako koordinatzailea)
Arrasate

Pasa den astelehenean Amaia antzokira gerturatu ginenok *Ekonomia, kooperazioa eta kontzientzia* kontzeptuen inguruko solasaldi batez

gozatzeko aukera eduki genuen, Arcadiren eskutik. Seguruenik, bakoitzak bere barne-hausnarketak eta ondorioak aterako zituen, baina argi utzi ziguna da (aurretik ez bagenuen argi...) "ukaezina" den aldaketa bat behar dugula. Hau nola gauzatu, hor dagoela koska. Gaur egungo goi-botereek (bai politiko eta ekonomikoek) erakutsi digute ezer aldatzeko borondaterik ez dutela; beraz, "guk" gure esparruan egin beharreko bide bat izan beharko dela. Kontsumitzaile bezala dugun botereaz auto-konbentzitu behar dugu, benetako kontsumo arduratsu batean oinarrituz, poliki-poliki aldaketa-nahiak errealitate bihurtzeko. Arcadik ere aipatzen zuen bezala; zenbait alternatiba martxan hasiak dira, baina herritarren konpromisoa itxaroten ari dira epe luzearako errealitatea izan daitezten. Proiektu hauekin konprometi gaitezten!

Aprobetxatu nahi dut tarte hau hitzaldiaren diru-kontuak argitzeko: ez geneukanez fondorik jardunaldi hau antolatzeko, erabaki genuen bertaratuakoen borondatearekin aurre egitea gastuei.

Hona hemen gastuak: bidaiak eta ostatua, 810 euro; konferentzia: 315 euro. Beraz, guztira, 1.125 euro. Kutxetan jaso genuena, berriz, 1.136 euro izan ziren. Beraz, hurrengo ekitaldirako 11 euroko fondoa edukiko dugu. Eskerrik asko hau posible egiteagatik.

Bestalde, eskertu egin nahi diogu antolatzaile-talde osoari (Lanki, Arizmendiarrietaren Lagunak, Bagara, Elkarheitzan, Mundukide, Oppen3 eta Arrasateko Udala) egindako talde lana, eta gure partetik espero dugu gehiagotan elkartzeko horrelakoak egiteko.

Bertratzeko aukerarik ez zenutenok izan, laster saioaren grabazioa zintzilikatuko dugu www.harremandenda.org helbidean.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera, bidali: egilearen izena eta abizena, herria eta telefona. Gutuna helarazteko bideak: Oñati Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Oñati Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00



ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Diffusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

AGORROSIN

OSTALARITZA



Boni Laskurain 21
BERGARA
943 77 70 30



- Eguneko menua astelehenetik ostiralera 9 €.
- Asteburuko menua 15 €.
- Bazkariak eta afariak, ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan. (Jaiegunetan ere bai).
- Plater konbinatuak: ostiral gauetan > 2 Eskatu, 1 Ordaindu.
- Gosariak, ogitartekoak, pintxoak.
- Bazkari eta afariak terrazan emateko aukera.



Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.



Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 personarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab. / San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29 / 629 41 59 58

Eskaintza

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

10 menu hartuta, 1 DOAN.

Aitor Urtzelai

Jaurlaritzako Ekintzailetzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen zuzendaria

"Ekintzailetasuna beharrezkoa da, baina horrek bakarrik ez gaitu krisitik aterako"

- ▶ Oñatiarra enpresei laguntzeko lanean ari da
- ▶ Ekonomiaren garapena "egiteko nagusia" dela dio

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Unibertsitateko irakasle izana da eta Oñatiko Enpresgintzako MIK ikerketa guneko zuzendari ere bai. Urtariletik Jaurlaritzan dihardu, ondo ezagutzen duen alorrean: enpresekin elkarlanean, ekintzailetasuna eta berrikuntza bultzatzeko lanean. Oñatiarra da eta 38 urte ditu.

Zela Jaurlaritzako esperientzia?

Oso interesgarria, baina, era berean, hitzorduen aldetik-eta oso intentsua, oso betea. Eginkizun berri honek ematen dit aukera alor jakin batzuetan Euskadi mailako politikak edo estrategiak diseinatzeko eta hori oso erronka aberasgarria da. Norbaitek pentsa dezake administrazio publikoan erritmoak geldoagoak izan daitezkeela, baina oso eskakizun handiko lana da. Halere, *gogoko lanetan aldaparik ez* esan ohi da eta bat egiten dut esaldi horrekin.

Motibazio berria ere bada, ezta?

Bai. Lan berri batean denok bilatzen dugu motibazio berria, gus-tura egoteko. Kasu honetan, lan honen eginkizun nagusia da kontrolatzen dudana alorrean jardutea neure herriaren alde lanean. Gauza gutxi hori baino motibagarriagorik.

MIKeko zuzendari lanetan ibilia zara.

Badute antzik bi lanek?

Edukien aldetik bai. Nire ardura berria eta lehengoa alor berekoak dira, gai berekoak. Ekintzailetasuna, berrikuntza... azkeneko urteotan jorratu ditudan gaiak dira. Badut esperientzia horretan. Baina, gaiak berdinak edo antzerakoak izanik, ikuspuntua aldatzen da. Orain arte ikerkuntza gune bat gidatzen eta kudeatzen jardun dut. Orain, Eusko Jaurlaritzan, ikuspegi zabalagoarekin diseinatzeko ditut estrategiak enpresendako.

Ekintzailetzaren, berrikuntzaren eta informazio gizartearen alorra da zurea... Zer da?

Euskadin ekintzaileak baditugu. Gauza berriak probatu eta indarrean jartzeko lanean dihardute asko hemen. Eta gure lana da ekintzaileendako baldintza egokiak ezartzea, erraztasunak ematea finantzazio aldetik, zergen aldetik, administrazioaren buroraziaren aldetik... Bestetik, berrikuntzaren alorrean, batez ere, enpresekin dihardugu. Gaur egun enpresek mundu globalizatuan, lehiakorrean, dihardute. Eta nire ardura da zela lagundu enpresa horiei berriro daitezen munduan lehiakorrak izateko. Azkenik, informazioaren gizartearen alorretik, IKTak edo Informazio Komunikazio Teknologiak jendartearen eskura zela jarri asmatzen saiatzen gara: herritarrei, enpresei, administrazioari IKTak eskura jartzea izango litzateke helburua. Herritarren ongizatea hobetzeko, enpresen lehiakortasuna handitzeko eta administrazioaren efizientzia handitzeko.

Aspektu ekonomikoari dagokionez, ez da garairik onena... Zela eragiten dio krisiak zuen sailari?

Egia da, aurrekontuei-eta dago-kienz, murrizketek dihardugula etengabe, baina, zenbaki errealei erreparatu gero, gure sailean, konparatzen badugu 2012ko aurrekontuarekin, murrizketa %8koa da. Ez da horrenbestekoa. Gaine-

ra, konfirmatzen bada horrenbeste entzun dugun zorpetze gaitasunaren malgutzea, Europatik datorren agindua, Tapia sailburuak eta lehendakariak konfirmatu dute 20 milioi euro gehiago izango genituzkeela berrikuntzarako eta gure sailerako, justu, 5 milioi euro gehiago. Diru hori gehituko bagenio gure aurrekontu proposamenari eta iaz exekutatu zen aurrekontuarekin alderatuz gero, esan genezake gure sailean berrikuntzako inbertsioetarako iaz baino diru gehiago edukiko genukeela.

Pentsatzekoa da, era berean, egoera ekonomiko honen aurrean berebiziko garrantzia izango duela zuen departamentuak?

Bai. Ekonomiaren garapena eta lehiakortasuna da gure egiteko nagusia. Hori ardatz hartuta, beste sail batzuekin batera, enplegua sustatzeko plana ere egin dugu edo foru aldundiekin batera ekonomia indartzeko plana diseinatzeko ari gara.

Zeintzuk dira zuen lehentasun nagusiak?

Ekintzailetasunean pentsatzen dugunean, lehentasun nagusia da ekintzaileei eurei entzutea, arazoan berri jakitea eta, ondoren, dauzkagun tresnak edo programak haien beharretara egokitzea. Hori era koordinatuan egiten saiatzen

"Gogoko lanetan aldaparik ez" esan ohi da eta bat egiten dut esaldi horrekin"

"IKTak herritarren eskura jarri nahi ditugu, ongizatea hobetzeko"

"Enpresa txiki eta ertainen teknologia maila hobetu beharra dago"

"Ekintzaileari eta enpresei erraztasunak eman behar dizkiegu"



Aitor Urtzelai, Arrasaten, Goienaren egoitzaren ondoan. | ENEKO AZKARATE

gara, administrazio publiko ezberdinetan eta erakunde ezberdinetan laguntza mota asko daude -eta. Berrikuntzaren alorrean, lehenbizi, balioan jarri nahi dugu berrikuntza ez teknologikoa. MIKEN nengoenean horren alde egin nuen borroka. Jakina, berrikuntza teknologikoa beharrezkoa da, baina berrikuntza horri kudeaketa eredu berria ezartzen ez badiogu edo negozio eredu egokia aplikatzen ez badiogu, alferrik gabiltza. Eta, zentzu horretan, enpresei laguntzeko eredu berria garatu nahiko genuke. Eredu berri horretan, erabaki beharko dugu, lehenbizi, zeri eman garrantzia: pertsonen parte hartzeari, marketin estrategiei edota produktuen diseinuari. Bestetik, ze eratako enpresei lagundu behar diegun, txikiei, handiei, ertainei; sektore bateko edo bestekoei. Azkenik, enpresa bakoitzarendako tresna egokienak topatzen ahaleginduko gara.

IKTen eta informazioaren gizartearen alorrean?

Lehentasuna da zela ezarri IKTak enpresa txiki eta ertainetan batik bat. Agenda digitalaren adierazle guztietan ondo kokatuta gaude, baina ez horrenbeste enpresa txiki eta ertainek duten teknologia

mailaren inguruan. Ahultasun hori gainditu nahiko genuke.

Euskadiko ekintzaile mapa berriro aztertu nahi duzuela adierazi izan duzu. Zer da mapa hori?

Kaotikoa da. Izan ere, ekintzailetza bultzatzen ehunka agente eta erakunde daude. Eta hori ona da, berez, baina eraginkortasunaren aldetik, akaso, ez da horren ona. Ekintzaileari erraztasunak eman behar dizkiogu. Mapa hori foru aldundiekin batera koordinatu eta ordenatu nahiko genuke.

Ekintzailetasuna da krisitik ateratzeko gakoa?

Bai, baina ez da guztia. Beldurra ematen dit ez ote den moda bihurtuko ekintzailetasuna. Ematen du guztiok izan behar dugula ekintzaileak eta horrek aterako gaituela krisitik. Horren guztiaren aurrean, kontuz! Guztiok ez dugu balio ekimen berriak abiatzeko. Ondo dago ekintzailetasuna jarduera ekonomiko berriak bultzatzen dituelako eta, ondorioz, lana bultzatzen duelako. Baina horrek, berez, ez gaitu krisitik ateratzen.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



HERRIAK

BERGARA

Berbaldiak, meza eta beste San Pedro inauguratzeko

- Bi urteren ostean, ekainaren 29an, San Pedro eguna, inauguratuko dute
- Egun batzuk lehenago herritarrei egindako lanak erakusteko irekiko da

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bi urteren ostean eta obra sakoak egin eta gero, ekainaren 29an, zaindariaren egunean, inauguratuko dute San Pedro parroikia.

Hiru ekitaldi egingo dira tenplua inauguratzeko, hirurak parroikia eraberrituan, Jon Molina parrokoak azaldu duenez. Batetik, San Pedro egunaren bezperan, egubakoitza, bezperak errezatuko dituzte 20:00etan. Bestetik, San Pedro egunean inaugurazioko meza nagusia egingo da. Goizean izango da meza, 11:30 bueltan, nahiz eta oraindik ordua zehazteko dagoen. Munilla gotzaina gonbidatuta egongo da mezara eta aipatzekoa da San Joxepe abesbatzak –beste hainbat korotako errefortzuekin– abestutako meza izango dela. Hori guztia, arratsaldean Bergarako Orfeoia, Oñati Abesbatzak eta Ganbara Orkestrak egingo duten emanaldiarekin borobilduko da. 19:00etan izango da eta Mozarten *Requiem* abestuko dute. Hitzordu horren harira, Molina parrokoak zera zehaztu du: "Hitzordu hori ez da gure meritua, eurak etorri zirene gugga emanaldia San Pedron egin ahal zuten galdetzeraz, eta guretzat bikaina izan da, inaugurazioa gehiago janzteko. Bientzat mesede".

Parroikia inauguratu baino egun batzuk lehenago ireki nahi dutela ere azaldu du Molinak: "Oraindik egunak zehazteko daudden arren, pentsatzen ari gara eguazten eta egunean parroikia zabaltzea herritarrek etorri eta ikus dezaten". Horrekin batera, egun bakoitzerako hitzaldiak antolatzen ari dira: "Eguaztenean proiektua egin duten arkitektoekin eta egunean, artean adituren batekin".

Bi urteko lanak

Bi urte iraun dute San Pedro zaharberitzeko lanek. 2011ko maiatzean itxi zuten eta lan sakoak egin dituzte, "eraikina egoera oso arriskutsuan" zegoelako, Molinak gogora ekarri duenez. Horrekin batera, "harriztekoa bada ere, guztia aurreikusit moduan" joan dela gehitu du.



San Pedro parroikia eraberrituta, lau metroko gurutze berria goian duela. | MONIKA BELASTEGI

Zetabi Arkitektura Bulegoak egindako proiektuan oinarrituta, bulego horrek berak eta Jesus Laskurain aparejadoreak eroan dute obren zuzendaritza eta Amenabar enpresa eraikitzaileak egin ditu lanak. Hala definitu ditu Molinak egindako lanak: "Obra honekin eraikina salbatu egin da. Eta kanpotik, behintzat, bere edertasunean onenera ekarri".

Hiru fasetan egin dituzte lanok. Lehenengoan dorrea eta teilatu nagusia konpondu zituzten, eta hori izan da prozesu guztiko lanik garrantzitsuenak. Urtebete inguru behar izan zuten horretarako. Lehen fasea egin bitartean, bigarrenari ekin zioten: fatxadak eta presbiterioa eta sakristia teiltatuak eta gainerako teiltatu txikiak konpontzea.

Hirugarren fase batean eliza barruko lanak egitekoak baziren ere, "diru iturriak agortu egin dira eta aurreragorako geratu dira lan horiek. Soilik margotu egin dugu, eta orain horretan ari dira", esan du Molinak. Horren haritik, ekarpenak ondo jasoak izango direla gehitu du, "oraindik lan handia egiteko dagoelako eta egindako batzuk ordaintzeko".

Bi parrokiak era jasangarrian nola kudeatu aztertzen ari dira

Bi parrokiak, San Pedro eta Santa Marina, nola kudeatu aztertzen ari direla esan du Molinak. "Ez ditugu konpondu itxita mantentzeko, erabiltzeko baizik, baina ez dugu erabat zehaztu nola egin biak zabalik eta erabiltzen mantentzeko, modu jasangarrian. Izan ere, gastu handia dute. Argia pizte hutsa diru asko da". Hala, bi parrokiak erabiliko dira, baina nola pentsatzen ari dira,

kostua ahalik eta txikiena izan dadin. Pentsatzen ari dira, esaterako, hiletak elizkizunak txandaka egitea, nahiz eta oraindik ezer erabakitzeke dagoen. Uda emango dute horretarako, "hori guztia zehazteko".

Bien bitartean, irailera arte, San Pedron zapatuetan egongo da meza, 19:00etan, eta hiletak ere izango dira.

JON MOLINA
ABADEA

"Beste mende batzuetarako bermatu dugu San Pedro parroikia"

Pozik dago Molina egin diren lanekin eta eskertuta ere bai, kontatu digunez.



Pozik emaitzarekin?

Oso pozik. Lan oso ona da. Dena den, hain da ederra eraikina, berak eskaintzen du guztia. Meritua eraikinak berak dauka.

Bizia luzatu diozue.

Bai. Helburua hori izan da. Egoera oso arriskutsuan zegoen eta orain egin dena da beste mende batzuetarako bermatu. Eraikina salbatu egin dugu, orain ez du arriskurik.

Penatxobatekin geratu zarete, baina.

Bai, barrutik ezin behar beste txukundu eta dotoretu. Egia esan, ez da erraza. San Pedro artelanez josita dago, horrek diru asko eskatzen du eta gauden egoeran ez da posible izan. Dena den, orain ondo babes-tuta daude gure ondorengoek egiteko.

Eskerrak eman nahi dituzu.

Bai. Oso arkitekto eta aparejadore talde ona izan dugu. Euren jakintza barik ez zen obra posible izango. Plazera izan da eurekin lan egitea. Eta herritarrei ere eskerrak eman behar dizkiet, izan duten pazientziagatik eta egin dituzten ekarpenengatik.

Bi milioitik gorako aurrekontua

Lanon aurrekontua 2.100.000 euro ingurukoa izan da eta horri aurre egiteko hainbat diru iturri izan dituzte. Komenio kalean zuten eraikina lehiaketara atera, eta 800.000 eurotan Amenabarri esleitu ondoren, enpresa horrek trukean 800.000 euroko lanak egin zituen parrokiaren zein Sierbetako komentua konpontzen. Azken horri dagokionez, erabat berri dute: komentu izatetik, parroikia-etxe batek bete behar dituen zerbitzuak emateko egokituta da.

Diru iturriekin jarraituz, Aldunditik 380.000 euroko laguntza jaso zuten 2011n eta 56.000koa 2012an. Donostiako gotzaindegitik 1.100.000 euro jaso dituzte eta herritarren ekarpena 200.000 eurokoa izan da. Horrez gain, San Pedro parrokiak 100.000 euroko aurrezkia ere bazuen.

Udala "hausnartzen" ari da hondakinen kudeaketaz

Galdetegia 2.551 pertsonak erantzun dute; horietatik oso gutxi dira gazteak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Otsailean galdetegiak bidali zituen Udalak etxez etxe, hondakinen gaiaren gainean arrasatearrok zenbat dakigun, zerk kezkatzen gaituen eta arazoaren aurrean lehenetsuna zeri ematen diogun jakiteko. Asteon egin dute galdetegi horren emaitzen berri emateko agerraldia Josu Pereda Ingurumen zinegotziak eta Inazio Azkarragaurizar alkateak. Galdetegia 2.551 pertsonak bete dute; arrasatearren %14k, gutxi gorabehera.

Galdetegia erantzun duten 2.551 horietatik 40lek, galderak erantzun barik, protesta egiteko erabili dute galdetegia; gehienek bosgarren edukiontzia alde edo atez ateko sistemaren kontra daudela adierazi dute. Hala, inposaketarena izan da herritarren kexa nagusietako bat: "Horrek galdera bat sortu digu: erantzun dutenen %63,5 hondakinen aprobetxamenduaren alde egonik, zelan da posible egun Arrasaten sortzen ditugun hondakinen %30 bakarrik biltzea gaika? Jendeak, orokorrean, uste du kutsatzea eskubide bat dela eta ez da kontziente jarrera horrek zelako kostua eragiten duen ingurumenean", esan zuen alkateak.

Atez atekoak, babes txikia

Galdetegia erantzun dutenek nahiago dute bosgarren edukiontzia atez ateko sistema baino: %63k bosgarren edukiontzia sistemaren hobetsi dute eta %28k, berriz, atez atekoa. Alkateak Aretxabaletako eta Antzuolako adibideak kontrajarri zituen. Antzuolan birziklatze-tasa handiagoa lortzearen arrazoa herritarrek birziklatzeko duen derrigortasunean dagoela esanez. Beste datu esanguratsu bat da belaunaldi



Josu Pereda eta Inazio Azkarragaurizar, prentsaurrekoan. | JOKIN BEREZIARTUA

"Galdetegia alderdikoia da"

Arrasate Garbi plataformak galdetegia gogor salatu zuen bere garaian: "Udalak herritarrok tontotzat hartu gaitu edo gure kolkotik barre egin nahi du halako inkesta bidalita? Nola interpretatzen da?". Inkestak "alderdikoia" direla uste du plataformak: "Sorreratik alderdikoia iruditzen zaigu, atez atekoaren alde erantzuna izan dadin prestatuta baitago eta galderetan ere gezurrak baitaude".

Alderdi sozialistak ere salatu zuen galdetegia; "partziala, fidagarritasunik gabekoa eta alderdikoia" iruditzi zitzaizkien: "Udalak, bere galdera maltzurerekin, herritarren atentzioa desbideratu gura du".

gazteenaren parte hartzea oso txikia izan dela (%16,76), belaunaldi zaharrenaren azpitik (%17,26). 30 urtetik 50 urtera artekoen eskutik jaso dira erantzunen %30,85 eta 50 urtetik 70 artekoak inplikatu dira gehien galdetegiarekin: %35,13: "Zergatik gazteek ez dute parte hartu?", galdegin zuen Josu Peredak.

Ohiturak aldatzeko "beharra"

Bestalde, Peredak ohitura aldatzeko beharra aldarrikatu zuen: "Erosi, erabili eta bota ildoan amaitzeko pausoak eman behar ditugu, ohitura txarrak alde batera utzi eta onak indartuz. Hondakin guztiak gaika bilduz pauso oso inportantea emango genuke bizi-modu osasuntsu baten bidean. Are gehiago, uste dugu ez dagoela beste ekintzarik jendeak hain esfortzu txikia egin eta ingurumenean halako efektu positiboa eragin dezakeenik".

Aurrerantzean zer egin erabakitzeko "hausnarketa prozesuan" dago Udala, "zero zabor filosofiari irmo" eutsita.

Garagardoa eta jaki alemaniarrak gaur eta bihar, Herriko Plazan

J.B. | ARRASATE

Eguaztenean ireki zuten Arrasate Rugby Taldeak antolatzen duen Garagardo Azoka. Aurtengoa 15. aldian izango da, eta, iaz egin zuten moduan, Mondragon Unibertsitatearekin batera antolatutako herri kirolekin ireki zuten Herriko Plazako karpia. Atzo greba deialdiagatik itxita egon ostean, gaur eta bihar 18:30etik gauerdira arte egongo da zabalik.

Bihar jokatu da, era berean, 15. Nazioarteko Zazpi-ko Errugbi Txapelketa.

2.190 litro garagardo

Azokaren arrakastaz konturatzeke, aurtengo datuak ikustea besterik ez dago: 2.190 litro garagardo eskatu dituzte, bost marka ezberdinetakoak. Ohikoena garagardoa pitxarretik edatea bada ere, litro laurde-



Garagardo Azoka, iaz. | GOIENA

neko 750 botila eskatu dituzte. Eta noski, jaki alemaniarrik ez da faltako: 2.700 opil, 375 oilasko, 720 txerri ukondo eta 140 saltxitxa lata eskatu dituzte. Aurten, nobedade moduan, patata-minen errazioak salduko dituzte. Edari eta jaki horiek prestatu eta zerbitzatzeko, Arrasate Rugby Taldeko kideak ibiliko dira jo eta ke lanean.

Bide zaharretan ibilaldia etzi, Besaide elkarteak antolatuta

J.B. | ARRASATE

Besaide mendizale elkarteak antolatuta, Arrasateko bide zaharretan mendi ibilaldia egingo dute domekan. 09:00etan irtengo dira San Isidro elizatik eta ibilbidea honakoa izango da: Arrasate, Etxezarreta, San Prudentzio gaina, Zazpi Bide, Bedoña, Kurtzetxiki eta Arrasate. Ez dago izena eman beharrik; antolatzaileek "ahalik eta jende gehien" agertzea gura dute.

Kurtzetxikin geldialdi berezia egingo dute, Udalak iaz egindako lanei esker elurzuloa nola geratu den ikusteko. Inguuru hori balioan jartzeko kon-

promisoa hartu zuen Udalak, besteak beste, herritik oso gertu dagoelako. Besaidekoen arabera, "leku zoragarria" da eta "oso bista onak" ditu.

Beteranoen martxa bihar

Bestalde, bihar egingo dute veteranoen 12. irteera, Araban. Lau ordu eta erdiko ibilbidea aurrekusi dute eta bost mendi igoko dituzte. 07:00etan irtengo dira Garibaitik.

Horrez gain, Pirinioetara -Val d' Echo- egingo duten hurrengo irteeran izena eman ahaliko da astelehenean, Besaideko egoitzan (19:30-20:30).

Zaldibarko futbito txapelketako finala jokatu dute Dribling eta Ostantz taldeek bihar, 17:30ean

Bihar amaituko da aurtengo Zaldibarko futbito txapelketa. Hirugarren eta laugarren postua jokatu dute Lasagabaster eta Iriztuk (16:30); finala, berriz, Dribling eta Ostantz taldeek jokatuko dute, 17:30ean. Aurtengo jokalaririk nabarmenak hauek izan dira, antolakuntzak aurreratu duenez: Aitor Pildain (Iriztu), Inazio Rodriguez (Dribling), Ekain Garin (Sonografos), Beñat Corcuera (Haizea's Weah), Alberto Matalobos (Dribling) eta Ruben Caballero (Ostantz). Garaikurra eramango dute etxera.

Herrixa Dantzan ekimenaren Arrasateko azken saioa gaur Garaia taberna-jatetxean, 20:00etan

Portalo elkarrekin antolatutako Herrixa Dantzan ekimenak ikasturteko azken geldialdia egingo du gaur Arrasaten, Garaia taberna-jatetxean. Gaurko saioaren ostean, urrian itzuliko dira. Sarrera doakoa da eta parte hartzea librea. Ez dakienarendako: Patxi Montero adituak gidatutako dantzaldi irekia da Herrixa Dantzan, dantza tradizional ludikoekin osatutakoa: sokan, korroan, taldeka, bikoteka... denetarik egiten dute. Helburua da adin askotariko herritar soilek dantzan elkarrekin gozatzeko.



Umezaintzakoak primeran Zubillagako suhiltzaileekin

Arizmendi Ikastolako umezaintzako haurrek bisita egin zieten maiatzaren 22an Zubillagako suhiltzaileei. Eurekin egon ostean, Oñatiko igerilekua ere bisitatu zuten. "Egun zoragarria" izan zen: "Musu handi bat eta eskerrak eman nahi dizkiegu gure bihotzetako sua piztu eta kanpoko suteak itzaltzen dituztenei!", adierazi digute Arizmendiko ordezkariak.



Elkartasun Eguna jende asko erakarri zuen iaz Seber Altube plazara. | GOIENA

Herri txiroen aldeko Elkartasun Eguna bihar

Gobernuz Kanpoko Erakundeek egun osorako egitaraua antolatu dute, Seber Altube plazan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasateko GKEek antolatuta, 15. Elkartasun Eguna ospatuko da bihar Seber Altuben. Dagoeneko herrian errotu den ekimena da; ez dago ulertzerik ekaineko lehen zapatua herri txiroen aldeko problematika azaleratu gura duen Elkartasun Eguna barik.

Bidezko merkataritzan oinarritutako produktuak, umeendako puzgarriak, Herrixa Dantzan, Eroski Bidaie eta Ibai Arte elkarrearen zozketak... Egitaraua zabala da oso; ea eguraldiak ere elkartasuna adierazten duen...

Elkartasun-zozketak

Eroski Bidaie eta Ibai Arte elkarrearen emandako sariaren zozketa egingo dute. Txartelak egun osoan zehar egongo dira salgai; aterako den dirua India aldera joango da, Mumbai gertu dagoen Ankur herrixkako umezurtegiara. Bertan, Santa Anako Karitateko Ahizpek 200 neskalarekin lanean dihardute, euren oinarritzko beharrak eskainita eta oinarritzko hezkuntza emanda. Ibai Arte eta Eroski Bidaie aurtan ere erakutsitako konpromisoa eskertu gura izan dute antolatzaileek.

EGITARAUA

EKAINAK 1, ZAPATUA

10:00 Irekiera ekitaldia.

11:00 Umeendako puzgarriak.

12:00 Arrasate Musikaleko sokazko boskotearen saioa.

12:30 Sambamaña taldearen eskutik batukada.

16:00 Umeendako puzgarriak.

17:30 Lili eta Lalo ipuin kontalarien eskutik *Non dago Lolo?* ikuskizuna.

19:30 Herrixa Dantzan.

20:30 Eroski Bidaie eskainitako sariaren zozketa.

Jarduerak

Bidezko merkataritza, Ibai-Arteren tonbola, GKEen erakusketa, elkartasunezko pintxo ekologikoak...

Iñaki Petxarroman | Kazetaria

"Arrasaten esperientzia baduzue hondakinen kudeaketa txar batek sor ditzakeen ondorioak jakiteko"

J.B. | ARRASATE

Arrasate Zero Zabor taldearen eskutik, Iñaki Petxarroman kazetari eta idazleak *Su haietatik, ke hauek* liburua aurkeztuko du ekainaren 5ean Kulturatego areto nagusian (19:30). Aurkezpenaren aurretik agerrialdia egingo dute, 19:00etan. **Aurkezpen soila izango da?** Liburuaren edukietatik abiatuko du hitzaldia, baina orain arte pasatu zait, dagoen jakin-minarekin, gaiak abiadura handia hartu duela eta hondakinekin zerikusia duten beste gai batzuk ere tratatzen direla. Liburuak, bi hitzetan esateko, azken hamar urteotan errauste plantak egitea erabaki zenez gaur egunera arte hondakinek kudeatzeko moduz egon den polemika lantzen du. Eztabaida pozgarria da, denoi dagokigu arazoari irteera ematea. **Arrasateko egoera eta polemika zein den ezagutzen duzu?** Arrasaten baduzue esperientzia nahikoa hondakinen kudeaketa txar batek zein ondorio ekar ditzakeen jakiteko. Akei izeneko errauste planta izan zenuten han eta esango nuke Arrasateko inork ez lukeela onartuko



Iñaki Petxarroman. | GOIENA

halakorik errepikatzea, nahiz eta teknologia hoberekin izan. Horrek zein ondoriotara garamatza? Bada, hondakinen kudeaketa eredu aldatu behar dugula; hor denoi dagokigu ardurak hartzea.

Sortu den polemikaren gainean, uste dut interes asko daudela eztabaida desbideratzeko. Atez atekoa deabrutu gura izan dute; hor dago Oñatiko adibidea. Atez atekoa bilketa sistema bat da, oso emaitza onak ematen dituena. Egia da, era berean, oso sistema zorrotza dela, baina, finean, denok arduratu behar dugu gure zaborra kudeatzeaz; hori da atez atekoak planteatzen duena.



ARRASATE HERRI ESKOLA

Plentzian ederto ibili ziren Herri Eskolakoak

Joan den domekan Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkartekoek irteera egin zuten: "Aspaldiko egun bakar ona aprobetxatuz eta jendearen gogo izugarriekin, Plentzia aldera joan gara mendiaz eta itsasoaz gozatzera. Plentziatik gora bertako itsasargia eta bertan dauden tunelak alde batetik bestera zeharkatu eta gero inguruan dagoen Ermua mendia -290 metro-igo dugu". 86 lagun elkartu ziren mendi irteeran.

Toki Argi erretiratu etxeko taberna ustiatzeko lehiaketa abiarazi dute

J.B. | ARRASATE

Udalak asteon onartu du, Tokiko Gobernu batzarrean, Toki Argi erretiratu etxeko taberna ustiatzeko lehiaketa publikoa abiatzea. Interesatuak hamar eguneko epea izango dute eskaera BAZen egiteko. Taberna-aretoaren zerbitzua ustiatzeaz gain, zerbitzurako diren instalazioak eta gauzak garbitu

behar dira; atezaintza zein mahaie-tako zerbitzua emango da, eta hango komunak garbituko dira, garbiketarako materialak, komuneko papera, eta abar osatuz.

Kontzesioaren epea urtebetekoa izango da behin betiko esleipenetik hasita, eta isilbidez beste batez luzatu ahal izango da, gehienez ere lau urte izan arte,

betiere aldeetako batek salatu ezean hori hiru hilabete lehena go.

Ordutegia eta prezioak

Gutxieneko ordutegia honakoa izango da: asteleheneetik egubakoitzera 10:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 21:30era. Zapata, domeka eta jaiegunetan, berriz, honakoa izango da gutxieneko ordutegia: 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara. Prezioak Udalak zehaztuko ditu. Informazio gehiagorako, BAZera jo.

TARIFA FINKOAK INFORMATIKAN

- Word.
- Mekanografia.
- Access.
- Sistema Eragileak.
- Power point.
- Excel.
- Internet.

IRAKASLEEN FORMAZIOA

- Irakasleen formatzailea. (Lanbide prestakuntzara edo etengabeko prestakuntzara zuzendu nahi duten profesionalentzako ikastaroa.)

INGELESA

- Azterketetara prestatzeko ikastaro trinkoak.
 - Pet
 - First
 - Advanced
- Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten Irakasleentzako Didaktika eta Metodologia.



ESKOLA PARTIKULARRAK

- LMH / DBH
- Batxilergoa
- Enpresa ikasketak
- Ingeniaritza

Infomazio gehiago: 943793533
bastida@bastida.es
www.bastida.es





Realaren lagunartea bultzatu gura dabilen herritar taldea, banderekin. | MIREIA BIKUÑA

Iñigo Martinez oinarri hartutako lagunartea

Oñatin Realaren lagunartea sortzeko deialdi irekia egin zuten martitzenean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatin Realaren lagunartea sortzeko deialdia egin zuten martitzenean. Talde txuri-urdineko bazkide diren lagun talde batek deialdi irekia egin zuen herritarren aurrean. "Badira urte batzuk Realeko lagunarterik ez dagoela herrian, eta hamabost egunero, Anoetara, 3-4 autobuskada joaten direnez, une egokia zela pentsatu genuen", esan zuten lagunartearen bultzatzaileek.

Anoetan, edo telebista edo Internet bidez Reala ikusten duten bazkide, akzionista eta zaleak elkartu gura dituzte. "Lagunarte herrikoia egin gura dugu. Reala maite dutenak erakarri gura ditugu", esan zuten.

Oraindik ez daukate izenik eta lelorik ere, baina badakite nor izango den Realeko jokalaria

ESANAK

"Lagunarte herrikoia egin gura dugu; herriko Realzaleak batuko dituen"

IÑIGO MADINA | BULTZATZAILEA

erreferentea: Iñigo Martinez atzalaria. Eta zergatik ondarrutarra? "Kasualitate hutsa izan da. Ondarroako lagun batzuek esan zuten ez zuela lagunarterik, eta proposamena egin genion jokalaritari", esan zuten. Lagunartea-

ren aurkezpena irailean egingo dute, Iñigo Martinez eta Realeko beste jokalaria batzuekin.

Partiduak ikusteko irteerak

Deialdia eginda, bazkideak egiteko kanpaina zabaldu dute. Izarraitz tabernan egongo da egoitza, eta han jaso daitezke izena-emateko orriak. Uztail hasiera arte hartuko dituzte. Hori bai, Realak berak lagunartea ontzat emateko, kideen erdiak Realaren bazkide edo akzionista izan beharko dute.

Aurrera begirako hainbat asmo ere azaldu zituzten: liga partiduak ikustera joateko irteerak, kamisetak, zozketak... Eta akaso, Europako partiduren bat ikusteko irteera. Dena den, "ekarpenak eta proposamenak onartzen" dituztela esan zuten.

Deitutako herritarren %91k jaso dute hondakinak gaika biltzeko materiala

Joan den martitzenera arte jasotako datuak eman ditu aditzera Udalak oraingo astean

O.E. | OÑATI

Hondakinak gaika biltzeko materiala banatzen hasi zirenetik hona, deitutako %91k jaso dutela jakinarazi du Udalak. Joan den martitzenera arte (maiatzak 28), 2.876 zergadun herritar zeuden deituta materiala jasotzera. Udalak emandako datuen arabera, horietatik 2.620k jaso zuten; "%91ko asistentzia" egon dela eman du aditzera.

Maiatzaren 22n hasi ziren hondakinak gaika biltzeko materiala banatzen. Kale bakoitzari

egun zehatza dagokio materiala biltzeko. Gaur, Errekalde, Mendiko Kale eta Moia kalekoek jasoko dute, eta astelehenan: Aita Madina, Kale Zaharra, Kanpantxo, Kurtzekua, Lizaur eta Otadui Zuhaiztia kalekoek. Kiroldegian jaso beharko dute eta nortasun agiria eramatea beharrezkoa da.

Martitzenean, ekainak 4, Zubillagan egingo dute banaketa. Gainerako auzoetako herritarrek, auzo alkateen bidez jasoko dute.



Kuboak banatzen kiroldegian. | KONTZEUJUPETIK

Natra Oñatiri harrera egingo dio Udalak gaur, egubakoitza, udaletxean, 19:30ean

Egindako denboraldi onagatik harrera egingo dio Udalak Natra Oñati saskibaloi taldeari. Gaur, egubakoitza, egingo dio harrera, 19:30ean. Udal agintariak plaka bat emango diote taldeko ordezkariari, eta oroigarri bana kide bakoitzari. Jokalariak, entrenatzailea eta zuzendaritzako kideak, denak egongo dira harreran. Taldearen lana jasotzen duen bideo proiektzioa ere egongo da.

Ekainaren 5ean eskainiko dute herriz Guriako azken egunen dokumentala; bi aldiz, gainera

Guria tabernaren azken egunak jasotzen dituen dokumentalak izan duen harrera ikusita eta herritarrek eskatuta, beste bi aldiz eskainiko dute, lehen emanaldian ikusi ahal izan ez zutenek ere ikus dezaten. Ekainaren 5ean eskainiko dute Aitor Arregiren *Azken egunak Gurian*, eta bi aldiz emango dute: 18:45ean eta 20:00etan. Emanaldi biak zinema aretoan izango dira.

Ramon Agirre eta Niko Lizeaga aktoreak datoz gaur Santa Anara, 'Bejondaigula!' lanarekin

Bejondaigula! antzezlanaren ekarriko du gaur gauean Ttanttaka antzerki taldeak Santa Ana aretora, 22:30ean. Ramon Agirre eta Niko Lizeaga dira lan horretako aktoreak. Jantzi-gelan hizketan ari diren bi aktore dira Agirre eta Lizeaga. Agertoki-irigotakoan zoriotsu dira, eguneroko bizimodu arruntarekin kontrastea bizi eginda.

Bihar zabalduko dute Torre Zumeltzegi hotela, 12 logela eta 45 lagunendako jatetxea duen zerbitzua

Bihar, zapatua, zabalduko dute Torre Zumeltzegi hotela. Hiru izarreko kategoria duen hotela da, eta xarmadun hotel moduan egokitu du bertako Gorostidi Anduaga sendiak. 12 logela ditu hotelak, eta jatetxea ere bai, 45 lagunendako. Horrez gain, erabilera askotariko gelak ere baditu. Bihar zabaldu arren, inaugurazio ekitaldia aurrerago egingo dute.

Oñatzekoek auzo eta ikastetxeetan egingo dituzten dantzekin hasiko dira aurten ere Corpus jaiak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Ohitura zaharrari jarraituz, Corpus dantzak egingo dituzte herriko auzoetan Oñatz dantza taldeko kideek, txistulariek lagunduta gaur, egubakoitza. Eta beste urtebetez, ekitaldi horrekin hasiko dira Corpus jaiak. Goizean auzoetan egingo dituzte dantzak; arratsaldean, herriko ikastetxeetan eta Ugarkalde, San Martin eta Kasablanka auzoetan.

San Migeli dantza

Iluntzean, Jose de Azpiazu musika eskolako haize taldearen kontzertua egongo da Portu plaza-

txoan, eta gauean, *Bejondaigula!* antzezlanaren Santa Anan.

Bihar, Corpus bezpera eguna, azken urteetako beste bi ohitura errepikatuko dira: goizean eta arratsaldean egingo den foso olinpikoko probintzia mailako tiro txapelketa Txopekua tirolekuan, batetik, eta iluntzeko herri lasterketa. Aurten XI.a izango da, eta Euskal Herrian jaiotako korrikalariak hartuko dute parte; tartean, Yeray Varela eta Sergio Gartzia oñatiarrek.

Domekan, 11:00etako meza nagusiaren ostean aterako da herriko kaleetara Corpusetako



Prozesioa plazan. | GOIENA

prozesioa. Eguraldi txarra egiten badu, parroikia barruan egingo diote azken dantza San Migeli. Arratsaldean, ohienez, Corpusetako dantzak egingo dituzte Oñatzekoek Foruen plazan.

MIRIAN BITERI | ARETXABALETAKO

Eskola Agenda 21 programaren bueltan, herriko ingurumenaren egoera aztertu dute aurten Kurtzebarriko ikasleek, eta astelehenan ondorioak aurkeztu zituzten udaletxean. Ana Bolinaga alkatearen agurraren ondotik, ikasurtean biodibertsitatea jorratu dutela azaldu zuten neska-mutikoei. Batzuek landare eta zuhaitzekin lotutako askotariko ekintzak egin dituzte; beste batzuek herrian azpiegiturak eraikitzeak animalien duen eragina aztertu dute. Horrez gain, Deba ibaia eta basoen egoera eta historian zehar lurzorua izandako galerak ere aztertu dituzte ikasleek.

Proposamen zehatzak ere egin zituzten politikariei, hala nola landare inbaditzaileak zuztarretatik ateratzea, edozein motatako lanak egiterakoan animalien pentsatzea eta animalien babeslekuak jartzea, kiroldegi inguruko belar txarrak kentzea eta bertako zuhaitzak landatzea eta erreka garbitzea.

Irailean erantzuna

Udal zinegotziak adi entzun zituzten neska-mutikoen azalpenak, eta aurkezpena amaitzean, Ingu-



Osoko bilkura amaitzean, argazkia atera zuten ikasleek eta udal ordezkariak. | MIRIAN BITERI

Ingurumenaren aldeko ekimenak eskatu dituzte

Kurtzebarriko ikasleek osoko bilkuran egin zituzten eskaerak zinegotzietan

rumen zinegotzi Lore Martinezek hartu zuen hitza. Batzordean proposamen guztiak aztertuko dituztela eta irailean adostutakoaren berri emango dietela esan

bazuen ere, dagoeneko hainbat ekintza egiteko asmoa daukatela jakinarazi zien Kurtzebarrikoiei. Batetik, iragarri zuen irailean Deba ibaia bailara mailan garbi-

tzeo asmoa dagoela; bestetik, landare inbaditzaileari dagokionez, azaldu zuen Urkulun horrelako bi eta herrian *Panpako luma* bezala ezagutzen dena daudela,

eta Udala Diputazioarekin harremanetan jarri dela horiek kentzeko.

Lurzoria Udalarendako

Umeek aretoa utzi zutenean, ohiko osoko bilkurari hasiera eman zioten. Zaborren ordenantza fiskalean aldaketa egitekoak ziren, baina alkateak hala eskatuta, mahai gainean utzi zuten gai hori. Bestalde, Aretxabaleko eta Arrasateko udalerrien arteko mugaketarako batzordeen osaketa ere adostu zuten bilkura berean. Bost batzordekide deitu zituzten: Hirigintza, obra eta zerbitzu publikoak saileko buru Jose Mari Segovia, Xabier Mendizabal idazkaria, Edorta Mendieta eta Jose Angel Antxia zinegotziak eta Ana Bolinaga alkatea. Deba Bailarako Industrialdeak Udalarari 1.928 metro karratuko lurzoria zatia lagatzeko eskaeraz ere egin zuten berba, eta baita aho batez onartu ere. Bestalde, Onkologikoa Osakidetzan txertatzeko EH Bilduk aurkeztutako mozioa onartu zuten; eta baita Bedarretako San Migel kaleko 3. zenbakiko baxuan Udalak duen etxebizitzaren desfektazioa egitea ere, hori saldu ahal izateko.



Martitzenean egin zuten inaugurazioa. | JAGOBA DOMINGO

Lausitako auzo-konpost gunean 55 familia dabilta parte hartzen

JAGOBA DOMINGO | ARETXABALETAKO

Auzo-konposta egiteko gune berria estreinatu zuten martitzenean Txarapea auzoan, Lausita kalean. Denera, 32 konpost-gailu jarri dituzte gune berrian, eta familia-kideen arabera banatu dituzte.

Oraingoan, 55 familiak hartuko dute parte proiektu aitzindari horretan, eta martitzenean gehienak jakin-minez joan ziren inauguraziora. Lehenik eta

behin, Jon Albizu adituak funtzionamenduari buruzko azalpenak eman zituzten labor-labor, eta, jarraian, herritarren artean ontziak eta giltzak banatu zituzten.

Lehen

Ingurumen zinegotzi Lore Martinezek azaldu zuen Txarapeakoa lehen auzo-konpost gunea bada ere, emaitzen arabera gehiago jar daitezkeela.

Trastada antzerki taldearen emanaldia dago gaur Arkupen

Gaur, egubakoitza, Trastada antzerki taldearen *Un loco de desatar (o las paradojas del cosmico)* izeneko antzezlanak ikusteko aukera dago Arkupeko Zaratza aretoan. Emanaldia 22:00etan hasiko da eta sarrerak lau eurotan salduko dituzte. 12 urtetik gorakoentzako da Rosa Martinez-Alcocerren lana.

Harrerako umei buruzko antzerkia izango da etzi

Umeek ere antzerkia izango dute asteburuan. Etzi, domeka, Zuondoan proiektuak *Maddi eta Antton* antzezlanak eskainiko du Arkupeko Zaratza aretoan, 17:00etan. Harrerako umeen egoera hurbilgotik ezagutzeko aukera ematen dute horretan, umeen jolas, elkarrizketa eta zalantzen bidez. Sarrerak hiru euro balioko du.

Gertu dituzte emakumeen artean kirola sustatzeko ekintzak

Ekainaren 7an herrian hasi eta amaituko da Emakumeen Biraren etapa bat; martitzenean, proba horren eta beste ekimen batzuen aurkezpena egin zuten

J.B./M.B. | ARETXABALETAKO

Emakumeen eskubideen aldeko egitarau zabala antolatu dute datozen egunotarako, *Martxoak zortzi... egunero izan dadila* lelopean. Eguenean, ekainak 6, hasiko dira ekimenak, emakumeen eta kirolaren gaineko mahai-inguruarekin. Leire Olabarria txirrindulari olinpiarra, Ainhoa Azurmendi aholkularia, Oñatiko Kirol zinegotzi Ainhoa Martin eta Jaurlaritzako teknikari Dorleta Ugaldek hartuko dute parte, 19:00etan, Arkupeko Zaratza aretoan hasiko den berbalan.

Ekainaren 7an, ostera, Euskal Herriko Emakumeen Bira lasterketaren etapa bat hasi eta bukatuko da herrian. Emakumeen artean kirola sustatzeko eta eragilearen arteko inplikazioa eta berdintasunaren aldeko urratsak bultzatzeko asmoz, Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak urtero antolatzen du proba hori, eta munduko emakume txirrindulari onenek hartzen dute parte. Lasterketa 16:00etan hasiko da, Herriko Plazan, eta, Debagoiena zeharkatu ostean, 19:00etan amaituko da toki berean. Plaza giroten joateko, gainera, jaialdia hasiko da lasterketa heldu baino ordu erdi lehenago.

Saioak eta argazki lehiaketa

Ekimenak ez dira hor amaituko. Aste osoan zehar, emakumeendako debaldeko kirol eskaintza



Martitzen arratsaldean egin zuten aurkezpena | JON BEREZIBAR

izango da Ibarra kiroldegian: hain justu, korrika taldeak osatzearekin batera, spinning saioak eskainiko dira. Interesatuak udaletxean edo kiroldegian eman

behar dute izena. Horrez gain, argazki lehiaketa antolatu dute. Oinarriak www.aretxabaleta.com webgunean edo Arkupen eskura daitezke.

Goienaren RENT
Ibilgailuen alokairua

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIKUA ONATIN

WWW.GOIENARENRENT.COM

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

Etxe hutsen errekarua baliogabetu nahi du EAJk

Urte amaieran onartutako ordenantzak eztabaida eragin zuen osoko bilkuran

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Etxebizitza hutsen jabeei, Ondasun Higiezin Zergan, %150eko errekarua egitea onartu zuen Bergarako Udal Gobernuak 2012ko urte amaieran. Gobernuaren hitzetan, alokairua sustatzea zen ordenantza fiskal horren helburua. EAJk ordenantzaren kontra bozkatu zuen bere garaian eta astelehenean egindako osoko bilkuran errekarua bertan behera uzteko eskatu zion berriz Gobernuari mozio baten bitartez.

Jeltzaleen esanetan, ordenantzak "dirua batzeko helburua" dauka eta Gobernuak alegazioak onartzeko orduan izandako jarre-ak "segurtasun falta juridikoa eta arbitrariotasuna" erakusten du herritar guztiekin ez duelako "berdintasunez jokatu".

Salbuespen kasu berriak

2012ko abenduan onartutako errekaruak bazituen salbuespen batzuk; besteak beste, urtarilaren 1ean Jaurlaritzaren Bizigune moduko programaren batean izena emanda egotea, alokairuko kontratua izatea edo bateren bat etxebizitza horretan erroldatua egotea. Udalak, herritarrengandik jasotako alegazioak aztertu ostean, orain beste kasu batzuk ere salbuestea erabaki du. "Gure helburua alokairua sustatzea da. Bada, aurkeztutako alegazio batzuetan ikusi dugu ordenantzak eskatzen duen moduan urtarilaren 1ean alokairu kontratu bat ez izan arren,



Etxebizitza blokea. | A.B.

Salbuespen kasu horiek onartzean Udaleko kontu-hartzaileak eta idazkariak erabakiaren kontrako txostena igorri dute. Udal Gobernuaren esanetan, "bidegabekeria kasuak ematen zirela ikusita, erabaki politiko baten bitartez kasu horiek salbuestea" erabaki dute.

Jeltzaleek asteleheneko osoko bilkuran aurkeztutako mozioan eskatu zuten "errekarua etetea, idatziz jasotzea zeintzuk izan diren ontzat emandako errekursoak, nahiz eta teknikarien kontrako txostena izan eta idatziz jasotzea zeintzuk diren errekurso horiek onartzeko arrazoiak".

35 kasu salbuetsi ditu Udalak

Udal Gobernuak emandako datuen arabera, 835 izan ziren hasiera baten ezarritako errekaruak. 346 alegazio jaso ditu Udalak eta 150 onartuak izan dira. Horietatik 115 onartuak izan dira 2012ko abenduaren 31an ordenantzak jasotzen zituen salbuespenak betetzen zituztelako; beste 35ek, ordenantzaren salbuespenetan ez sartu arren, baiezkoa jaso dute, Gobernuaren esanetan "helburua betetzen dutelako". 20 kasutan bi etxebizitzekin bakarria eginda zegoelako eta beste 15etan alokairu kontratua erakutsi dutelako 2013an zehar.

Udal Gobernuak adierazi du salbuespen kasu berrien gaineko informazioa bidaliko diela errekarua ezarritako 835 kasuei.

DATUA
346
ALEGAZIO
Aurkeztutako alegazio guztietatik 150 onartu dira eta 196, berriz, ez.

hortik gutxira etxebizitza alokatu dutela eta kontratua aurkeztu dutela. Hortaz, gure helburuarekin bat egiten dute eta kasu horiek salbuestea erabaki dugu. Beste kasu batzuetan ikusi dugu bi etxebizitzekin bakarria eginda zutela. Horiek ere salbuespen kontsideratu ditugu eta egoera erregularrizatzeko aukera eman diegu", azaldu du Ogasun zinegotzi Lauri Azkargortak.

Elosuan Otaba jaietan murgilduko dira bihar

Mus txapelketa, pilota partiduak eta dantza txapelketa egingo dituzte, besteak beste

A.B. | BERGARA

Festa eta parranda izango dira nagusi datozen hiru egunetan Elosua auzoan. Otaba jaiak ospatuko dituzte bihar hasi eta astelehenera bitartean. 16:00etan etxafuego jaurtiketarekin eta kanpai-hotsekin hasiko dituzte jaiak. Ondoren, jaietako ekintza garrantzitsuenetako bat egingo dute: mus txapelketa. Ixaun tabernan egingo dute txapelketa. Sari nagusia 200 euro izango da. Izena tabernara bertara deituta eman daiteke, edo txapelketa hasi baino bi ordu lehenago.

Domeka, erretiratuen eguna

Otaba jaietako bigarren eguna pilota partiduekin hasiko dute. Jarraian trikipoteoa egingo dute Bergarako Musika Eskolako trikitilariak girotuta. 13:00etan gero, Meza Nagusia

egongo da auzoko elizan eta ondoren auzoko erretiratuen dako bazkaria egongo da Elur-mendi elkartearen. Arratsaldean, 18:30ean hasita, dantza-solte txapelketa egingo dute. Hori amaitutakoan trikipoteoak jarraituko du.

Astelehena, egun handia

Elosuarrendako astelehena, Otaba Eguna, izaten da egun handia eta aurten ere ez da parrandarik faltako. 12:00etako mezaren ostean *piskolabitx*-a egingo dute eta ondoren, 13:00etan, auzo bazkaria. Urtero moduan, bazkalostea girotzeko ume, gazte eta ez hain gazteen dako jolasak egingo dituzte. Iluntzeko trikipoteoaren ostean festak jarraitu egingo du aforiarekin. Egun osoan, Laja eta Lutxurdio trikitilariak alaituko dute giroa.



Pasa den urtean Otaba jaietan egindako herri kirolen saioa. | GOIENA

'Sexu-heziketa familiar' hitzaldia ekainaren 5ean

Udalak herriko familiendako eskaintzen duen orientazio psikologikorako zerbitzuko profesionalak -Etxadiko kideek- emango dute hitzaldia. 18:00etan hasiko da, Kultura Etxean. Gela egokia aukeratzeko, komeni da interesa dutenek lehenbailehen izena ematea.

Erretiratuek irteera egingo dute Iruñera ekainaren 6an

San Joxepe elkarteak erretiratuek irteera egingo dute ekainaren 6an, eguna, Iruñera. 09:00etan elkarteko dira Bergarako autobus geltokian. Nafarroako hiriburua bisitatu ostean, Asador El Tremendo jatetxean bazkalduko dute, Zizur Txikian. Interesa dutenek San Joxepeko egoitzan eman behar dute izena.

Herrixa Dantzan ekimeneko azken saioa domekan

Herrixa Dantzan ekimeneko azken dantzaldia egingo dute domekan, hilak 2, Zabalotegi aretoan. 19:00etan hasi eta 20:30ak arte iraungo du saioak. Helburua da adin askotariko herritarrek dantza tradizionalekin gozatzea. Udako oporren ostean, urrian itzuliko da Herrixa Dantzan.

Izena eman duten guztiek dute lekua udalekuetan

Udaleku irekien gaineko bilera informatiboak egingo dira ekainaren 11n, 12an eta 13an

A.B. | BERGARA

Urtero bezala, aurtengo udan ere udaleku irekiak egingo dira Bergaran herriko haurrentzako. Aurtun izena eman duten haur guztiek hartuko dute parte udalekuetan, ez baita beharrezko izan zozketarik egitea.

Udaleku irekien gaineko xehetasunak emateko, Udalak hainbat bilera egingo ditu.



Neska-mutikoak udalekuan. | GOIENA

Lehenengoa ekainaren 11n izango da, martitzena. Angiozar auzoan. 18:00etan izango da, liburutegian.

Ekainaren 12an, Bergaran bertan egingo dira bi bilera. 18:00etarako, Haur Hezkuntzako haurrak dituzten gurasoendako deialdia egin du Udalak -2007 eta 2010. urte artean jaiotako umeak, biak barne-. 19:00etan izango da bigarren deialdia. Kasu horretan, Lehen Hezkuntzako seme-alaben gurasoendako -2001 eta 2006 urteen bitartean jaiotako umeak, biak barne-. Udaleko ordezkariak jakinarazi dute bi taldeetan haurrak dauzkaten umeek beraiek erabaki ahalko dutela zein bileratarara joan.

Hirugarren batzar informatiboa Osintxun izango da, ekainaren 13an, 18:00etan Ludotekan.

ETXEBERRIA

BITXITEGIA - ERLOJYTEGIA

2013an ezkonduz gero, etor zaitez ETXEBERRIA bitxitegira ezkontza-eraztunak erostera eta agian, DOAN irtengo zaizkizu. Informa zaitez!

Bidekurutzeta 16 · Tel. 943 76 23 94 · Bergara
relojeriaetxeberria@gmail.com

Nafarroari buruzko bi liburu aurkeztuko dituzte martitzenean

Erlantz Urtasun historialari iruindarrak idatziak dira biak eta bera izango da aurkezpenean

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Erlantz Urtasun historialari iruindarra Irizar jauregian izango da martitzenean. Nafarroari buruz idatzi ohi du Urtasunek eta bere azken bi liburuak aurkeztuko ditu Bergaran: *Historia de Navarra. Hechos, personas y lugares* eta *Iruñsheme-iruinabak*.

Lehenengo lanean Nafarroako garai ezberdinak aztertu eta gertaerak, zeresana eman zuten pertsonak eta gauza esanguratsuak gertatu ziren lekuak izan ditu berbagai Urtasunek. Horrela, Larrantzar herriaren izaera, Iparragirre bertsolariaren bizipenak, sorginkeriagatik epaitutako emakumeen istorioak, Labrit pilotalekuaren jatorria edo Guridiren musika bildu eta kontatu ditu.

Euskarazko liburua

Iruñsheme-iruinabak liburua euskaraz argitaratutakoa da eta beste hainbat gaiez gain, euskara bera du berbagai.

Garai bateko Nafarroako hitzak biltzen ditu, 'kokoia', esaterako. "Euskaraz ez dakienari edo erdara ikasi berri duenari deitzen diote 'koko' euskaldunagoak direnek", azaltzen du Urtasunek azken lan honetan.

Gertuagoko kontuak ere badira liburuan: Euskal Jai pilotalekuaren historia, Gaztelu Enparantzarena edo San Ferminen historia herrikoia. Etorkizuneko Iruñeari ere egiten dio begirada.

Liburuen aurkezpena 19:00etatik aurrera egingo da.

ESANAK

"Euskaraz ez dakiena edo erdara ikasi duena da koko"

ERLANTZ URTASUN | HISTORIALARIA



Jaietan ezagututako Elhuyar anaiekin entseatu ahal izango dute. | GOIENA

Txikienek erraldoi berriekin entseatzeko aukera domekan

I.E. | BERGARA

Herriko jaiak bi erraldoi berri ekarri zituzten eurekin. Orduan aurkeztu zituzten Mikel Ibarzabalek haurrendako egindako Elhuyar anaiak, Fausto eta Jose Luis. Arrakasta itzela izan zuten txikien artean, eta harrera on horri jarraipena ematen saiatuko da Bergarako Erraldoi Taldea. Hamabostero entseguak antolatuko ditu eta domekan izango da hurrengoa, 11:00etan, Zabalotegin.

Helduendako zein haurrendako entsegua izango da baina umeek protagonismo berezia izango dute. 7 urtetik aurrerako haurrek har dezakete parte entseguan. Erraldoien neurriak direla-eta umeek 1,30 metrotik

gora neurtu beharko dute. Hazten joan ahala, erraldoi ezberdinak erabiltzen joango dira eta gero helduen taldera igarotzea da Erraldoi Taldearen helburua, Ibon Unamuno kidearen esanetan.

San Martzialak

Bergarako jaien aurretik egindako entseguetan 24 umeek eman zuten izena baina oraindik mugimenduak ez dakizkitela aitortzen du Unamunok. Ekainaren 30eko San Martzial eguna dute gogoan eta horri begira egingo dituzte hurrengo entseguak, baita San Martin jaiak begira ere. Oraingoz herriko jaietan bakarrik irtenko dira umeak, ez kanpokoetan.

Morau eta Aguxtin Alkhat 'Egubakoitzak kartzelan' agurtzeko

Maiatzean gaztetxeko kanpoko eszenatokian egin den *Egubakoitzak Kartzelan* egitasmoak gaur esango du agur. Morauk eta Aguxtin Alkhatek emango dute kontzertu lasaien zikloko azken emanaldia. Gizartea modu ironikoan islatuko du Morauk, pop kantekin eta Alkhatek barnetik sortutakoak abestuko ditu. Emanaldiak 22:00etan hasiko dira eta hiru euro kostako da sarreara. Txapa irratiak zuzenean igorriko ditu kontzertuak.

Oreindik taldearen rock eta funka bihar Laino Skatepark-en

Duela lau urte Lasarte-Orian sortutako Oreindik taldeak kontzertua emango du gaur Laino Skatepark-en. Rocka eta funka lantzen ditu taldeak eta aurten atera du azken diskoa: *Berdinlite*. Hori aurkeztuko du 22:30etik aurrera emango duen kontzertuan. Aurten hamar urte bete dituen Xpressionk kultur elkartearen eskutik dator ekitaldia. Kultur ekimen alternatiboak antolatu eta artistei leku berriak eskaintzea du helburu Xpressionk-ek.

DEBAGOIENENKO LANBIDE HEZIKETAREKIN

ARETXABALETAN:

Ate irekiak: Maiatzaren 22an, 18:00etan

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola

☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43

www.iaretxabaleta.com



BERGARAN:

Ate irekiak: Maiatzaren 25ean, 11:00etan

IEFPS Miguel Altuna GLHBI Bergara

☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40

www.imaltuna.com



OÑATIN:

Ate irekiak: Maiatzaren 28an, 18:30ean
(Larrañako egoitzan)

RM Zuazola - Larraña Institutua

☎ 943 78 21 50

www.onati.net

"etorkizuna zure esku"



AURREMATRIKULA: maiatzaren 27tik ekainaren 7ra. • MATRIKULA: uztailaren 8tik 12ra.

Dirulaguntzak eta etxe kaleratzeak osoko bilkuran

Gainera, herriko ikasleek ezohiko bilkuran hartu zuten parte aholkuak emanda

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL
Maiatzeko ohiko osoko bilkura izan zen Eskoriatzan martitzenean, eta, besteak beste, garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzeta programa eta dirulaguntzak emateko oinarriak onartu zituzten aho batez.

Udalak aurretik ere ematen zuen laguntza hori, Beñat Herce alkateak gogora ekarri duenez: "Zenbait urtetan ezin izan dugu eskaini, egoera ekonomikoagatik. Zorionez, berreskuratu egin dugu, eta erabaki dugu arduratsu jokatzea laguntzekin. Ez bakarrik Eskoriatzari dagokionez, mundua handia baita; beste batzuek guk baino behar handiagoak dituztela badakigu. Gure ahalmenaren arabera, laguntzatxo bat atera dugu -5.000 euro ingurukoa".

Juan Luis Merinok albiste bikaina zela esan eta etorkizunean laguntzara bideratutako diru kopurua handitzea gurako lukeela gaineratu zuen.

Etxe kaleratzeaz

Maiatzeko osoko bilkuran landutako beste gai batek etxe kale-

ratzeak izan zituen oinarri. Udaletan etxe kaleratzeen aurrean laguntzeko eta aholkatzeko protokoloek zenbait hutsune zituztela ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak hitzarmena sinatu zuten. Hala, martitzenean Udalak hitzarmen horri atxikimendua adierazi zion.

"Udalei lana errazteko modua dela uste dugu". Izan ere, Herce esanetan, askoz hobeto definitzen da etxe kaleratzeen aurrean nola jokatu. "Hitzarmenera atxikitzeak udal eta gizarte zerbitzuetatik segitu

beharreko protokolo zehatzagoen berri ematen digu. Irtenbide puntuala barik, integrala izan dadila bilatzen dugu".

Udal ordezkarien gehiengoak baiezkua bozkatu arren, hitzarmenak izan ditzakeen hutsuneen gaineko kritikak ere azaldu ziren. Hala, Udalak bere gain hartu zuen hobetu beharko liratekeen atalak jaso eta Gipuzkoako Foru Aldundira igortzeko betebeharra.

Ikasleak eta biodibertsitatea

Ohiko bilkuraren aurretik, baina, ezohiko bisitariek hartu zuten



Ikasleak eta udal ordezkariak saioaren amaieran. | ZVDM.

bilkura aretoa. Hain zuzen ere, Eskola Agenda 21 hezkuntza programaren barruan ikasturtean zehar biodibertsitatea landu duten ikasleek Udaleko ordezkariekin elkartu eta proposamen zehatz batzuk egin zizkieten. Erantzuna ere jaso zuten udal ordezkarien partetik.

Asko izan ziren herriko neska-mutilen proposamenak. Esate baterako, zuhaitz bakoitzari dagokion izena ipintzea eskatu zuten 1. eta 2. mailetakoei, "itsuekin ahaztu gabe". Hala, neska-mutilen esan zieten museo kanpoan dauden zuhaitzak identifikatzeko ardura hartu dutela euren gain, "herri osoan egitea ezinezkoa izango da eta".

Hirugarren eta laugarrenekoek, berriz, lanak egiteko orduan animalien gaitasuna pentsa dezatela

eskatu zuten; 5 eta 6. mailetakoei ibai ondoko harresiak egitekoan harriak porlanarekin ez itsastea proposatu zieten, eta ahalegina egingo dutela erantzun zieten udal ordezkariak.

Basoetan bertako espezie gehiago landatzea ere onartu zuten DBHko 1. mailako neska-mutilen esan ahalekin den neurrian beteko dutela erantzun zieten. Espezie inbaditzaileen kontra egiteko eskatuta, horiek identifikatu ondoren, kentzerik egongo balitz aurrera egingo luketela azaldu zuten alkateak.

Bestelako gomendioen artean, ur gabe dauden iturriak konpon dituztela azaldu zuten ikasle gazteek, bai eta herrian hainbat lekutan konpost-gailu gehiago ipintzea ere.

ESANAK

"Dirulaguntzarena albiste ona da; urteekin kopurua handitzea lortu behar dugu"

JUAN LUIS MERINO | EZKER ANITZA

"Atxikimenduz etxe kaleratzeen protokoloa hobetzea espero dugu"

BEÑAT HERCE | ALKATEA

Elorretako errota martxan ikusteko aukera egongo da bihar XVII. Ferixien

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

Hamazazpigarren aldiz antolatu du Arizmendik Ferixie Eskoriatzan. Goizetik arratsaldera bitartean zer egin egongo da bihar, zapatua.

Berritasun bezala, Elorretako errota martxan ikusteko aukera egongo da, 10:00etatik 11:00ak bitartean, hain zuzen. "Herriar guztiak gonbidatu gura ditugu toki berezi hau bisitatzera. Gainera, museokoek azalpenak emango dituzte xehetasunik galdu ez dezaten". Hala azaldu du Arizmendiko Jose Arana guneko Lierni Altunak.

Artisauak, tailerrak...

Biharko ekintza ezberdinak antolatu dituzte. Ohi bezala, baserriko produktu eta artisauen azoka egingo dute, 10:00etan hasi eta 14:00ak bitartean. 97 postu egongo dira, guztira. Horietatik 55 artisauenak eta 36 baserriarrenak izango dira; beste 6 postu askotariko gaiak beteko dute: tresneriak... "Baina gainera, xaboia egiten ikasteko tailerra egingo da, eta gazta egiteko prozesua erakutsiko dute zuzenean".

Bestalde, urtero bezala, txorimalo lehiaketa ere deitu dute biharko, 10:15ean hasiko da eta

sari banaketa 14:00etan egingo dute: "Lehiaketan taldeka zein bakarka har dezakete parte gura duten guztiek, lau urte baino gehiago dutenek.

Bazkal aurretik trikitilariak eta herriko dantzariak irtengo dira kalera. Herri bazkaria frontoian izango da, 15:00etan. "Aurten, beste batzuetan baino motelago joan da txartelen salmenta, baina giro bikaina egongo dela, zalantzarik ez".

Eta egunari amaiera emateko, 19:00etan III. txapel jaurtiketa txapelketa egingo dutela eman dute aditzera.

Aste Zapatista egingo dute asteleheneetik zapatua bitartean

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

Txupinazoak emango dio hasiera astelehenean, 17:00etan, hamahirugarren Aste Zapatistari, eta zapatua bitartean hainbat ekitaldi egongo dira.

Krisiaz eta kontsumoaz

Martitzenean, ekainak 4, Izaro Gorostidik eta Jorge Arzuagak *Crisis global: soluciones y alternativas* izeneko mahai inguruan hartuko dute parte, kultur etxean, 19:00etan. Toki berean, baina eguaztenean, kontsumo arduratsuari buruzko saioa egingo dute, 19:30ean. Antolatzaileek adierazi dutenez, "berbaldi guztietan

pastak eta Txiapasko kafea egongo dira".

Mexiko zati bat herrian

Aste Zapatistaren bitartez, herrialde hartako kulturaren zatitxo bat iristen da urtero herrira. Hala, kultur etxean *Argazki zapatista* izeneko erakusketa irekiko dute, aste osoan zehar ikusgai egongo dena. Mexikoko abestiak entzun ahal izango dira - eguenean 18:30ean zaharren egoitzan eta egubakoitzean 17:00etan plazan-. Maskara mexikarrak egingo dituzte eta janari mexikarra prestatuko dute zapatuan.

Martxan da merkatarien elkarteko irudia aukeratzeko lehiaketa

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

Eskoriatzako merkatarien elkar-tea sortu berri dute, eta, irudia aukeratzeko asmoz, lehiaketa ipini dute martxan.

Ekainaren 21a azken eguna

Parte hartzea irekia da eta interesatuek ekainaren 3tik 21era bitartean aurkeztu ahal izango

dituzte proposamenak, antolatzailerekin aditzera eman dutenez. "Ibarraundira ekarri beharko dira lanak. Irudiak ez du egilearen informaziorik jasoko. Horrekin batera, sobre itxi batean aurkeztu beharko dira egilearen datuak".

Teknika eta gaia libreak izan arren, logoak *Axtroki Merkatar*

rien Elkartea jaso behar du bere baitan.

Sari banaketa uztailaren 1ean

Ekainaren 21ean itxiko da lanak aurkezteko epea eta epaimahaiak proposamen guztien artean irabazlea aukeratu du. "Uztailaren 1ean emango da saria, plazan, kantu txapelketa baino lehen".

Lan sarituagatik 150 euro jasoko ditu irabazleak. Horiek elkartea osatzen duten komertzioetan gastatu ahal izango direla gaineratu dute.

OHARRAK

AUZOLANA ATXORROTZEN

Aitzorrotzek deituta, Atxorrotzen auzolan eguna egingo dute domekan. Herritarrei dei egin diete bertan parte har dezaten. Gura dutenak 09:30ean ager daitezke Atxorrotzen.

ZENBAKI SARITUA: 14

Maiatzaren 25ean Eskoriatzan fibrosi kistikoa ikertzearen aldeko jaietan egindako zozketaren zenbaki saritua 14a izan zen.

Astebete du irabazleak oparia -Jakioneko otarra- jasotzeko. Saritua agertu ezean bigarren zenbakiari emango diote oparia, 24 zenbakiari, eta hark ere astebete epea izango du.

SAN PEDROETAKO ESALDIA

Domeka, ekainak 2, izango da San Pedro jaientarako esaldi lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna. Informazio gehiago, Udalaren webgunean.

Elkarrekin bizi izateko balioek duten garrantzia

I.E. | ANTZUOLA

Martitzenean egin zuten elkarbizitza prozesu parte-hartzailerako bigarren bilkura. Aurreko topaketako ondorioak abiapuntu hartuta, herrian elkarrekin bizi izateko balio batzuk zehaztu zituzten.

Norberaren ustez elkarbizitarako zein balio, premia, betebeharrak eta eskubideak duten lehentasuna zehaztu zuten, binaka hasieran eta taldeka ostean.

Aurrera begira elkarrekin egin ditzaketen gauzak aztertu zituzten ondoren.

Aurpegi berriak

Lehenengoan baino apur bat jende gutxiago izan zen bigarren bileran, baina aurpegi berriak ere ikusi ziren.

Bi aste barru egingo dute hirugarren eta azken bilera.

Eguraldi iragarpena medio, Aralarrerako irteera atzeratuta

Arrola Mendi Elkartek domeka honetarako zuen antolatuta Aralarrerako mendi-irteera. Eguraldi iragarpen txarrak direla-eta atzeratu egin dute, eta ondorioz, ekainaren 9an egingo dute mendi ibilaldia. Parte hartu nahi dutenak elkartearekin harremanetan jar daitezke arrolamt@gmail.com helbide elektronikoaren bidez.

Antzuolan obrek nola eragingo duten ikusteko mendi-buelta

Gaztetxeak mendi-buelta antolatatu du bihar goizerako, Antzuola inguruan. 09:30ean Gaztetxetik irten, eta Abiadura Handiko Trenaren eta autobiarren obrek herrian izango duten eragina ikusi eta horretaz gogoeta egingo dute. Handik bueltan, parillada egingo dute Gaztetxean. Herritarrei parte hartzea dei egin diete.

Familien babeserako taldearen hileroko bilkura Laskurainen

Ekainaren hasierarekin batera, Laskurain Psikomotrizitate Zentroan familien babeserako taldearen bilkura egingo dute. Ekainaren 7an izango da saioa, 18:00etan, Laskurain Aundia baserrian. Gurasoendako saioa izango da eta familiako giroa eta harremanak landuko dituzte. Hori bai, izena eman behar da.



Umeendako jarduerak izango dira nagusi zapatuan eta domekan dantzarien emanaldia izango da. | GOIENA

Haurrendako jarduerak, auzo afaria eta trikitilariak Ondarren

Aurten ez dute igerilekurik jarriko tenperatura baxua dagoelako iragarrita

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Eguraldiak zalantza egiteko arrazoiak ematen baditu ere, uda ate-joka dabil, eta Antzuolan auzoetako festak hastear dira. Ondarreko Corpus jaiak izango

dira bihar eta domekan, eta ekitaldi ugari antolatu dituzte, batez ere, haurrendako.

Zapatu eguerdian hasiko dituzte ospakizunak, bizikleta ginkanarekin. Atsedean hartu ostean,

arratsaldean helduko diete berriro festei. 16:30etik aurrera igerilekuak zeuden aurreikusita baina tenperatura baxua dago iragarrita biharko eta ez dituzte jarriko. Horren orde haurren-

Lanerako euskara eta munduratzeko beste hizkuntzak erabiltzea saritu dute

Ibilaldiak omenaldia egin dio Elay enpresari, barneko lan guztia euskaraz egiteagatik; enpresako zuzendaritzak eta langileek beti egin dute ahalegina

I.E. | ANTZUOLA

Domekan Portugaleten egindako Ibilaldiak izan du oihartzunik Antzuolan; izan ere, Elay enpresa omendu zuten 1992tik euskara plana garatu eta egunerokotasunean euskaraz lan egiteagatik.

Enpresako Euskara Batzordeko Jose Ignacio 'Piti' Madariaga eta euskara planeko idazkari Ana-je Narbaizak jaso zuten saria. Lehen hitzak enpresa eratu eta euskararen aldeko apustua egin zuen Jose Luis Elkorrentzat izan ziren. Hizkuntzek komunikatzeko duten balioa onartu eta tokian-tokikoaren eraginkortasuna azpimarratu zuen Narbaizak, baita produktuak munduan kokatzeko beste hizkuntza batzuen premia badute ere, euren ezagutza gartzeko euskararekin etekin hobekak lortzen dituztela aipatu ere.

Euskara Batzordea

Enpresan euskara lantzeko Euskara Batzordea eratu zuten duela 25 urte. Madariaga sorreran egon zen eta gogoan du zuzendaritzaren aldeko jarrerak eta langileenak bat egin zutela: "Enpresak beti izan du aldeko



Madariagak Bizkaiko ahaldu nagusiaren eskutik jaso zuen saria. | IBILALDIA

jarrera eta ez du inoiz utzi proiektua. Langileen jarrera ere ikusgarria izan da, orduz kanpo etortzen ginen ikastaroetara".

Erabilera normalizatuta, azken urteetan ez zaiola hainbesteko lekuri eman baina garai batean zenbaitek trebetasuna lortzeko ikastaroak beharrezkoak zirela dio Euskara Batzordean geroago sartu zen Igor Iñurrategik.

ESANAK

"Alemaniatik datoz makinak, eta euskaraz argibideak"

'PITI' MADARIAGA | ELAYKO LANGILEA

dako hainbat jolas prestatuko dituzte auzoko plazan.

Ostean, 18:00etan, hasiko da umeen krosa. Txikienek plaza gurutzatu beharko dute, 11-12 urtera artekoek Ondarren hasi eta amaituko dute lasterketa. Tartean baina, Kalegoitik eta Herriko plazatik pasa beharko dute. 12-13 urteko gaztetxoek ibilbide bera egin beharko dute baina bi aldiz.

Krosaren ostean, Txoborro magoak bere abilezia erakutsiko die ume eta helduei, plazan.

Jende gutxiago afaritan

Eguneko jardueretan galdutako indarra berreskuratzeko, auzo afaria izango da 21:00etatik aurrera plazan. Iaz 50 pertsona batu ziren baina aurten gutxiago izango dira, 30-35 lagun.

Afalostean Eneritz eta Lide trikitilariak alaituko dute giroa eta betiko moduan Ondarreko jaietz gozatzera hurbiltzen diren antzuolarrei eta kanpotarrei kafea eta edaria emango diete doan.

Meza izango da domekako lehen ekitaldia. Hori amaitzean, prozesioa egingo dute auzoan zehar eta ondoren dantzarien emanaldia egongo da. Goizean bertaraten direnek salda eta txorizoa probatzeko aukera ere izango dute.

Ondarreko jaiak herriko beste hainbat auzotako festei egingo die bide, izan ere, ekainean zehar Kalebarrengo jaiak, Uzarraga eguna eta Lizarraga auzoko festak ospatuko dituzte.

Makinak ere euskaraz

Beste enpresa askotan gaztelaniaz erabiltzen diren hitzak euskaraz esaten dituzte Elayko langileek eta legeak bezalako gutxi batzuk izan ezik, dokumentu guztiak euskaraz dituzte.

Administrazioa ez ezik, makineria ere euskaldunduta dago. "Makina gehienak Alemanian erosten dituzte eta argibide guztiak euskaraz ekartzen dituzte, ordenagailuak euskaraz daude", azaldu du Madariagak. "Makinak 'sartu' jarriko du, ez 'meter' edo 'pulsar' gaztelaniazko hitzak", gaineratu du Iñurrategik.

Enpresak horretan inbertsioa egin duela zehaztu dute, baita zenbaitetan galerak eragin zitzaizkeela ere, izan ere, akatsak eta atzerapenak egon dira hizkuntza dela medio.

Beste hizkuntzak

Duela 25 urteko erronka beteta, hau da, ezagutza eta erabilera bermatuta, Euskara Batzordea bertan behera geratu da. Baina hizkuntzak faktore garrantzitsua izaten jarraituko du enpresan, eta aurrerantzean Hizkuntza Batzordean landuko da.

Euskararen bakarrik zentratu beharrean, enpresan baliagarri izango diren beste hizkuntzei buruzko gogoeta ere egingo du. Nazioartean dituen bezeroak eta enpresak kontuan izanda, "euskara da Elayko lehen hizkuntza, ingelesa bigarrena eta txinera hirugarrena", dio Iñurrategik.

Arexolako eta Arriolako auzoetako bizilagunek antolatuta, Santikurtz Eguna ospatuko dute etzi

Urtero moduan, ekaineko lehen domekarako Santikurtz Eguna antolatu dute Arexola eta Arriola auzoetako bizilagunek: 12:00etan meza egingo dute Santikurtz ermitan eta gero, txorizoa eta salda dastatu ahal izango da ermita azpiko txabolari. Ospakizuna girotzeko, trikitilariak egongo dira.

Bertso eskolen festa bihar Legution, Aranburu eta Abarrategi aramaioarren parte hartzearekin

Arabako Bertso Eskolen Eguna ospatuko dute bihar Legution, egun osorako egitarauarekin. Aramaioarrik ez da falta izango: 16:30ean hasiko den 14 urtetik 18 urtera arteko bertsolarien arteko finalean, Sabin Aranburuk eta Peru Abarrategik hartuko dute parte, aurreko kanporaketetan finalerako txartela lortu ostean.

Areto futboleko Aramaixo taldea lider sendoa da Kopako bere taldean, lau partiduak erraz irabazita

Areto futboleko Aramaixo taldeak sendo jarraitzen du bere taldeko lider moduan. Kopan jokaturako lau partiduak erraz irabazi dituzte -34 gol alde eta bost kontra-. Hurrengo lehia bihar izango da: Autoescuela Gasteiz taldearen aurka jokatu dute aramaioarrek (19:00), Gasteizko Arriaga kantxan.

Iñigo Rumenigek bizikletan egindako bidaien gainean egingo du berba gaur Sastiñan, 18:30ean


Iñigo Rumenige abenturazale gasteiztarrek *Cyclotherapy, munduari buelta bizikletan* izeneko hitzaldia eskainiko du gaur Sastiñan (18:30). 2009ko otsaila ezker 26 herrialdetan zehar bizikletan egindako 45.500 kilometroetan bizi izandako esperientziak eta bitxikeriak kontatuko ditu.



Abenturazale gasteiztarrek egindako bidaietako baten irudia. | IÑIGO RUMENIGE

NIRE USTEZ

XABI
IGOA



Badatoz...

Badator uda, badator eguraldi ona -bueno, edo agian ez-, badatoz herri eta auzoetako festak, badatoz kontzertuak, badatoz parrandak, badatoz aurrekuak, badatoz arin-arinak, badatoz herriko dantzariak, eta agian badoaz.

Orain sei urte ehunka pertsona ginen kiroldegian dantzan jardun ginenak eta gaur ere, ez dira gutxi astero-astero eskolako gimnasioan biltzen direnak oinak airean jartzeko. Ume, gazte eta espirituz gazte dauden 70 bat pertsona biltzen dira Aramaioko dantza taldeak,

baina, 56 urteren ondoren agur esan diezaioke bere jardunari. Ez da jendeak dantza egiterik nahi ez duelako, ikusten dugun bezala, osasuntsu baitago jende kopuruari dagokionez. Irakasle kopuruan dago arazoa.

Orain arte Ainara Inuntziaga eta Adela Elexalde aritu izan dira lan horretan eta hemendik eskerririk beroenak eman nahi dizkiet -eta herri osoaren izenean nabilela uste dut-, lan ederra egin duzue biok, zorionak! Orain, agian, ardurak banatzeko garaia da, denon ahaleginaren pean dantza taldea aurrera eramatekoa eta aurrekoek egindako lan horri erreleboa ematekoa.

Nik, gutxienez, agurrak, banakoak, aurrekuak, arin-arinak, fandangoak txakolin-dantzak... ikusten jarraitu nahi dut gure herri eta auzoetan.

Badatoz... eta ez daitezela joan!

Lagunartea dantza taldeak gidari berriak behar ditu

Egungo irakasleek uztea erabaki dute; hurrengoei laguntzeko gertu daude

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Lagunartea dantza taldeak gidari berriak behar ditu. Egungo irakasle lanetan dabilzan Ainara Inuntziagak eta Adela Elexaldeek uztea erabaki dute: "Nekatu egin gara. Ez dugu hasierako ilusio eta pazientzia bera. Egin behar genuena egin dugu", dio Inuntziagak. Azken 15 urteotan aritu da lanean Inuntziaga; Elexalde, berriz, azken zazpi urteotan. Lanak eta bestelako betebeharrak ere eragin zuzena dute: "Adelak Aste Santu aurretik esan zidan lan askorekin zebilela eta ez zela heldzen; nik argi daukat bakarrik ezin dudala jarraitu".

Irakasleek penaz hartu dute albistea: "Bilera bat egin genuen talde guztiarekin, gazteenetik hasi eta helduenera arte. Uztea erabaki genuena esan genien eta negar malkoak ere egon ziren".

Erreleboa, "zaila"

Erreleboa hartuko duten hautagaiak aurkeztea "zaila" ikusten du Inuntziagak: "Ordina edonork jar dezake baina dantzak erakusteko dantza egiten jakitea ezinbestekoa da. Erakusteko gai diren gazteetako batzuk ikasten eta lanean dabilta eta beste batzuk unibertsitatean sartuko dira datorren urtean. Zaila dago". Udalarekin berba egitekotan daude, Lagunartea dantza taldearen etorkizuna bermatzeko.

Zazpi taldek osatzen dute Lagunartea familia. 3 edo 4 urte dituzten haurretatik hasi eta gazte, heldu zein erretiratueta arte; azken horiekin plazan dantzatzeko saioak antolatzen dituzte. Gainerako herrietako dantza taldeetan ere ematen den fenomeno baten gainean ere egin digu berba Inuntziagak. Hau da, adin batera helduta dantza egiteari uzten dioten hainbat mutil daudela. Hala ere, Aramaio herri



Lagunartea dantza taldea Aramaion, 1961. urtean. | MERTXE MONDRAGON

dantzaria denik ezin da ukatu; oraindik ere dantzarako ohitura handia dago.

Entseguak eskolako gimnasioan egiten dituzte egun baina gimnasioa heldu arte beste zenbait leku ere ezagutu dituzte: "Orain arte izan ditugun lekuak ikusita ondo dago. Ni dantzan hasi nintzenean, dantzari moduan, Santa Ana ermitan elkartzen ginen eta handik Sastiñara pasa ginen. Hainbat urte egin nituen Sastiñan,

dantzari zein irakasle moduan. Osoko bilkuren aretoan eta kultur etxeko agertokian ere probatu genuen, baina zarata handia ateratzen genuen, entseguak han egitea ezinezkoa zen".

60. urteurrena laster

Ziklo aldaketa beharrezkoa dela uste du egungo irakasleak, uzteak "pena handia" ematen dion arren. Gainera, hiru urte barru 60 urte beteko ditu taldeak eta horren ibilbide luzea izan duen kultur talde bat desagertzeak "amorruta" emango lioke Inuntziagari: "Gure aurretik lanean aritu direnez aparte, dantzariak ere badaude. Urte asko dira, oroitzapen ederrak ditugu, eta hori guztia egun batek bestera bertan behera uzteak pena handia emango lidake". Erreleboa hartzen dutenei laguntzeko gertu daude eta ardurak jende gehiagoren artean banatzea ikusten dute aukera moduan. Amaitzeko, urte hauetan guztietan taldeko parte izan direnei eskerririk beroenak eman gura izan dizkie Inuntziagak.

ESANAK

"Nekatu egin gara, ez dugu hasierako ilusio eta pazientzia bera; egin behar genuena egin dugu"

AINARA INUNTZIAGA | IRAKASLEA

Berrerabiltzeko edukiontzi berria Ostetan

Etxean lekua okupatzen duten eta berrerabil daitezkeen gauzetarako edukiontzi berria dago Aramaion, Osteta kalean. Edukiontzi horretan honakoak bota daitezke, besteak beste: telefono mugikorrek, lapikoak, panpinak, umeek erabiltzen ez dituzten jostailuak, lanparatxoak, liburuak, plantzak, prakak...



ELGETA

Tabernaz taberna kantuan egiteko aukera izango dugu domekan, 13:00etan plazatik abiatuta

Elgetan Kantuan ekimenak parte hartze polita izan zuen udazkenean, eta domekan beste saio bat egitea erabaki dute antolatzailleek. Hala, Jose Gardoki soinu-jolearen laguntzarekin tabernaz taberna eta kalez kale kantuan egiteko aukera izango dugu. Bada, ekimen irekia da eta taldea 13:00etan abiatuko da herriko plazatik.

Udalak hezitzaileak behar ditu uztailean egingo dituen udaleku irekietarako; izen-ematea zabalik da

Lan egutegia uztailearen 1etik 24ra bitartekoa izango da —astelehenetik barikura bitartean, 08:55etik 13:05era—, eta 1.006 euroko soldata gordina eskaintzen da. Interesatuak udaletxean edo *elgeta.org* webgunean aurkituko dute bete beharrekoen eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren zerrenda. Izena emateko epea zabalik da ekainaren 10era arte. Aukeraturakoek idatzizko azterketa egin beharko dute.

Koadrila Eguna indartuta dator: haurrendako puzgarriak eta bits festa ere egongo dira aurten

Ekainaren 8an, domeka, Koadrila Eguna izango dugu Elgetan. Berriz ere jokoan da, hortaz, gisatu goxoen zein koadrilak prestatzen duen. Gazteendako argazki rallya, herri bazkaria eta Luhartz taldearen erromeria ere iragarri ditu Udalak. Berrikuntzei dagokionez, Maala Guraso elkarteak lagunduta haurrendako puzgarria egongo da goizean. Nagusiendako zein txikiendako, berriz, bits festa 19:00etan. Erromeriak jarraituko du ondoren.

V. FRONTENIS TXAPELKETA

Bederatzi partidu aste bukaeran**AZKEN EMAITZAK**

Garbiñe Sarasketa-Benito Campos / Idoia Serna-Asier Osoro	12-25
Idoia Elkoro-Jesus Belamendia / Maria Irene Olabarria-Xanti Dosuna	25-23
Maider Osa-Anartz Agirre / Miren Zeziaga-Pello Larrea	25-14
Iban Retolaza-Xabier Ubera / Julen Barrutia-Imanol Albisu	25-17
Rebeka Ubera-Xabier Ubera / Maitena Mañarikua-Josu Mañarikua	25-18
Sergio Bouzas-Josu Arantzabal / Ibon Untzetabarrenetxea-Eneko Ojanguren	25-13
Andoni Elortza-Eneko Maguregi / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna	25-18
Mikel Zubiaurre-Aitor Errarte / Jon Ugarteburu-Josu Mañarikua	atzeratua

GAURKO PARTIDUAK, 20:00ETAN

M. Zeziaga-P. Larrea / A. Iribar-L. Alkorta	H. Gallastegi-E. Elkoro / E. Vallo-A. Gorosabel
M. Osa-A. Agirre / G. Sarasketa-B. Campos	A. Gorostiza-A. Osoro / O. Sarasua-X. Dosuna
R. Ubera-X. Ubera / I. Elkoro-J. Belamendia	T. Cot-J.C. Gonzalez / Ibon. U-E. Ojanguren
O. Zenitagoia-F. Zenitagoia / S. Bouzas-J. Arantzabal	M. Mañarikua-J. Mañarikua / I. Bravo-I. Lopez
	M. Zubiaurre-A. Errarte / J. Mañarikua-J. Ugarteburu

ZAPATUKO PARTIDUAK, 16:00ETAN

	H. Gallastegi-E. Elkoro / E. Vallo-A. Gorosabel
	A. Gorostiza-A. Osoro / O. Sarasua-X. Dosuna
	T. Cot-J.C. Gonzalez / Ibon. U-E. Ojanguren
	M. Mañarikua-J. Mañarikua / I. Bravo-I. Lopez
	M. Zubiaurre-A. Errarte / J. Mañarikua-J. Ugarteburu



Udalbatza, martitzenean egindako osoko bilkuran. | L.Z.

Aho batez onartu dute Elgeta Zero Zaborren idatzia

Udalbatzak, bestalde, berri-egun egin ditu eguneko zentroko eta udal kiroldegiko esleipenak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalbatzak martitzenean egin zuen maiatzeko osoko bilkura. Bilkura laburra izanagatik —30 minutu—, erabaki esanguratsuak hartu zituen udalbatzak. Esaterako, udal kiroldegiko ustiapena, berriz ere, Jose Monterrosori esleitzea erabaki zuen aho batez. Hiru urtez berri-egun diote esleipena Monterrosori. Epe hori amaitutakoan, eta alde biek onartuz gero, kontratua beste bi urtez luzatzeko aukera izango dute.

Aho batez hartutako beste erabakia eguneko zentroa eta etxebizitza tutelatuaren esleipena Eulen enpresari berritzea izan da. Enpresari urtebeterako berri-egun diote baimena, eta 2016ra bitartean urtetik urtera luzatzen joateko aukera izango da.

Elgeta Zero Zaborren idatzia

Udalbatzak aho batez onartu zuen baita ere Elgeta Zero Zabor taldearen idatzia —ikus 6. orria—. Hala, erabaki horren bitartez Udalak bere egiten du hiru puntu jasotzen dituen konpromiso etikoa. Helburua da "sortutako zaborra jasotzen duten herrietako biztanleei ahalik eta kalterik txikiena

eragitea". Hori bete ahal izateko ondorengo neurriak hartzeko konpromisoa hartu du Udalak: "Ahalik eta hondakin gutxien sortzeko burutu ditzakeen ekintzak aztertu eta abian jartzea (...); sortutako hondakinak nahasi gabe biltzeko emaitza hoberenak lortzen dituzten biltzeta sistemak ezartzea (...); eta herritarren parte hartzea bultzatzea herritarrek ondo informatuta egon daitezela, herritarrek

aipatutako konpromisoak betetzea bermatuko duten proposamenak egin ditzaten, eta konpromiso etikoa horiek betetzen dituzten proposamenen artean erabaki dezaten".

Elgeta Zero Zabor taldearen idatzia Elgetako Aralar-Independenteak taldearen, Bilduren eta EAJren babesa jaso zuen martitzenean egin zuten bilkuran. Oniritzia eman aurretik, ordea, EAJko bozeramaile Patxi Basaurik zenbait argibide eskatu zituen. Galdetu zuen, besteak beste, zeintzuk diren orain arteko zaborren kudeaketarekin elgetarrek egindako eta aitortzea eskatzen zaizkien kalteak. "Badirudi orain arte ez dela ezer ondo egin zaborren kudeaketan. Herritarrek egin dute eskatu izan zaiena, besterik ez. Gaizki egin dute?", galdetu zuen Basaurik. "Badirudi orain Zero Zabor etorri dela, eta dena konponduko duela", gaineratu zuen.

Udalekuetako hezitzaileen soldatak

Hezitzaileen soldata eztabaida iturri izan da. Gaia batzordeetan aztertu dute, eta azkenean, 5. kontratazio maila aitortuko die Udalak langile horiei; iaz soldata gordina 850 eurokoa bazen, aurten 1.006 eurokoa izango da. Baina oposizioa ez da guztiz gustura gelditu: "Aurrerapausoa da, baina Udalak onartuta daukan gutxieneko kontratazio maila 7. bada, eta maila hori ezarri bada gainontzeko kontratazioetan —ludoteka eta gaztelekuko hezitzaileak, liburutegiko langileak, turismo teknikaria, brigadan...— ez dugu ulertzen zergatik egiten den diferentzia langileekin", esan du Bilduko Janire Lazkanok. Oxel Erostarbe alkateak erantzun du egoera ekonomikoa zaila izan arren Elgetako Udalaren apustua zuzenean kontratazioa egiten jarraitzea dela. "Lan baldintzak hobetzeko erabakia hartu dugu, eta ez ditugu ulertzen Bilduk Elgetan egiten dituen kritikak ikusita bailara mailan hezitzaileek herri honetan dituztela lan baldintza onenak".

LEINTZ GATZAGA

Neska-mutikoak hasi dira udako ludotekarako izena ematen, uztaileari begira

Ekainaren 14a baino lehen eman beharra dago izena, ludotekan bertan edo Labidean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Urtetako geldialdiaren ostean, aurten atzera ere entzungo dira urteko barreak Gatzagako kaleetan uztailean. Hori da justu Gurel elkarteak antolatzen diharduen udako ludotekarekin lortu gura duena: "Herrian bertan behar dira ekintzak egin; azken batean, ume eta gazteak udan ere herrian ibiltzen ohitzen badira, nagusitzen direnean bertan ibiltzen segituko

dute. Horrez gainera, azken urteotan Gatzagan ez da udako ludotekariko egin, eta horren ondorioz, hemengo umeak inguruko herrietako ludoteka edo udalekuetara eraman dituzte: Arrasatera, Aretxabaletara... izan ere, gurasoek uztailean lanean segitzen dute, eta umeekin zerbait egin behar da. Hori da, hain zuzen, apurtu gura duguna: Gatzagako neska-mutikoak Gatzagakoak ez diren

ludotekatarako joatea", azpimarratu dute Gurel elkartetik.

Gehitu dute Gatzagako hala-koetarako aukera paregabea ematen duela, gainera, "herri osoa bilaka daiteke eta gazte-txoendako jolasleku erraldoi". Ludotekarako aukeraturako leloa esandako filosofia horrekin bat dator: *Kanpora joan gabe herriari bizia eman*.

Ordutegia eta prezioa

Uztailearen 1etik 19ra egingo dute udako ludoteka, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Gurel elkarteko kideen edozein seme-alabek parte hartu ahal du, 3 eta 16 urte bitartean.

Begiraleari dagokionez, Beñat Agirreurretak hartuko du zeregin hori. "Ludotekan hura dabil, eta umeak oso pozik dabilta. Edozelan ere, sortzen den taldearen

ezaugarri edo beharren arabera (talde handia dela...) ikusiko bagenu jende gehiago behar dela, Beñat bera arduratuko da beste lagun bat bilatzeaz", esan dute.

Parte hartu gura duenak ekainaren 14a du izena emateko azken eguna, ludotekan bertan edo Labidean. Prezioa da 30 euro ume batengatik eta 50 euro anai-arreben kasuan, "hirutik gora ume ematen badute izena, begiraturako dugu prezioa", azaldu dute.

Ekintzak, tailerrak...

Egunero ekintza desberdin bat egiteko asmoa dute, "ahalik eta denbora luzean kanpoan" emateko helburuarekin; eta, itxiera berezi modura, asteburu-pasa joango dira "Gaztainuzketara edo Dorletara..." eguraldiaren arabera. Ekintzak zehaztu ahala joango dira jakinarazten.

Jai-batzordea eratzekeo bigarren deia egin beharko dute

Joan den egubakoitzerako egin zuten deia aurtengo jaiak antolatzen hasteko herritarren batzordea eratzekeo. Deia, baina, ez dio inork erantzun, eta antolatzaileak harrituta daude: "Ez zen jenderik azaldu, eta hori arraro samarra da Gatzagarako, normalean jendea etortzen da eta hala-koetara. Dena dela, orain bestelako lehentasun batzuk badaude herrian, eta erabaki dugu jai-batzordearen eratzea aurreragorako uztea. Ekainaren erdialdean edo egingo dugu beste deialdi bat, eta ea orduan jendea animatzen den", jakinarazi du Iñaki Agirreurreta zinegotziak.

ATLETISMOA

Euskal labeldun herri lasterketan bailarako bost atleta izango dira

Bihar egingo dute Oñatiko XI. Herri Lasterketa, 19:00etan hasita

XABIER URZELAI | OÑATI

Corpusetako egun handiaren bezperan, zapatu honetan atletismo hitzordu handia izango da Oñatin. Aurtengo edizioan, baina, ez ditugu aurreko edizioetan izan ziren Peter Kirui, Chema Martinez, Soi Edwin edota Zersenay Tadesse moduko atletak ikusiko, herri lasterketaren 11. edizioak Euskal Herrian jaiotako atleta onenetakoak batuko ditu-eta (10.000 metroko lasterketa izango da, herriaren erdiguneko zirkuituari zazpi itzuli).

Aipatu moduan, biharko lasterketaren nobedade handiena da korrikalari afrikarren ordezkari lasterketa ere egitea, eta baita maila oneko atletak bilatzeko zailtasunak izan dituztelako.

Aurrekontuak baldintzatuta

Gauzak diren moduan, lasterketako atleten profila aldatu izana ez da antolatzaileek gustuz hartu duten erabakia; egungo egoera ekonomikora moldatu behar izan dute, Europa mailako lasterketan aurre-aurrean dabilzan atleten *cache*-a handia delako eta ezinezkoa delako sasoi bateko



2007ko lasterketan Chema Martinez atleta afrikarren aurretik; madrildarra nagusitu zen urte hartan. | J. ARANTZABAL

aurrekontua izatea. Hain zuzen, motibo horrengatik baztertu behar izan dute emakumezkoen lasterketa ere egitea, eta baita maila oneko atletak bilatzeko zailtasunak izan dituztelako.

Ikuskizuna, berdin-berdin

Baina aipatu zailtasunengatik behera egin beharrean, Antxintxiketanekeo lagunek alternatiba polita bilatu dute; akaso, herritarrek gehiago baloratuko dutelako lasterkari euskaldunen arteko lasterketa bat. Besteak beste,



Antolatzaileak aste barruan egindako aurkezpenarekin. | TXOMIN MADINA

ATLETAK

IZEN-ABIZENA	HERRIA
Martin Berrizbeitia	Aretxabaleta
Gaizka Romero	Arrasate
Artzai Beranoagirre	Basauri
Unai Saenz de la F.	Basauri
Ander Agirre	Bergara
Imanol Cruz	Donostia
Kike Sebastian	Dulantzi
David Garcia	Durango
Iban Rodriguez	Gasteiz
Alberto Alba	Gasteiz
Ivan Fernandez	Gasteiz
Sergio Roman	Hernani
Ibai Alba	Hernani
Jon Lorenzo	Hondarribia
Ruben Lanz	Legazpi
Sergio Gartzia	Oñati
Yeray Varela	Oñati
Jose Antonio Blanco	Ordizia
Tasio Gomez	Zumarraga

Debagoieneko atleta onentsuenak ikusi ahal izango ditugu zein baino zein gehiago, eta horiek animatzera seguru zale gehiago gerturatu direla Oñatira.

Bihar inork ez du erlojua 28 minututan geratuko, ezta urrutetik ere. Baina Sergio Gartzia eta Yeray Varela ikusiko ditugu etxean korritzen, Aretxabaletako Martin Berrizbeitia, Bergarako Ander Agirre, eta Arrasateko Gaizka Romerorekin batera. "Lasterketa herrikoia izango da", alkateak azpimarratu zuen moduan.



GIMNASIA ERRITMIKOA

ARRASATE DRAGOI

Arrasateko dragoiak podiumean

Joan den asteburuan egin zuten Durangon Joko Eskolarren Euskadiko Aerobik Txapelketa, eta Arrasateko Dragoiek infantil eta alebin mailetan izan zuten ordezkariak. Lan oso ona eginda, parte hartu zuten kategoria guztietan podiumera igo ziren arrasatearrak.



SQUASHA

AKE SQUASH

Aurpegi berriak, baina irabazle ezagunak, lagun artekoan

Musakolan egindako lagunarteko Squash Topaketarekin pozik geratu dira AKE Squasheko lagunak: "Parte hartu duen jende kopuruagatik gaude pozik, eta aurpegi berriak ikusi ditugulako. Jokalari berriak gerturatzeko dabilta. Oso maila oneko partiduak izan ziren, eta maila gutxioko jokalariek aukera aparta izan zuten ikasteko". Koadro nagusian Aritz Gordok eta Harriet Arenatzak jokatu zuten finala, eta Arenatzak irabazi zuen. Kontsolazio koadroan Ricardo Vicente izan zen onena.

ZIKLISMOA

Sergio Tejada elite mailako txapeldun Nafarroan

M.B. | ARRASATE

Dorletako Ama txirrindulari eskolakoak zorioneko daude. Kanpazar Harrobia-Bainu Etxe taldeko Sergio Tejadak denboraldiko lehen garaipena lortu berri du Nafarroan. Igantzin jokatuak proban, elite mailako txapela jantzi zuen. 130 kilometroko proba gogorra egin ostean, sailkapen orokorrean 30. lekuan heldu zen Tejada, baina bere mailako azkarrena izan zen, eta txapela jantzi zuen.

Bestalde, Kanpazar Harrobiko beste ordezkari batzuk Markinan egon ziren. Hango emaitzak oso bestelakoak izan ziren: Iker Eskibeak 69. lekuan bukatu zuen proba eta Iñaki Mugartzak, 73.ean.

BTT denboraldia

Amateur mailako txirrindulariez gain, Dorletako Ama taldeko hainbat lagunek BTT denboraldia hasi zuten Pasaian: Iñigo Roldan bigarrena izan zen beteranoetan; Zigor Urain 27.a elite mailan; Mikel Roldan 12.a master 30 mailan; eta Julen Axpe zazpigarrena junior mailan.



Arkaitz Zamakona otxandioarra, helmugara iristen, iazko proban | GOIENA

LASTERKETA

Ibilbide berria eta gazteendako proba Gabez Takarraran lasterketan

Ekainaren 15ean egingo dute, Eskoriatzan; izen-emate epea zabalik dago

MIREIA BIKUÑA | ESKORIATZA

III. Gabez Takarraran lasterketa berrikuntzekin dator aurten. Ekainaren 15ean egingo dute, baina antolatzaileek aurkeztu dituzte berrikuntzak: ibilbide

berria izango du, eta gazteendako lasterketa ere bai. Dagoeneko zabalik dute izena emateko epea. Interesatuak www.herrikrosa.com atarian eman behar dute izena, gazteen edo nagusien las-

terketan parte hartu nahi duten ondo zehaztuta. Federatuek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta federatuta ez daudenek, 25. Gehienez, 300 korrikalari onartuko dituzte helduen proban.

Gazteendako lasterketa

Eguaztenean egin zuten lasterketaren aurkezpena, eta han egon ziren mendiko lasterketako hautatzaile Eneko Aliende eta Oihana Azkorbebeitia eta Alberto Iñurrategi.

Antolatzaileek ibilbide berria aurkeztu zuten: Eskoriatza-Asentzio-Fernando Eskoriatza plaza-Atxorrotz-Leixargarate-Mando Bidea-Fernando Eskoriatza plaza. 23,20 kilometro ditu, eta igoera zein jaitsiera metatuak 1.200 metrokoak.

Era berean, lehen aldiz gazteendako lasterketa egingo dute. Egun berean egingo dute, ekainaren 15ean, baina nagusien hasi baino 10 minutu lehenago. Gazteen probak 9 kilometro izango ditu.

Bestalde, iaz egindako antzera, aurten ere Asentzioko jaitsiera kronometratu egingo dute. 4,26 kilometro jaitsiera da, eta denbora onena egiten duen korrikalariak urdaiazpiko bat irabaziko du.

Frontala edo linterna

Lasterketa gauzez dela kontuan hartuta, ibilbidea zinta, seinale eta argi fluoreszenteekin markatuko dute. Gainera, ibilbidean zehar, bost kilometroan behin seinaleak ipiniko dituzte. 15 kilometrotik aurrera, bi kilometroan behin.

Korrikalariak frontala edo linterna erabili beharko dute korrika egiteko. Proba 23:00etan hasiko dute.



Hainbat ziklista iazko Emakumeen Biran. | EMAKUMEENBIRA.COM

ZIKLISMOA

Emakumeen Birako bigarren etapa ekainaren 7an Aretxabaletan

103,5 kilometroko etapa gurean hasi eta bukatuko da, Udalen eta UDaren elkarlanari esker

M.B. | ARETXABALETA

26. Emakumeen Birak presentzia nabarmena izango du gurean. Ekainaren 7an jokatu den bigarren etapa Aretxabaletan hasi

eta bertan bukatuko da. 103,5 kilometro izango ditu, eta Debagoieneko herri gehienak -Elgeta izan ezik gainerako guztiak- eta mendate esanguratsuenak zehar-

katuko ditu; besteak beste, Udana, Deskarga, Gatzaga eta Arlaban.

Emakumeen nazioarteko txirrindulari lasterketa gurean egongo da UDaren eta Aretxabaletako Udalen elkarlanari esker. Estatuko bi talde eta nazioarteko 16 espero dituzte antolatzaileek.

Udana igo eta Deskarga jaitsi

Debagoienean egingo duten etaparen lehen zatia lau da. Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate, Aretxabaleta, Arrasate, Elorregi, Oñati zatia. Une horretan, 39 kilometroan, Udanako igoera hasiko dute. Handik Legazpira joango dira, eta Deskargatik (55 kilometroa) Bergarara jaitsiko dira. Segituan Eskoriatzaraino joango dira. Gatzagatik igo eta Arlabandik jaitsiko dira Aretxabaletara. Guztira, 103,5 kilometro.

Iurretako taldeak antolatuta

Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkartek antolatzen duen probak lau etapa izango ditu, eta ekainaren 6tik 9ra jokatu dute. Lehen etapa Iurreta-Iurreta izango da. 91,3 kilometro izango ditu eta hirugarren mailako Arritugane igo beharko dute. Hirugarren etapa (ekainak 8) erlojuaren kontrakoa izango da: Orduña-Orduña, 13,4 kilometrokoa. Azkena, ekainaren 9koa, 88,7 kilometro dituen Fruiz eta Gatika artekoa izango da.



Iazko txapelketa. | GOIENA

ERRUGBIA

100 bat jokalarri Arrasateko zazpiko errugbi txapelketan

M.B. | ARRASATE

Bihar, zapatua, jokatu dute Arrasaten 15. nazioarteko zazpiko errugbi txapelketa. Senior mailako zortzi talde lehiatuko dira Mojategin: Arrasate, Durango, Eibar, Bera Bera, Gaztedi, Zarautz, Getxo eta Bizkaiko Federazioa. Talde bakoitzean 12 bat jokalarri espero dituztenez, 100 bat errugbi jokalarri elkartuko dira.

Zazpiko txapelketa 15:00etan hasiko dute, eta asmoa da sari banaketa ekitaldia 21:00etan egitea, Garagardo azokako karpant. Ondoren, parte-hartzaile guztiek elkarrekin afalduko dute.

Lauko bi multzo

Zortzi taldeak lauko bi multzotan banatuko dituzte zozketa bidez, txapelketa hasi aurretik, eta ligaxka modura jokatu dute. Zazpi minutuko bi zatiko partiduak izango dira. Garaipenak eta berdinketak hartuko dituzte aintzat azken sailkapena egiteko. Bonusak ez dira kontuan hartuko.

Multzo bakoitzeko bi talde onenak finalerdietarako sailkatuko dira. Elkarren artean gurutzatuta jokatu dute. Irabazleak finalean elkartuko dira. 10 minutuko bi zatiko partidua izango da, eta zelai osoan jokatu dute.

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!




ADI EGON!

Astelehenean, hilaren 3an, MAIATZEKO SARI hauen guztien IRABAZLEAK izan diren GOIENA KLUBeko bazkideen izenak emango ditugu aditzera. Ehun parte-hartzaile baino gehiago eta honako sariak! Zorte on!

- **NESCAFE Dolce Gusto Melody** kafe-makina.
- **Baserriko produktuz osotutako 4 otarre**, Debagoieneko Baserri Sareari esker!
- **'Mihiluze'** 2 joko ospetsu.
- **'Bértikal'** 5 joko berri gazte zein helduentzako.



DESKONTUAK: www.goienakluba.com



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenean eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KULTURA

Biodantza, 'clown' estiloan

- ▶ Aurea Garcia Florez (biodantza) eta Virginia Imaz ('clown'-a) dira ikastaroko gidariak
- ▶ Ekainaren 7tik ekainaren 9ra egingo dute biodantza-'clown' ikastaro trinkoa Bergaran

AITZIBER ARANBURUZABALA | BERGARA
Biodantza eta *clown*-a elkartuko dituen ikastaroa egingo dute Bergarako San Juan auzoko Aibar baserrian ekainaren 7tik 9ra. 18 orduko ikastaro trinkoa izango da; 220 eurotan, ostatua eta jatorduak barne.

Oihulari Klownek antolatu du eta Aurea Garcia Florezen -biodantzan eskarmentua duena- eta etxeko Virginia Imazen eskutik izango da.

Lau elementuekin jolasean

Aurea Garcia eta Virginia Imazek elkarrekin egiten duten bigarren proposamena da. Festival de Danzas sin Fronteras jaialdian ezagutu zuten elkar; Imazek biodantza aurrez ezagutzen bazuen ere, hasieratik harrapatu zuen Garciairen arteak. Iaz egin zuten lehenengoz biodantza-*clown* ikastaroa. Orduan, animalien espirituaren inguruan egin zuten; eta, sua, lurra, airea eta ura, lau elementuak, oinarri hartuta markatu dute aurtengo gidoia.

Imazen esanetan, "biodantzak adar asko dituen arren, oinarrian proposatzen duena da biodantzaren bitartez dugun espresatzeko potentziala ezagutzea eta indartzea; alaitasuna, kreatibitatea eta horrelakoak azalerazi, baina beste era batean. Hau da, taldean eta modu dibertigarrian". Rolando Torro Txileko psikologo eta antropologoak asmatu zuen orain 50 urte, gutxi gorabehera. Biodantzaren barruan abordatze asko egin daitezkeela gaineratzen du eta *clown*-arekin osagarria dela oso. "Biodantzaren bitartez, jendeak gorputzarekin konektatzen du; hau da, biodantzak beroketa ariketen funtzioa betetzen du, *clown* paperean sartzeko bidea



Aurea Garcia Florez biodantza saio bat egiten. | OIHULARI KLOWN

IKASTAROAREN GAIKOKAK

Iraupena: Ekainaren 7ko 18:00etatik ekainaren 9ko 15:00ak bitartean.

Prezioa: 220 euro; ikastaroa, ostatua eta jatordua barne.

Non: Aibar baserria (San Juan auzoa, Bergara).

Izen ematea: 943769790, 607204503
formacion@oihulariklown.org

erraztuz". Imazek gaineratzen du gorputzaren kontzientzia hartzen dugun gehienetan, minarekin egiten dugula eta oso gutxitan, berriz, plazeragatik. Arlo biak konbinatuz gero, emaitza abe-

ratsagoa dela dio, Aureak proposatzen dituen musika eta ariketekin jendea asko zabaltzen delako. Era berean, ikastaro honek arlo ezberdinetako zaleak elkartzeko bidea ere ematen du. Hala ere, Aibar baserriko proposamena ez diete bakarrik aurrez aipaturiko bi arlo horietan dabilzanein egin gura, aste-buru dibertigarria pasa gura duen edonori baizik.

Iazko ikastaroaren emaitza onak biodantzaren eta *clown*-aren arteko formula bateragarria berriz ere errepikatzen bultzatu ditu antolatzaileak; ekainaren 3a, astelehena, da izena emateko azkeneko eguna. Hauxe izan daiteke, bada, sarritan goraiapatutako barrearen eta dantzaren onurak praktikan jartzeko uea.

VIRGINIA IMAZ | OIHULARI KLOWN

"Asteburu dibertigarri bat gura baduzue, zatozte gure ikastarora"

Eskarmentua du Virginia Imazek *clown* moduan. Biodantza *clown*-arekin lotzen duen ikastaro trinkoa egingo dute euren etxean.

Zein helburu duzue?

Gorputzarekin konektatzea, bate-tik, eta niri dagokidanez, energia hori guztia barrera eramatea. Fun-tsean, ondo pasatzea da guztion helburu nagusia.

Norentzako da proposa?

Askoren ustetan era honetako tailerrak profesionalentzako dira; baina ez da hori egia osoa. Gerturatzeko zaizkigun gehienek, beste lanbide bat dute eta guregana datoz, asteburu dibertigarri baten bila, jolasera, lotsa kentzera... Gaian aritutakoendako zein hasi berriendako ikastaroa egin nahi dugu.

Erlaxatzeko aukera ona.

Bai, horixe; alkoholik edan gabeko mozkorraldi dibertigarria da, azken finean, ikastaroa; jolasteko asteburu bat. Elkarrekin barre egingo dugu, erlaxatu egingo gara, pilak kargatuko ditugu.

Zenbat lagunendako tokia?

Gutxienez, hamar lagun behar ditugu taldea osatzeko, eta gehienez, hamasei lagun.



OIHULARI KLOWN

Zein da ikastaroan jarraituko duzun metodologia?

Oso harreman ona dugunez irakasle biok, unean ikusten dugunaren arabera moldatzen dugu gidoia. Oinarrizko eskema honakoa da: beroketak hasteko, espresio beroketak gero, *clown* inprobisazioak ondoren eta feed-back tar-tea hurrengo, ordurarte eginda-koak aztertzeko. Bion artean eta elkarrekin egiten ditugu saioak.

Zer eraman behar dugu?

Arropa eroso da behar dugun guztia. Jatekoa gure kontu, eta, behar izanez gero, lotarako lekua ere badugu.

Aurea Garcia Florez, Imazen begietatik

Festival de Danzas sin Fronteras jaialdian ezagutu zuten elkar Aurea Garcia eta Virginia Imazek orain urte batzuk, eta hasieratik igarri zuten elkarrekiko *feeling* ona. Imazek emakume oso seduktoretzat eta maitagarritzat definitzen du Garcia, oso xamana dela gaineratuz.

Eskarmentu handia du biodantzan eta horregatik da Imazen esanetan gidari ona; aurretik doala dio. Biodantzako saioetarako musika aukeratzen duen abilezia ere goraiatu du eta bakoitzari behar duena emateko eta, era berean, barruan duena askatzeko duen trebezia ere bai. Pertsona oso berezia dela azpimarratzen du behin eta berriz, bitxikeria moduan kontatuz, Asturiasen bizi dela karakola formako etxe borobil xarmangarrian.



Aurea Garcia. | OIHULARI KLOWN



Iazko Musika Zaparradan parte hartu zuen talde bat, Mitarte kaleko oholtzan. | GOIENA

Euskaraz kantatzea ez dagoela zaharkituta erakutsi gura dute

Dozena bat musika saio Loramendi Elkartearen biharko Musika Zaparradan

A. ARANBURUZABALA | ARETXABALETA
Iazko arrakastaren ondoren, Loramendi Elkarteko sustapen taldeak bigarren egingo du, Euskararen Egunean, herriko musikarien eskutik Musika Zaparrada, bihar, zapatuan.

Mitarte kalean kokatutako oholtzan, askotariko musika emanaldiak izango dira 18:00etatik 22:30era.

Musikaren aitzakian, euskaraz
Musika Zaparrada herriko musikarien askotariko doinuak batu dituen emanaldia da, baina ekimenaren bultzatzaileek jarritako euskaraz kantatzeko baldintza ezaugarritzat duena. Euskarak esparru guztietarako balio duela erakusteko, euskaraz kantatzera gonbidatu dituzte, beraz, musikariak; eta, bide batez, herritarrei, euskara, askotariko musika estiloetan entzuteko aukera dagoela erakutsita.

Ia bost ordu iraungo duen musika maratonia, ordu erdi inguruko dozena bat saio egingo dituzte, Aretxabaletan sortutako musika eskaintza zabalaren erakusle. Trikiti, txistu, gaita eta musika tresna elektrikoekin jotako kantuez gain, izango dira herriko abesbatzak kantatutakoak eta baita poesiarekin nahastutakoak ere errepertorioan. Bakarka jardungo dute batzuek; bikoteka zein taldeka besteek.

Musika eskaintza zabala bada ere, hauxe da partaideen profila: herrikoak dira gehienak, nahiz eta ingurukoak ere badauden; adinari dagokionez ere, askotarikoak.

Sustapen taldekoak, horregatik guztiagatik, gustura eta esker onez dira ekimenean parte hartuko duten guztiek erakutsitako ilusioagatik eta ekimena aurrera eramateko izan duten lanerako gogoagatik.

ZAPARRADAKO TALDEAK

18:00 Triki taldea.

18:20 Txistulariak.

18:40 Lide eta Lur.

19:00 Aretxabaleto Gaiteroak.

19:30 Aretxabaleto Abesbatza.

20:10 Iñaki Sagasta.

20:30 Beñat Ganboa eta Julene Otegi.

20:50 Bea Asurmendi.

21:10 Zast.

21:30 Forbidden Life.

21:50 Auzo ezezaguna.

22:10 Ikara.

Afrika gertuago sentitzeko jardunaldia Gandiagan

Ekainaren 8ko jardunaldia doan eta zabala den arren, aurrez izena ematea eskatu dute

A. A. | OÑATI

Arantzazu, Afrikarekiko topalekua jardunaldia proposatu dute Tau Fundazioak, Frantziakotarren Garapenerako GKEk eta Arantzazuko Adiskideak elkarteak; ekainaren 8an izango da, doan, Gandiaga Topagunean.

Afrika gerturazteko helburuarekin, zine-foruma, antzerki eta musika ikuskizuna, artisautza erakusketa eta hitzaldiak antolatu dituzte publiko zabalarentzat (haurrentzako izan ezik).

Bertatik bertara

Afrikaren errealitatea bertatik bertara ezagutarazi nahi izan dute. Hainbat sari dituzten Burkina Fason errodatutako *Yvette* film laburra eta Ugandan egindako *Imani* luzea erakutsiko dituzte. Horren ostera, Agnes Kanya *Iman* filmaren gidoilari afrikarrarekin mahai-ingurua prestatu dute.

Bada, aurrez izena eman behar da, 943 28 99 56 telefono zenbakian edo tau_ss@taufundazioa.org helbidean. Eta bazkarirako azkeneko eguna ekainaren 3a da.

JARDUNALDIETAKO EGITARAUA

KULTURA ETXEA (OÑATI)

Ekainaren 3tik 15era
%100 Afrika Beltza erakusketa.

Ekainaren 6an, 19:00etan
Afrikako artisautza egun: aintzinako artea e(do)ta diru-iturria hitzaldia.

GANDIAGA TOPAGUNEA

10:30-13:00 Zine-foruma.

13:30 Bazkaria.

16:30-18:00 Ikuskizuna.

ESANAK

"Afrikako emakumeen begietatik ikusiko dugu"

IÑIGO ODRIOZOLA | TAU FUNDAZIOA



Aurreko edizioan egin zuten dantza afrikarren erakustaldia. | TAU FUNDAZIOA

Itziar Ugarte | Ikaslea

"Prosako lana idazten esperimentatzen jardun dut, jolasten ibili naiz gustura"

Hirugarrenez eskuratu du Ugartek saria Urruzuno lehiaketan; oraingoan, poesian eta prosan ere bai

A. A. | OÑATI

Itziar Ugartek, Oñatiko Txantxi-ku ikastolako batxilergoko 2. mailako ikaslea, hirugarren aldiz irabazi du Urruzuno saria.

Zorionak! Oraingoan, poesiaz gainera, prosan ere bai.

Iaz saiatu nintzen, baina ez zitzaidan gustuko ezer atera. Oraingoa

esperimentazioa izan da. Jolasten ibili naiz.

Azal egiguzu bakoitza.

Prosa ataleko *Eulegunetako sugandila* zaila da azaltzen, interpretaziorako malgutasun handiarekin jolastu dut, eta harrিতuta eta pozik nago zenbat irakurketa ezberdin egin dituzten irakurri



Itziar Ugarte oñatiarra. | A. A.

dutenek. *Katebegiak* idazterakoan, argiago neukan zer nahi nuen. Hala ere, zaila da azaltzen, norberaren askatasunaren inguruan, nolabait laburtzearren.

Sarritan idazteko ohitura duzu?

Ez dut egunero idazten. Momentuak ditut; batzuetan gogoia daukat, baina beste batzuetan ez.

Lasai hartzen dut, ez dut diziplinarik jarraitzen. Batzuetan behar nezake nire burua lanen bat aurreratzeagatik, baina ez beti.

Eskuz ala ordenagailuz?

Denetik; koaderno pila bat ditudu, apunteetan ere bai, orri solteetan, ordenagailuan... Idatzi behar dudaren arabera baino gehiago, idazten nagoen momentuaren arabera aukeratzen dut.

Gustuko idazle bat?

Ingurukoek esaten dute Joseba Sarrionandia dudala gustukuen; egia da asko irakurri dudala, baina zaila zait bakarra aukeratzea. Min ematen didan arren, aitortu egin behar dut emakumeek idatzitako literatura askorik ez dudala irakurri.

Saria ez dugu aipatu: lehen, bidaia bat izaten zen; orain, berriz, egonaldi literario bat. Ez da gutxi!

Bai; biak probatu ditut eta biak dira oso onak. Lehenengo urtean, Britainian eta Frantziara zehar bidaiatu nuen eta iaz, berriz, murrizketak medio, egonaldi literario baten izan nintzen. Lau eguneko egonaldian, goizetan Yolanda Arrieta idazlearekin sorkuntza tailerra egiten genuen eta gero, arratsaldeetan, beste hainbat saio hitzaldi edo beste hartu-eman batzuk idazleekin. Oso gustura egon nintzen. Aurtengo egitaraua oraindik ez daki. Elgoibarko Aubixa aterpetxean izango da, irailean.

Animatuko zenuke Urruzuno lehiaketan parte hartzera?

Bai, bai; duda barik. Akaso, batzuetan aurreko saria erakargarria izango zen, baina zure zaletasuna beste batzuekin konpartitzea ere ikaragarria da! Oso lagun onak egin ditut.

Ezkutuko altxorraren bila joango dira bihar Koruetara

Santiago elizaren erretaula ezagutzeko bisita gidatua bihar 17:00etan

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETA

Ezkutuko altxorrak aurkitzeko ez da urrutira joan behar. Gordeta dauden harri bitxi horiek edonoren begi-bistara egon daitezke, gainera. Haien historia ezagutzeak mundu berri bat irekitzen laguntzen du, eta Debagoienean ere badaude horrelako aukerak eskaintzen dituztenak ere.

Ignaziotar Lurralde deiturikoa Gipuzkoako hiru eskualdetako –Debagoiena, Urola Erdia eta Urola Garaia – garapen turistikorako proiektu komuna da eta toki ezberdin eta bitxiak ezagutzeko aukera ematen die herriarrei.

"Normalean bisita gidatuak egiten ez diren lekuak hautatu eta bisitaldia egiten da aditu batekin". Hala azaldu du Ana Heriz Debagoieneko Mankomunitateko Turismo teknikariak.

Bihar Aretxabaletan

Aurten eman diete hasiera Ezkutuko Altxorrak deituriko bisita gidatuei. "XVI. mendea ardatz hartuta hiru eskualdeetan bisitak egiten dira. Proiektu pilotua da, eta, momentuz, jendeak ongi erantzun du. Ekainaren 23an amaituko da, eta orduan balorazioa egingo dugu. Gure asmoa antzerako ekintzekin jarraitzea litzateke".

Bihar Aretxabaletako Koruetan auzoan egingo dute bisitaldia, 17:00etan hasita. Santiago eliza ezagutzeko zertzeladak emango ditu Arantza Otadui arrasatearrak; Historian aditua da Otadui, eta harekin batera erretaularen nondik norakoak ezagutzeko aukera egongo da.

"Bisitan gai ezberdinez egingo dut berba. Santiago bidea kokatzen hasten naiz. Ondoren,



Santiago elizako erretaularen xehetasuna. | DEBAGOIENENKO TURISMOA

erretaulan zentratuta, ikonografikoki dituen berezitasunez egiten dut berba. Izan ere, ez da oso ohikoa Santiago apostoluari osotasunean eskainitako erretaularik aurkitzea eta horrek berezia egiten du".

Otadui, gainera, XVI. mendeko eskulturgintza tailerretan sakontzen du, haien garrantzia bisita gidatuan parte hartzeran animatzen direnei azalduz.

Debagoieneko azken bisitak

Mankomunitateko Turismo teknikariak azaldu bezala, Inaziotar Lurraldetik egingo duten azken bisita ekainaren 23an izango da. Debagoienari dagokionez, Arrasateko Garagartzako San Migel elizako erretaula bisitatu dute ekainaren 8an, 17:00etan. Hurrengo egunean, hilak 9, Leintz Gatzagako Gatz Museoa izango dute jomugan, 12:00etan.

Ibarreko azken bisita berezia, berriz, Antzuolan kokatuko da: Antiguako ermita eta herriaren erdigunea ezagutzeko aukera egongo da ekainaren 16an, 12:00etan hasita.

ESANAK

"Koruetako erretaula oso berezia eta bakarrenetakoa da bere ikonografiari dagokionez"

ARANTZA OTADUI | BISITA GIDARIA

Debagoiendar ugari Iron Maidenen bira hasieran

BECen eman zioten hasiera Maiden England birari astelehenean Iron Maidenekoek. Ibarreko lagun ugari bertaratu ziren ingeles kanu mitikoekin –*Can I play with Madness, The Prisoner* zein *Fear of the Dark* kasu– gozatu eta burua astintzera: Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza edo argazkikoak kasu, Oñatitik, esate baterako.



Z.V.D.M.

Trastada taldearen umore gazi-goza gaur gauean Zaraiaran

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Zaraiara aretoan *Un loco de desatar (o Las paradojas del cósmico)* antzezlan ikusteko aukera egongo da gaur, 22:00etan hasita.

Eibartik Aretxabaletara

Eibarren sukaldatutako antzezlan da gaur gauean Aretxabaletan eskainiko dutena. Sardo Irrisarri aktore eibartarra herrikide duen Rosa Martinez-Alcocerrek zuzendutako obraren pertsonaia nagusiaren, paperean sartzen da. Irrisarri, eromenaren eta zentzutasunaren artean mugitzen den istorioa kontatuko die Zaraiara bertaraten diren guztiei.

Umorezko saioa

Trastada Teatro taldearen eskutik iritsiko da umore gazi-gozodun emanaldia Zaraiara. Izan ere, pertsonaia berezi baten abentura eta zoritxarrak biziko dituzte bertaraten diren ikusleek.

Pertsonaia nagusia, El Cómic izeneko gizona da; 20 urte daramatza psikiatriko batetan eta egun batetan alta ematen diote. Une gogorak biziko ditu orduan, izan ere, ezazaguna zaion jendartera irteerak beldurra ematen dion arren, indartsu egiten dio aurre egoera berriari. Drama ukitua izan arren, umorez kontatutako istorioa ikusteko aukera.

Oraindik erosi daitezke Leo Harlemen emanaldirako sarrerak

Z.V.D.M. | ARRASATE

Barneak husteko modu aproposa izaten da barre egitea eta komikoen lanak asko errazten du aurpegiko giharrak funtzionamenduan ipintzean.

Hala, terapian laguntzeko eta une atsegina pasarazteko lanetan hutsik egingo ez duen aurpegi ezagun batek bisitatu du Arrasate ekainaren 29an. Leo Harlem umorista ekainaren 29an Arrasateko Amaia antzokian izango da bere azken ikuskizunarekin publikoari algarra ateratzen.

Hain zuzen ere, Madrilen maiatzean aurkeztu zuen *¿Qué*

hay de nuevo? lan berria ekarriko du Arrasatera. Harlem, baina, ez da bakarrik egongo, umorean aditua den Sergio Olalla edukiko baitu alboan.

Sarrerak 24 eurotan

Nahiz eta sarrerak apiril amaieran ipini zituzten salgai, oraindik ere dezente geratzen direla adierazi dute.

Prezio bakarra zehaztu duten Harlem eta Olallaren ikuskizunerako, 24 euro. Gura dutenek Internet bitartez eros ditzakete sarrerak, <http://www.kutxasarrerak.net> atarian.



IX. XABIER ORTIZ DE LUZURIAGA
Legazpi (Hegialde)
Ekainak 2 Junio

Inskripzioa: 08:00-09:00 (10€)
 Omenaldia: 09:00
 Irteera: Jarraian
 Hornidura: Brinkola / Korosti / Hegialde
 Ibilbidea: 36 km

- Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen frogan sortzen diren kalteak.
 - Opariak, duxak eta mangleak egongo dira.
 - Kaskoaren erabilera derrigorrezkoa izango da.



Xabier Ortiz BTT

Antolatzailea:



























Jon Barrenetxea | Bioteknologiako ikaslea

Jon Barrenetxea, Alemanian lan egiten duen laborategian.

"Orain mundua ezagutzea tokatzen zait, etxera bueltatzeko denbora izango dut etorkizunean"

ANDER LARRAÑAGA | ARETXABALETA
Jon Barrenetxeak (Aretxabaleta, 1991) gradu amaierako proiektua egiten dihardu Alemanian: arreta urritasun eta hiperaktibitate nahaste gaitzean oinarri genetikoko aztertzen dabil laborategi batean. Ez da geldirik egoten den gaztea aretxabaletarra, ikasketen lehen hiru urteak Salamancan egin baititu eta praktikak Malagan; eta, horrez gain, munduan zehar ibilitakoa ere bada. **Zertan datza Alemanian egiten ari zaren proiektua?**

Orain, gaitz psikiatriko anitzetan zerikusia daukan genea aztertzen ari gara, Cdh-13 delakoa. Duela bost bat urte, arreta urritasun eta hiperaktibitate gaitza zeukaten gaixoen artean ikerkuntza bat egin zen eta gene

hori gaixoetan *nolabait eraldatuta* dagoela frogatu zuten laborategi horretako kideek. Azterketa guztiak burutzeko *gizakilaginak* erabiltzea ezinezkoa denez, animaliak erabiltzen dira eredu gisa esperimenduarentarako. Nire lana, laborategi horretan, gene horren espresioa arratoburmuin *osasuntsu* eta *gaixoetan* aztertzea da, alde batetik, genea burmuinaren zein ataletan *adierazten* den jakiteko (zein atal kaltetuak diren ikusteko), eta bestetik, gene horren galerak arratoi gaixoetan eragiten dituen aldaketa morfologikoak ikertzeko (arratoi osasuntsu eta gaixoen konparatuz).

Zer desberdintasun dago hemen eta Alemanian, laborategi batean, lan egitearen artean?

Ez ditut Euskal Herriko laborategiak ezagutzen, eta gradua amaitu ez dudanez ez daukat erreferentzia askorik Espainiako laborategien artean. Orain arte, Salamancan eta Malagan ikusi izan dudana, desberdintasun nagusia zientziara eta ikerkuntzara bideratzen den diru publikoaren kudeaketa dagoela esango nuke. Zoritxarrez Espainian kudeaketa hori politikarien esku dagoenez, diru larregi xahutzen da ekipamendu moderno eta eraikin handietan, baina ez makina eta eraikin horiek erabiliko dituzten ikerlarietan. Horren ondorioa gaur egun zera da, ez daudela makina horiek guztiak erabiliko dituzten adina ikerzaile; erabiltzen ez den ekipamendu asko erosten da eta gero makina horien

guztien mantenua ordaindu behar da, erabiltzen ez den arren. Alemanian, bestalde, ikerlari eta pertsona kualifikatuetan inbertitzen da lehenago, eta hortik aurrera, azpiegitura guztietan. Horrez gain, unibertsitatea Alemanian zentzu praktikoagora bideratuta dago. Garrantzitsuena ez da zenbat jakin ahal duzun, baizik eta jakintza horrekin guztiarekin zein proiektu-idea aterahal ditzakezun aurrera. Espainian, bestetik, teoria gehiegi ikasi eta, gainera, praktika gutxi egiten direla uste dut.

Zergatik jo duzu beti Euskal Herri-kanpora?

Orain gaztea naizela ez banaiz apur bat mugitzen, noiz? Garrantzitsua da sustraiak mantentzea, nondik zatozen jakitea eta beste leku batzuk ezagutzea objektiboki epaitzeko zer hobe daitekeen adibide onenak kontuan hartuta. Kanpoan ikasteak bakoitzaren

kultura eta hizkuntza estimatzen laguntzen du; batzuetan, etxetik urrun egoteak duguna baloratzen erakusten digu.

Bertako ohiturak oso ezberdinak dira? Non gusturago?

Jendea ez da horren irekia (nahiz eta ezagutu ondoren oso atseginak izan), otorduak ez daude finkak eta klima ez du batere atsegin. Baina etorkizun txikia dago nirea bezalako profiltzako Espainian, gauzak apur bat baretu arte zurreragoa zait atzerrian urte batzuk pasatzea, nire ikasketetarako, gutxienez.

Etorkizunean ere, Euskal Herri-kanpo ikusten duzu zure burua?

Lagunak, familia eta eguraldia asko igartzen dut faltan. Baina Euskal Herrian lan mundua nola dagoen ikusita, momentuz ez naiz bueltatuko. Bada, orain, mundua ezagutzea tokatzen zait, eta etxera bueltatzeko denbora izango dut.

PERTSONALA

Janari gustukoena: Aitak etxean egindako pizza.

Ahaztuko ez duzun bidaia: Sidney.

Musika talde bat: REM.

Liburu bat: David Monteagudoren *Fin*.

Pelikula bat: *Paprika*.

Bizi izateko leku bat: Pozik biziz gero, edozein leku.

Erronka bat: Urte honen bukaerarako alemaniarrekin alemanez berba egin ahal izatea.

Zaletasun bat: Bidaiatzea.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Aukera ona. Gantza- ga auzoan etxebizitza bakarra salgai. 2.000 urtean eraikia. 8000 metroko lursailarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 94 81 31

Arrasate. Erdigunean kokatuta eta egoera oso onean. 55 metro koadro. Bi logela, egongela, sukaldia eta komuna. Igogailuarekin. 155.600 euro. 943 79 1279 edo 696 55 53 67

Oñati. Duplexa salgai. Berria. Urte bat baino gutxiago dauka. Lau logela eta hiru komun. Beheko solairua jantzita dago. Erdigunetik oso gertu. Deitu telefono honetara: 656 74 29 49

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. 2013-2014 ikasturterako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Unibertsitateko oso gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605 77 51 71

Arrasate. Ikasleendako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Erquin 7an. Egongela ere badu. Laugarren solairua, igogailuarekin. Berokuntza indibidualarekin. 676 85 45 36 edo 943 79 83 48

Elgeta. Etxebizitza errentan ematen da Elgetako Salbador kalean. bi logela, sukaldia eta egongela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 23 10 19

Peñiscola. San Juanetarako edo oporretarako apartamentua ematen da errentan. Lau pertsonarentako modukoa. Hondartzatik bi minutura. Guztiz jantzita. Aparkalekuarekin. Igerilekua eta igogailua dauka. Interesatuok deitu 670 66 64 13 telefono zenbakira.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Alokairuan hartzeko etxe bila nabil. 400 eurotik behera. 622 94 19 12

Bergara. Hiru logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. 654 24 13 27

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

Bergara. Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 225 euro dena barne. Wifiarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 85 86 68

Oñati. Etxea osatzeko jendea behar da. Iikasleak ere izan daitezke. Duplexa. Goiko solairuko bi logelak bete nahi dira. Komuna goiko pisuan. Sukaldia eta egongelak konpartitzeko. Plazatik hiru minutura. 656 74 29 49

Oñati. Pisua osatzeko pertsona bat beharko genuke. Langilea izatea gustatuko litzaiguke. Deitu 653 74 87 51 zenbakira 20:00etatik aurrera.

106. BESTELAKOAK

Trukea. Oletan dagoen etxea, lursailarekin, trukatu genuke Arrasateko etxebizitza batekin. Deitu 645 73 82 31 edo 648 06 65 24 zenbakietara.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Santa Kurtz 24an garaje itxia salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655 71 37 84

Deba. Garajea salgai Debako hondartzan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 20 37 75

Elgeta. Salbador 21ean garajea salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 23 10 19

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garajea errentan ematen da Mitarte kalean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628 56 24 13

Bergara. Garaje itxia, 18-20 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 76 06 60

204. ERRENTAN HARTU

Garaje itxia. Garaje itxia alokatuko nuke Kalegoienan. Gehienez 60 euro ordainduko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 71 04 56

4. LANA

402. ESKAERA

Arrasate eta Aretxabaleta. Haur Hezkuntza ikasketak aurten bukatuko dituen neska euskalduna ekainean eta uztailean umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 87 12 97

Arrasate. 54 urteko emakumea lanerako gertu, pertsona nagusiak zaintzeko, umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 60 89

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxalana eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 54 17 27

Bergara. Haur Hezkuntzako ikasketak dituen neska euskaldun arduratsua uztailean umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 76 29 25

Bergara eta inguruak. Pertsona nagusiak zaintzen eta etxeko garbiketarako egiten esperientzia duen emakume arduratsua naiz, eta Bergara edota inguruko herrietan lan egingo nuke astean zehar zein asteburuetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 65 69 65

Bergara. Emakume arduratsua, euskalduna, umeak zaintzeko gertu. Puerikultura tituladuna. Arantza. 688 65 30 62

Bergara. Haur hezkuntza ikasketak egiten ari den neska euskalduna ekainean eta uztailean haurrak zaintzeko prest. 618 43 60 35 edo 943 76 32 27

Bergara. Neska lan egiteko gertu, garbitasun lanak: etxeak, tabernak eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 622 94 19 12

Debagoiena. Adin nagusikoak zaindu, egunez zein gauzez eta etxeko lanak egiten ditut. Orduka edo lanaldi osoan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 727 74 42 36

Debagoiena. Begirale bezala esperientzia duen gazte euskalduna umak zaintzeko gertu ekain, uztaile eta abuztuko lehen hamar egunetan. Jon Ander. 660 00 79 17

Debagoiena. Denetari garbitasunak egingo nituzke, urtetan horretan aritutakoa bainaz. Umak zaintzen ere esperientzia daukat. Ez nuke aseguruirik behar izango. Deitu 647 10 58 72 telefonora.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoiena. Emakume espainiarra lanerako gertu garbitasun lanetan zein nagusien eta umeen zaintzan jarduteko. Baita etxean bertan bizi izaten edo gauak egiteko ere. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono honetara: 722 32 43 67

Debagoiena. Emakume euskalduna lanerako gertu. Eskarmentua daukat lanetan, denda, nagusi zein umeak zaindu eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 50 25 67

Debagoiena. Eritzaintza tituladuna neska lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasun lanetan, gauak ospitalean egiten eta abar. Autoa daukat. Debagoienetik kanpo ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu 688 80 27 01 edo 943 25 02 96 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu: nagusiak etxean bizi izaten edo bestela zaintzen, atari, taberna eta abarrak garbitzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki 671 10 39 13

Debagoiena. Emakumea orduka lan egiteko gertu, nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiten. Maite. 943 76 48 26 edo 650 17 74 87

Debagoiena. Garbitasuna lanetan, erakuntzan, banaketak egiten edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Nortasun agiria legeztatuta daukat. Deitu telefono honetara: 682 51 83 70

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketarako orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. : 695 73 87 95

Debagoiena. Gizonezkoa lan bila: garbiketarako, tabernatan, banaketan eta abar. Deitu telefono honetara: 679 60 08 48

Debagoiena. Mutil boliviarra pertsona nagusiak zaintzeko prest. Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egin. Carlos. Interesatuok deitu 631 36 17 62 telefono zenbakira.

Debagoiena. Mutila edozein motatako lanak egiteko prest Debagoiena osoa. Deitu telefono zenbaki hauetara: 602 87 46 25 edo 605 44 61 98.

Debagoiena. Gizonezkoa lanerako gertu. Tabernari zein garbitasun lanetan jardungo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Mutil senegaldarra garbiketa lanak egiteko prest Bergara eta inguruetan. Interesatuok deitu telefono honetara: 626 78 33 80

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: nagusiak zaindu, garbitasun lanak eta abar Debagoiena osoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 943 53 35 82 edo 691 72 67 38

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Oinarritzko sukaldaritzaren eta geriatriaren ikasketaduna. Etxe, atari, taberna eta bestelako garbiketarako egingo nituzke eta baita nagusiak zaindu ere. Etxean bertan bizi izaten edo egun osoz zein orduka. Interesatuok deitu telefono honetara: 615 06 28 04

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu Debagoiena osoa: nagusiak edo umeak zaindu eta sukalde zein garbitasun lanetan. Interesatuok deitu telefono honetara: 688 68 12 79

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu Debagoiena osoa: nagusiak zaindu zein garbiketarako egiten. Orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 80 77 73

Debagoiena. Neska eskarmentuduna lanerako gertu: garbitasunak edo ume zein nagusiak zaintzen. Legezko paperak eta autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 87 38 66

Debagoiena. Neska garbitasun lanak egiteko gertu. Orduka edo arratsaldean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 70 71 25

Debagoiena. Nagusi edo umeak zainduko nituzke, baita

etxean bizi izaten ere. Garbitasunean, tabernatan edo sukaldetan ere lan egin dezaket. Gidabaimena eta autoa daukat. 697 20 00 86

Debagoiena. Neska lan bila dabil Debagoienan. Garbiketa lanak egingo nituzke: atarteak, etxeak, elkarrekin eta tabarnak, baita nagusiak zaindu ere. Sukaldean esperientzia daukat eta kotxeko karneta. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 36 39 92

Debagoiena. Mutila agertu lanerako: garbitasun lanak edo nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 661 94 19 13

Debagoiena. Ume eta nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan, tabernatan, sukaldetan... lan egingo nuke Debagoiena osoa. Etxean bertan bizi izateko ere gertu nago. Gidabaimena eta autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 87 38 66

Debagoiena. Neska lanerako gertu etxe lanetan, garbitasunetan, etxean bizi izaten, orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 46 90 51

Debagoiena. Neska lanerako prest. Erizaintza laguntzaile ikasketak ditu. Ospitalean gaua pasatzeko zein nagusiak zaintzeko orduka. Tabernan lan egiteko, umeak zaintzeko edo denda lan egiteko ere prest. Autoa dauka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 647 20 59 43

Debagoiena. Nikaraguako mutila lanerako gertu Debagoiena osoan. Zaintzak egingo nituzke baitxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita base- rrietan ere. Esperientziaduna. 631 45 60 53

Debagoiena. Nikaraguako mutila lanerako gertu Debagoiena osoan. Zaintzak egingo nituzke baitxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita base- rrietan ere. Esperientziaduna. 633 28 81 24

Debagoiena. Paperak dituen pertsona lanerako gertu: garbiketa edo pertsona nagusiak zaintzen. Debagoiena osoan. 672 96 08 22

Debagoiena. Udan umeak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen neska euskalduna naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 70 85 52

Oñati. Lehen Hezkuntzako ikasle euskalduna haurrak zaintzeko prest ekain, uztaile eta abuztuan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 77 87 65

Udan umeak zaindu. Neska euskalduna udan umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620 95 46 11

Zerbitzari. 17 urteko mutila zerbitzari moduan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 625 83 84 13 edo 679 38 39 54

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkumeak. Auri bi hilabete egingo dituzten txakurkume mestizoak ematen ditut opari. Inigo. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 92 00 86

Txakurkumeak opari. Brako eta ardi txakur nahasketa. Astebete daukate. Beltz kolorekoak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637 90 57 15

8. DENETARIK

802. EROSI

DVD irakurgailu eramangarria. Bi pantailadun DVD irakurgailu eramangarria erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono honetara: 665 75 64 38

Klarineta. Bigarren eskuko klarineta erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 84 10 82

Samsung Galaxy SII-SIII. Bigarren eskuko Samsung Galaxy SII-SIII edo antzerako mugikorra erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 647 31 64 41

804. HARTU

Sofa zaharrak hartzen dira. Sofa zaharrak hartzeaz arduratzen gara. Etxetatik hartu eta ondoren bere berrerabilpenaz edo birziklatzeaz arduratzen gara. Zerbitzu guztiz doakoa da. 671 92 06 49

805. TRUKATU

Lursailak. Hiru zaldirentzako Arrasate-Eskoriatza inguruan lursailen bila nabil. Trukean, lursailen mantenua eta garbiketa egingo nuke. Sastrak kentzeko makina daukat. 697 41 66 24

806. GALDU

Aretxabaletan erlojua galdu. Larunbat arratsaldean Iturrigorri frontoi inguruan edota Durana kalean mutikoaren erloju digital beltz bat galdu nuen. Aurkitu baduzu deitu: 679 86 67 38 edo 943 25 05 44

Eratzuna Arrasaten. Zapatuan, maiatzaren 11n, eratzuna galdu nuen Forum Sport denda. Goizean. Eratzun handia da, anbar kolorekoa eta harri bat dauka. 628 77 58 28

Erlojua Arrasaten. Jose Luis Inarra kaletik Zerrajerako Eroskera bidean, Maala erabiletik pasatuta, erlojua galdu da. Zilar kolorekoa, kate-mailaduna, laukizuzen formaduna. Aurkitu baduzu deitu: 943 79 38 29

HTC telefono mugikorra. Larunbat iluntzean edo gauean, apirilak 27, HTC markako telefono mugikorra galdu nuen Bergaran edo Antzuolan. Zuria da. Mesedez, aurkitu duenak dei diezadala. 695 95 07 24

Poltsikokoa. Poltsikoko telefonoa galdu dut. HTC One X. Funda arrosa batean. Ozaetan. Aurkitu baduzu 50 euro emango ditut. Eskerrik asko. Deitu 672 25 74 26 telefono zenbakira.

Patinetea Bergaran. Joan zen maiatzaren 11n, larunbata, Oxelo patinete beltza eta gurpil urdinak zeukana galdu genuen. Aurkitu baduzu mesedez deitu: 637 00 01 58

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Euskara-Frantsesa. Nik zuri euskara erakutsiko nituzke eta zuk niri frantsesa. Arrasaten. Elkartu eta mintzatzea litzateke asmoa. 685 76 59 73

Hizkuntza elkartrukea. Belgikako ikaslea naiz eta hizkuntza elkartrukea egiteko jende bila nabil Arrasaten. Nik gaztelania ikasi nahi dut eta holandera, frantses eta italiaraz egiten dut, maila ezberdinetan bada ere. Gaztelaniaz mailaertaina daukat. Idatzi mezu bat: Vandekerkhofniels@hotmail.com. (+32) 476 02 22 52

Antzuolako Udala

KALE GARBITZAILEEN LAN POLTSA

Lekua: Antzuolako Udaletxea (08:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera)

Kontratu mota: Laborala, lanaldi erdikoa.

Kontratuaren iraupena: Aldi baterako beharrak betetzeko.

Oinarriak kontsultatzeko: Antzuolako Udaletxean

Antzuolako webgunean: www.antzuola.com

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (101 Zbk. 2013-05-29)

Izena emateko epea: 15 egun balioduneko epea Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

ASTEAGOIENAN



GOIENA

Corpusetako prozesioa

Domekan Oñatiko kaleetan zehar egingo den Corpus jaietako prozesioa ikusi ahal izango duzue asteleheneko *Magazinea* saioan. Irudiez gain, protagonisten eta herritarren adierazpenak ere jasoko ditugu tarte horretan, Goiena telebistan.

'Magazinea' Astelehena, 20:15



JULEN IRIONDO

'Pedalka' saioaren beste atal bat ikusgai

Julen Iriondo kazetariak Alpeetan barrena bizikletaz egindako bidaiaren beste atal bat ikusi ahal izango duzue eguenean. Briançon Europako bigarren hiri garaienean izango da egueneko saioan, eta baita Izoard mendatean ere. Ez hutsik egin!

'Pedalka' Eguena, 21:50

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 31	ZAPATUA, 1	DOMEKA, 2	ASTELEHENA, 3	MARTITZENA, 4	EGUAZTENA, 5	EGUENA, 6
12:00 Planik bai?	10:00 Beranduegi.tv	10:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea
12:20 Magazinea	10:25 Magazinea	11:00 Zorion Agurrak	13:00 Ekogune	12:45 Gurean gaur	12:45 Gurean gaur	12:45 Gurean gaur
13:05 Gurean Gaur	11:25 Ikusmira	11:05 Huhezinema	13:30 Zorion Agurrak	13:15 Zorion Agurrak	13:18 Harmailatik	13:10 Huhezinema
13:30 Oñein: Patata txalupa	11:40 Klaketa	11:35 Oñein	13:36 Pedalka	13:22 Harmailatik	14:03 Pedalka	13:40 Jaiak: Loinaz jaiak
14:10 Pedalka	12:20 Oñein	12:03 AZK2012	14:06 AsteON	14:07 Ekogune	14:38 Zorion Agurrak	14:10 Oñein
14:40 Zorion agurrak	12:48 Berriak	13:03 Atik Zra	14:45 Berriak	14:40 Zorion Agurrak	14:45 Berriak	14:42 Zorion Agurrak
14:45 Berriak	13:03 AsteON	14:09 Oñein	15:15 Eguraldia	14:45 Berriak	15:10 Eguraldia	14:45 Berriak
15:10 Eguraldia	14:03 Magazinea	15:34 AsteON	15:18 Zorion Agurrak	15:10 Eguraldia	15:13 Klaketa	15:10 Eguraldia
15:13 Planik bai?	15:03 Zorion Agurrak	16:09 Zorion Agurrak	15:23 AZK2012	15:13 Harmailatik	15:53 Oñein	15:13 Erreportajea
15:33 AZK2012	15:08 Oñein	16:14 Erreportajea	16:23 Pedalka	15:53 Oñein	16:18 Harmailatik	15:58 AZK2012
16:03 Ikusi irratia: Olarius&Brothers	15:33 Pedalka	16:59 Pedalka	16:53 Zorion Agurrak	16:48 Zorion Agurrak	17:06 Huhezinema	16:28 Berriak
16:43 Beranduegi.tv	15:53 Harmailatik	17:14 Zorion Agurrak	16:58 Berriak	16:53 Berriak	17:36 Zorion Agurrak	16:53 Eguraldia
17:13 Zorion agurrak	16:20 Altxorren bila	17:19 AZK2012	17:28 Eguraldia	17:18 Eguraldia	17:41 Berriak	16:56 Oñein
17:19 Planik bai?	16:52 Oñein	17:49 Beranduegi.tv	17:31 Oñein	17:21 AZK2012	18:06 Eguraldia	17:21 Planik bai?
17:39 Berriak	17:14 Zorion Agurrak	18:13 Klaketa	18:03 Berbetan	17:51 Altxorren bila	18:08 Erreportajea	17:41 Atik Zra
18:04 Eguraldia	17:19 AZK2012	18:53 Ikusmira	18:41 Erreportajea	18:23 Ikusmira	18:53 Berbetan	18:47 Huhezinema
18:07 Planik bai?	18:28 Magazinea	19:08 Magazinea	19:24 Beranduegi.tv	18:38 Beranduegi.tv	19:31 Ikusmira	19:17 Zorion Agurrak
18:27 Altxorren bila	19:28 Planik bai?	20:08 Berriak	19:49 Berriak	19:00 Harmailatik	19:45 Zorion Agurrak	19:22 Planik bai?
18:59 Zorion agurrak	19:48 Berriak	20:23 Zorion Agurrak	20:13 Eguraldia	19:45 Zorion Agurrak	19:49 Berriak	19:42 Zorion Agurrak
19:05 28 Klip	20:03 28 Klip	20:58 Magazinea	20:15 Magazinea	19:50 Berriak	20:14 Eguraldia	19:47 Berriak
19:37 Beranduegi.tv	20:35 AsteON	21:58 Klaketa	21:00 Gurean gaur	20:15 Eguraldia	20:17 Magazinea	20:12 Eguraldia
20:02 Zorion agurrak	21:11 Beranduegi.tv	22:38 Beranduegi.tv	21:30 Berriak	21:00 Gurean gaur	21:02 Gurean gaur	20:15 Magazinea
20:07 Berriak	21:36 Berriak	23:03 Magazinea	21:55 Eguraldia	21:30 Berriak	21:32 AsteON	21:00 Gurean gaur
20:37 Eguraldia	22:21 Magazinea	00:10 Eguraldia	22:00 Harmailatik	21:55 Eguraldia	22:02 Ekogune	21:50 Pedalka
20:42 Planik bai?	23:21 Berriak		22:45 Magazinea	22:30 Magazinea	22:32 Berriak	22:20 Planik bai?
21:02 Gurean Gaur	23:36 AsteON		23:45 Berriak	23:15 Klaketa	22:57 Eguraldia	22:40 Berriak
21:29 Pedalka	00:03 AZK2012		00:20 Eguraldia	23:55 Berriak	23:08 Magazinea	23:05 Eguraldia
22:00 AsteON				00:29 Berriak	23:53 Klaketa	23:08 Magazinea
22:30 Ikusmira: Bermeo hilabete eta gero				00:54 Eguraldia	00:18 Berriak	23:53 Klaketa
22:50 Berriak				00:57 Magazinea	00:43 Eguraldia	00:18 Berriak
23:15 Eguraldia						00:43 Eguraldia
23:18 AsteON						
23:48 Planik bai?						
00:08 Berriak						
00:33 Eguraldia						

ARRASATE IRRATIA

Fiachras taldearen kontzerturako sarrerak zozketan

Datorren eguenean, *Koaltur ostegunak* egitasmoaren barruan, Arrasateko gaztetxean *Fiachras* taldeak eskainiko du kontzertua. Bertara joateko sarrerak zozketatuko ditugu. Parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera. Zorte on!

Astekoa gainbegiratu zapatu eta domekan 10:00etan

Astean zehar Arrasate Irratian izan ditugun elkarrizketak entzun ahal izango dituzue asteburuan, 10:00etan. Besteak beste, Kepa Urteaga Kultura zinegotziak San Juan jaietako buruz hitz egingo digu eta Amaia Albes diseinatzailea ere izango dugu Arrasate Irratiko uhinetan.


GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 31	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Zapatua, 1	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Domeka, 2	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Astelehena, 3	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Martitzena, 4	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
Eguaztena, 5	AMEZUA	Sta. Marina 32	943 79 09 74
Eguena, 6	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
BERGARA			
Egubakoitza, 31	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Zapatua, 1	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
Domeka, 2	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 3	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 4	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguaztena, 5	MOZOS	Iparragire 2	943 76 12 15
Eguena, 6	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
OÑATI			
Egubakoitza, 31	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Zapatua, 1	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 2	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 3	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 4	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 5	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 6	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28

Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



ZAPATUA, 1
Ez dugu aldaketa handirik igarriko zapatuan. Eguzki apurra ezkutatu egingo da eta zeruan lainoak nagusituko dira.

DOMEKA, 2
Domekan ere euriarekin jarraituko dugu eta zaparradak izateko arriskua ere egongo da egun osoan zehar.

EUSKAL HERRIA



GAZTE INFORMAZIOA

BEKAK

Prestakuntza. Graduondoko prestakuntzako bekak Estatuko Aldizkari Ofiziala Agentzian. Baldintzak: Gizarte Zientietan, Lege Zientietan edo Humanitateetan lizentziatura 2008an edo ondoren lortua, eta bibliotekonomian eta dokumentu-kudeaketan prestakuntza espezifikoa. Epea: ekainak 3.

Australia. Australiako Hezkuntza, Lan eta Lan Harremanen Ministerioa. Gradu edo graduondoko ikasketak burutzeko, master edo doktoradutza ikasketen esparruan ikerketak egiteko, australiar enpresa edo erakundeetan praktikak burutzeko Epea: ekainak 30.

BEKAK

EHU. Ekinetik irailera bitartean Miramar jauregian

(Donostian) burutuko dira alor asko lantzeko: historia eta kultura, hizkuntzalaritza, literatura, kirola, psikologia, osasun zientziak, bizitzaren bidaia, zuzenbidea, gizartea, energia, ingurumena, ekonomia, teknologia... www.sc.ehu.es/cur-sosdeverano.

UEU. Uztailaren 1etik 24ra, Eibarren, Baionan eta Iruñean. Artea eta musika, gizarte zientziak, ingenieritza, teknologia, osasun zientziak, zientziak... www.ueu.org.

LANA

Administrari laguntzailea. Beasaingo Udala. Aldi baterako liburutegirako administrari laguntzailea. Ekainak 4.

Irakasleak. Madrilgo Komunitatea. 350 irakasle posturako. Epea: ekainak 3.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:
Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



Honorio eta Maritere

Gaur, maiatzak 31, Bergarako Honorio Sampietro eta Maritere Etxanizek 55. ezkontza-urteurrena ospatuko dute. "Ea merezi duen halako egun berezia! Musu handi bana, familia moduan ospatzen dugun denok elkarrekin partetik!".



Juan Luis eta Maitane

Juan Luis aretxabaletarra eta Maitane bergarra ekainaren 1ean ezkonduko dira Gasteizen. "Zuen eguna heldu da. Zorionak, bikote! Familia eta lagunen partetik, besarkadarik beroena, eta bereziki Anerren eta Liharren partetik. Oso ondo pasatu!".



Aitor eta Jessi

"Aitor Elgero eta Jessica Gambramaiatzaren 25ean ezkondu ziren Bergarako udaletxean eta gero Gure-Ametsa jatetxean ospatu genuen denok egun berezia. Familiaren eta lagunen partetik, zorionak, bikote, eta jakin oso ondo pasatu genuela. Beraz, orain disfrutatuz eztei-bidaia zoragarrian, merezi duzue-eta! Patxo bat!".



Luis eta Mari

Luis eta Mari Oñatin ezkondu ziren 1963ko ekainaren 1ean. Bihar, zapatua, urrezko ezteiak ospatuko dituzte familiarekin batera. "Zorionak eta ondo pasatu" hauen guztien partetik!



Kasia eta Unai

Kasia Poplonikowska eta Unai Beitia zapatuan, ekainaren 1ean, ezkonduko dira Polonian. "Zorionak, bikote, familia eta lagun partetik! Ondo-ondo pasatu zuen eguna eta zoriontsu izan!".



HILDAKOAK

Basilía Zarrabe Gerenabarrena. Elgetan, maiatzaren 10ean. 89 urte zituela.

Roman Gantxegi Garitano. Bergaran, maiatzaren 23an. 94 urte zituela.

Iñaxi Iriondo Zabaleta. Oñatin, maiatzaren 24an. 77 urte zituela.

Zelestina Garitano Elkoroiribe. Bergaran, maiatzaren 28an. 85 urte zituela.

Tomasa Zuazua Urrutia. Bergaran, maiatzaren 28an. 89 urte zituela.

URTEURRENA



Maritxu Gurrutxaga Arozena




Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 2an, 11:30ean, Aretxabaletako Andra Mari parrokian.

Urte bat dator gure ondotik joan zinenetik malkoz ditugu begiak oraindik baina inoiz ez zara joango gure bihotzetik.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 31n.

URTEURRENA



Rosario Madina Egaña



Oñatin hil zen 2012ko maiatzaren 29an.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 1ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean. Oñatin, 2013ko maiatzaren 31n.

OROIGARRIA

Zelestina Garitano Elkoroiribe



1928-2013

Ama, izena eta izana.

Ama, izen txiki arruntean, izan haundi berezi-berezia.

Aitor, Iñaki, Maite, Oroitz eta Itsaso Julian Aginagalde Arenaza Bergaran, 2013ko maiatzaren 31n.

ESKER ONA

Zelestina Garitano Elkoroiribe



1928-2013

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2013ko maiatzaren 31n.

ESKER ONA



Iñaxi Iriondo Zabaleta



Oñatin hil zen 2013ko maiatzaren 24an.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2013ko maiatzaren 31n.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otarola Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarte: Errotalde Jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.


OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.





GOIENA

ESKORIATZA XVII. Ferixie

Arizmendik antolatuta azoka egingo dute zapatuan Eskoriatzan. 10:00etan baserriko produktu eta artisau feria egingo dute. Ondoren, txorimalo lehiaketa, tailerrak, gazta dastaketa, trikitilariak... Herri bazkaria frontoian izango da. Bihar, zapatua, Eskoriatzako kaleetan, 10:00etan.

OÑATI 'Bejondaigula!'

Ttanttaka Teatro taldeak *Bejondaigula!* antzezlan eskainiko du Santa Anan. Ramon Agirre eta Niko Lizeaga dira antzezlaneko protagonistak. Agertoki gaineko poztasunak eta agertokitik jaisten diren errealitatea erreparatzen dute bi protagonistek antzezlanean. Sarrerak *barrabarra. eu*-n salgai. Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 22:30ean.



TTANTTAKA

MUSIKA**OÑATI Josu Zubiaren kontzertua**

Antixenako gaztetxezko barra aste bukaeretan zabalik egongo dela ospatzeko Josu Zubia bakarlari oñatiarraren emanaldia. Gaur, egubakoitza, Antixenako gaztetxean 18:30ean.

OÑATI Haize taldearen emanaldia

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Jose de Azpiazu musika eskolako Haize taldeak kontzertua egingo du Portuko plazatxoan. Lorea Gomezek zuzenduko du. Gaur, egubakoitza, Portuko plazatxoan 19:30ean.

BERGARA Morau eta Alkhate

Egubakoitzak kartzelan egitasmoaren barruan Morau eta Aguxtin Alkhaten kontzertua. Sarrera 3 euro. Gaur, egubakoitza, gaztetxean 22:00etan.

BERGARA Oreindik

Oreindik taldeak kontzertua eskainiko du Laino skate parkean. Doan izango da emanaldia. Gaur, egubakoitza, Laino skate parkean 22:30ean.

OÑATI Bitz, Stupenda Jones

Oñatiko Bitz eta Olaztiko Stupenda Jones taldeek rock kontzertua eskainiko dute Antixenan. Aurretik, kalejira egongo dute, 19:00etan Etxaluzen. Bihar, zapatua, Antixenako gaztetxean 22:00etan..

OÑATI Bandaren kalejira

Oñatiko Udal Bandak kalejira egingo du. Bihar, zapatua, herriko kaleetan, 20:00etan.

OÑATI Amaia Txintxurreta DJ

Korpus bezperan emanaldia eskainiko du Amaia Txintxurretak Foruen plazan. 20:30ean hasiko da lehenengo zatia, eta 23:00etan ekingo du bigarrena. Bihar, zapatua, Foruen plazan 20:30ean.

ARETXABALETA Musika zaparrada

Euskerien eguna-ren barruan musika zaparrada egingo dute. 18:00etan hasiko dute Mitarte kalean eta Larrin dantzaren ostean berriro ere helduko diote musikari (19:30). Bihar, zapatua, Mitarte kalean 18:00etan.

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxe: 943 25 05 00

MAIATZAK 31
EKAINAK 6**OÑATI Udal Musika banda**

Prozesioaren ondoren Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du. *Certamen Musikal, La Torre de oro* eta *Sonrisas y lagrimas* obrak eskainik dituzte Inazio Ibarrondoren zuzendaritza-pean. Etzi, domeka, Foruen plazan 13:30ean.

OÑATI Dantzaldia

Udal Musika Bandak dantza egiteko abestiak eskainiko ditu plazan. Pasodobleak, balsak eta beste hainbat eskainiko dute. Etzi, domeka, Foruen plazan 19:00etan.

ANTZERKIA**ARETXABALETA 'Un loco de desatar (o Las paradojas del cósmico)'**

12 urtetik gorakoendako antzezlan eskainiko dute Zاراia aretoan. Sarrera 4 euro. Gaur, egubakoitza, Zاراia aretoan 22:00etan.

ARETXABALETA 'Maddi eta Antton'

ZuOndoan antzerki taldeak *Maddi eta Antton* antzezlan eskainiko du. Prezioa izango da: 3 euro. Etzi, domeka, Zاراia aretoan 17:00etan.

IKUSKIZUNA**OÑATI Zirika Zirkus pailazoak**

Zirika Zirkus taldeko pailazoek *Dantzateke* emanaldia eskainiko dute Portuko plazatxoan. Euria egingo balu Santa Anan. Bihar, zapatua, Portuko plazatxoan 18:00etan.

DANTZA**OÑATI Oñatz taldea auzoetan**

Aspaldiko ohitura jarraituz Oñatz dantza taldekoak auzoetan ibi-

liko dira Txistulari Bandak lagunduta. Korpusetako dantzak eskainiko dituzte dantzariak. Arratsalde partean herriko ikastetxeetan egingo dute erakustaldia lehenengo, eta ondoren Ugarkalde, San Martin eta Kasablanka auzoetan ere ibiliko dira dantzariak.

Gaur, egubakoitza, auzoetan, goiz eta arratsalde.

ARRASATE Herrixa Dantzan saio gidatua

Gidatutako dantzaldia, dantza tradizional ludikoekin osatutakoa: soka, korruan, bikoteka... denetarik. Helburua, adin ezberdinetako herritar soilak elkarrekin dantzan gozatzea. Sarrera doan eta parte hartzea libre. Taberna zabalik. Antolatzailea: Portaloik elkartea.

Gaur, egubakoitza, Garaia taberna-jatetxean 20:00etan.

OÑATI Korpus dantzak plazan

Aspaldiko ohitura jarraituz Oñatz dantza taldekoak Korpus dantzak eskainiko dituzte Foruen plazan. Ondoren, herriko kaleetan ibiliko dira.

Bihar, zapatua, Foruen plazan 9:00etan.

BERGARA Herrixa Dantzan saio gidatua

Gidatutako dantzaldia, dantza tradizional ludikoekin osatutakoa egingo dute. Helburua, adin ezberdinetako herritar soilak elkarrekin dantzan gozatzea. Sarrera doan eta parte hartzea librea izango da. Dantza gidaria: Patxi Montero. Antolatzailea: Bergarako Udala.

Etzi, domeka, Zabalotegi aretoan 19:00etan..

OÑATI Korpus dantzak

Oñatz dantza taldeak Korpus eguneko dantzak eskainiko ditu. Eguraldi txarrarekin Zubikoa kiroldegian izango litzateke emanaldia.

Etzi, domeka, Foruen plazan 18:15ean.

ARETXABALETA Dantza emanaldiak

Leizarra musika eskolako dantza emanaldiak: astelehenean, martitzenean, eguaztenean eta egubakoitzean izango dira emanaldiak. Dantza saioak doan izango dira Arkupeko Zاراia aretoan.

Ekainaren 3an, 4an, 5ean eta 7an, Zاراia aretoan 17:00etan.



GOIENA

OÑATI Korpus prozesioa

Urteroko ohitura jarraituz prozesioa egingo dute domeka goizean herriko kaleetan. 11:00etako meza nagusiaren ostean hasiko da prozesioa parrokiatik. Plazan bukatuko da eta

azken dantzak, eguraldi txarra eginez gero, parrokiaren inguruan egingo dira. Eguraldi txarrarekin prozesioa ere parrokiaren inguruan egingo dela adierazi dute antolatzaileek.

Etzi, domeka, kaleetan 11:00etan.



ARETXABALETA 'Euskerien Eguna'

Loramendik antolatuta *Euskerien Eguna* ospatuko dute. 10:00etan txondorren ibilbide historikoaren aurkezpena egingo dute; ondo-

ren, jolasak, trikitalariak, bertsolariak eta herri bazkaria. Arratsaldean Larrin dantza izango dute.

Bihar, zapatua, Aretxabaleto kaleetan 10:00etan.

JAIK

BERGARA Otaba jaiak

Otaba jaiak ospatuko dituzte Elosun.

Etzi, domeka, Elosun 10:00etan.

LITERATURA

OÑATI Harkaitz Canoren 'Twist' liburuaren azterketa

Gaztetzeko irakurle taldearen bosgarren saioa izango da.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean 18:00etan.

BERGARA Erlantz Urtasun

Erlantz Urtasunek *Historia de Navarra, Iruñsheme-iruinabak* liburua aurkeztuko du. Liburuaren pasarteak irakurri eta solasaldia egingo dute.

Ekainaren 4a, martitzena, Irizar jauregian 19:00etan.

HITZALDIK

ARAMAIO 'Ciclotherapy', munduari buelta bizikletan

2009ko otsaila ezker 26 herrialdean egon den eta bizikletan 45.500 kilometro egin dituen Iñigo Rumenigek bere esperientzia kontatuko du.

Gaur, egubakoitza, Sastiñan 18:30ean.

ARETXABALETA 'Aitatasuna eta maskulinitatea'

Iñaki Kasaresek eskainiko duen hitzaldia. Aurrez eman behar da izena kukumikuelkarte@gmail.com helbidean. Gizonezkoentzat bakarrik.

Ekainaren 6an, eguena, Kuku Miku elkartearen 17:30ean.

ARETXABALETA 'Emakumea eta kirola'

Emakumea eta kirola izango dute berberak: Leire Olaberria, Dorleta Ugalde, Ainhoa Azurmendi eta Ainhoa Martin. Moderatzailea Gorka Etxabe.

Ekainaren 6an, eguena, Zaria aretoan 19:00etan.

ARETXABALETA 'Ostegun bidaiariak'

Ostegun Bidaiariak lehiaketaren laugarren emanaldia egingo dute

ekainaren 6an. Emanaldian Polonia bisitatuko dute. Hizlaria: Imanol Soriano.

Ekainaren 6a, eguena, Azkena tabernan, 21:30ean.

IRTEERA

ARRASATE Besaideko beteranoen XII. Irteera

Besaide elkarteko beteranoen martxa. Ibilbideak 9 kilometro izango ditu eta ondoren Joxe Mari erretegian bazkalduko dute, Ribas de Tereson. Prezioak: Besaideko bazkide eta federatuak 46 euro, Besaideko bazkide baina federatua ez denak 48 euro, Besaide bazkide ez eta federatua ere ez dena 50 euro. Ordainketa 3035 0202 76 2021021758 kontu korrontean egin behar da, maiatzaren 27a baino lehen.

Bihar, zapatua, Garibain 07:00etan.

ANTZUOLA Mendi irteera

Goizeko 9:30ean gaztetxean elkartuko dira, eta mendi ibilaldi txiki bat egingo dute, AHT eta autobidearen obrek ingurunea zela utzi duten ikusi eta konturatzeko. Ondoren parrillada izango dute gaztetxe aurrean.

Bihar, zapatua, gaztetxean 9:30ean.

ERAKUSKETA

ARETXABALETA Eskulan ikastaroko lanak

Eskulan ikastaroetan dabilzanen lanak erakutsiko dituzte Arkupen, ekainaren 3tik ekainaren 29ra arte. Ordutegia: 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango da. Zapatuan: 11:00etatik 13:00etara. Domeka eta jai egunetan, aldiz, itxita egongo da erakusketa.

Ekainaren 3a, astelehena, Arkupe kultura etxean 11:00etan.

BESTELAKOAK

ARETXABALETA Bisita gidatua

Bisitatu parte hartzeko alde aurretik izena eman beharra dago.

Bihar, zapatua, Korueta auzoan, Urkulun 17:00etan.

ELGETA Elgeta kantuan

Jose Gardoki soinu-jolearekin batera. 13:00etan herriko plazatik abiatuta.

Bihar, zapatua, Elgetako kaleetan 13:00etan.

OÑATI Tiro txapelketa

Txopekua tiro zelaian foso olinpiarreko probintzia mailako tiro txapelketa jokatu dute.

Bihar, zapatua, Txopekuan 11:00etan.

ARRASATE Mus txapelketa

Monte tabernan mus txapelketa jokatu dute. Izen-ematea 40 euro bikoteko.

Bihar, zapatua, Monte tabernan 22:00etan.

OÑATI Arkitektura tailerra

Haurrendako arkitektura tailerra egingo dute Arantzazun, Arantzazu Gaur Fundazioa eta Jorge Oteiza Fundazio-Museoarekin elkarlanean.

Ekainaren 8a, zapatua, Arantzazun, 10:00etan.

AZOKA

ARRASATE XV. Garagardo festa

Arrasateko Errugby taldeak antolatuta garagardo festa egingo dute herriko plazan. Alemaniar edari eta errekiak dastatzea izango dute. Zapatuan itxiko dute azoka.

Gaur eta bihar, egubakoitzetik zapatua, herriko plazan, 19:00etan.

ARRASATE Elkartasun eguna

Arrasateko GKEek antolatuta Elkartasun Eguna ospatuko dute zapatuan. Bidezko merkataritza postuak, Indiaren aldeko tonbola, erakusketa, elkartasuneko mokadua... horrez gain, puzgarriak, batukada, ipuin kontaketa eta Herrixa dantzan.

Bihar, zapatua, Seber Altube plazan 10:00etan.

KIROLA

OÑATI Oñatiko XI. herri lasterketa

Goizean haur eta lehen hezkuntzako gaztetxoendako (12:00) lasterketa. Arratsaldean Euskal Herriko korrikalari onenak izango dira Oñatin. Korreos parean hasiko dute lasterketa eta amaiera Foruen plazan izango da.

Bihar, zapatua, herriko kaleetan 19:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

La gran boda

Domekan: 19:30.
Astelehenean: 20:30.

Monster High Scaries

Domekan: 17:00.
Martitzenean: 20:30.

BERGARA

ZABALOTEGI

Una aventura extraordinaria

Eguaztina: 20:00.

EIBAR

COLISEO

Ayer no termina nunca

Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

Efectos secundarios

Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

COLISEO ANTZOKIA

El gran Gatsby

Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:30, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

GASTEIZ

FLORIDA

El gran Gatsby

Egubakoitzean eta zapatuan: 17:00, 19:45, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:15.

Los croods

Egubakoitzean: 18:00.
Zapatuan eta domekan: 12:00, 16:50, 18:40.

La caza

Egubakoitzean eta zapatuan: 20:30, 22:30.
Domekan: 20:30.
Astelehenean eguenera: 17:30, 20:00.

La gran boda

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:45.
Astelehenean eguenera: 17:30.

Chaika

Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

El rio que era un hombre (V.O.S.)

Egubakoitzean eta zapatuan: 20:30, 22:30.
Domekan: 20:30.
Astelehenean eguenera: 20:00.

Resacon

Egubakoitzean eta zapatuan: 17:15, 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:15, 20:00.

Un amigo para Frank

Egubakoitzean eta zapatuan: 18:50, 20:30, 22:30.
Domekatik eguenera: 18:50, 20:30.

Fast & Furious 6

Egubakoitzean eta zapatuan: 17:30, 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00.

La nostra vita (V.O.S.)

Egubakoitzean eta zapatuan: 18:00, 20:15, 22:30.
Domekatik eguenera: 18:00, 20:15.

KRIKA



Luzaroan akordatuko zara

Gerra egon zen 2016. urtean Lurraren eta estralurtar batzuen artean. Gizakiok irabazi zuten, baina horren prezioa Lurra bera izan zen. Ze berri? Orain arte, gauza gutxi. Baina *Oblivion*-ek

—hori baita filmaren hasierako planteamendua— baditu gauza berriak edo berri-antzekoak, eta baditu ere oso ondo egindako gauzatxoak ere. Ez dira sekulako nobedadeak —*El sexto sentido*-k eta *Sospechosos habituales*-ek bete dute oinordeko-kupoa—, baina bai jesarlekura pegatuta utziko gaituztenetakoak, eta horrek justifikatzen ditu txartelaren prezioa eta gure bizitzako bi ordu.

2073. urtean, Lurra dagoeneko ez da bizi izateko modukoa. Lurrean inoiz bizi izan ez den arren, harekin amets egiten du —New Yorkekin, hain zuzen ere— Lurraren etxe-mina duen Jack-ek. Bikotekide eta lankide Vicarekin batera, Lurrean geratu diren droneak konpontzen ditu, bertako ur guztia ateratzen laguntzen du eta, bide batez, han geratzen diren estralurtarrak borrokatzen ditu. Ur hori beste planeta batera eramango dute,

TITULUAXXX ★★★★★

Zuzendaria: Joseph Kosinski.

Herrialdea: AEB.

Aktoreak: Tom Cruise, Olga Kurylenko, Andrea Riseborough, Morgan Freeman.

bertan gizakiok aro berri bat has dezaten. Baina, esan dugun bezala, Jack-ek Lurrarekin amets egiten du, eta baita emakume batekin ere; ez du ezagutu, baina lotura misterioitsu bat sentitzen du haren ganako.

Elementu horiekin —teknologia zoragarriak, paisaia triste eta ederrak, akzioa eta misterioa— oso ondo erakiten du bere istorioa Joseph Kosinski zuzendariak; berak idatzitako nobela grafikoan oinarritutako filma da, baina ez dago nobela irakurri beharrik filma ulertzeko. Eta ez da film endredatua, erantzunik eman barik ihesik irteten den film horietako bat; erantzun guztiak hor daude. Pentsarazi egingo dizu, eta era berean hunkitu egingo zaitu. (Eta Tom Cruise eta Morgan Freeman agertzen dira fileman!). Ez da erraz ahazteko moduko filma *Oblivion*.

LEIRE KORTABARRIA



goiena

2013-05-31

BUKATZEKO

Piperrak eta letxugak, erdigunean

- ▶ Herri Lagunak kaleko bi lorategiak ortu bilakatu ditu Bergarako Udalak, denetariko barazkiekin
- ▶ Sentsibilizazio kanpaina ipini dute abian, herritarrek berdeguneak zaintzearen garrantziaz jabetzeko

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Azken egunotan Bergarako Herri Lagunak kaletik pasa diren herritarrek ezustekoa hartuko zuten, seguruenik. Bertan dauden bi lorategietan, loreak beharrez, letxugak, kalabazak, piperrak, zerbak, artoa, menda eta beste hainbat barazki topatu dituzte. Udalak herriaren erdigunean, eta herritarren bista-bistan, baratze txiki bat ipini nahi izan du. "Herritar askorendako, seguruenik, ezezaguna izango da ortugintza eta helburuetako bat da baratzeetako produktuak herritarrei erakustea; hau da, ortua herritarren begi bistan ipintzea", azaldu digu Udaleko Lorezainburu Arkaitz Tolosak.

Bi ortuak hurritz-adarrekin egindako itxitura batekin babestu dituzte: "Garai batean horrelaxe egiten zen. Politagoa egiteko eta barazkiak sailkatu eta babesteko egin dugu itxitura hori". Tolosak azaldu digu barazkiak aukeratzeko orduan ere hosto eta lore politenak ematen dituztenak aukeratzeko ahalgintza direla.

'Zain ditzagun lorategiak'

Herri Lagunak kalean ipinitako bi ortu txikiak, baina, badute



Herri Lagunak kaleko ortuek herritarren arreta erakarri dute. | ARRITXU BARRUSO



Udalak ipinitako kartela. | II.

beste helburu bat: bergararrak herriko berdeguneak zaintzearen garrantziaz ohartaraztea. "Konturatu gara azken urteetan gure ondarearekiko errespetua galdu egin dugula zeharo. Berdeguneak ez dira batera zaintzen. Debekatura egon arren, txakurrak lorategietara sartzen dira eta askok eta askok txakur-kakak jaso ere ez dituzte egiten", dio Arkaitz Tolosak.

Ingurumen zinegotzi Leire Iruin ere bat dator ideia horrekin: "Denok nahi dugu herria polita egotea, baina herritarrei ulertarazi nahi diegu polita mantentzeko ardura hori guztiona dela".

Ea, bada, Udalaren nahia betetzen den, herritarrek ortua behar bezala zaintzen duten eta, laster, herritar guztien artean zaindutako piperrak jaitzen diren.

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Gomendioak

Aste honetan egin dituzte publiko gatazkaren ondorioei aurre egiteko Foro sozialetik ondorioztatutako 12 gomendio.

Desarma, presoak eta iheslariak, biktimak, bizikidetzak... guztiak hartzen dituzte aintzat gatazka konpontzeko bidean.

Gobernuak, Euskal Preso Politikoen Kolektiboa (batzuek ukatu nahi izan arren, bada eta preso politikoz osatutako kolektibo bat Espainiako eta Frantziako karteletan barreiatuta), alderdi politikoak, sindikatuak, gizarte eragileak eta norbanakoak, guztiak, jartzen gaituzte gomendiook gatazkaren ondorioak gainditzeko ezinbesteko eragile.

Ez dago ihesbiderik askok, uste baino gehiagok, langintza honetatik ihes egin nahi duten arren.

Beti aldarrikatu dugu jendarte zibilaren parte hartzea gatazkaren konponbidean. Orain badugu bide-orria. Erantzukizunez jokatzeko dagokigu. Markoak eskaini eta gomendiook bete daitezken jendarte zibila aktibatzea dugu helburu.

Asko daukagu jokoan. Sufrimendu eta min asko dago tartean. Bidea tentuz eta prezipitazioz gabe egin behar dugu, baina etenik gabe, aldi berean.

Gomendiook jarritako orubearen gainean etorkizuna eraikitzen hastea dagokigu; guztioi, ihesbiderik eta saihezbiderik gabe.

PEDALKA

FRANTZIAKO ALPEAK ALDERIK ALDE BIZIKLETAZ JULEN IRIONDOREKIN
GOIENA TELEBISTA | EKAINAK 6, 21:50

